


2020ko JARDUEREN MEMORIA



EMAKUNDE

EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

Erakunde autonomiaduna

Organismo Autónomo del

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

AURKEZPENA

Dokumentu hau Emakundeko Zuzendaritza Kontseiluak onartu zuen 2021eko ekainaren 14an egindako bileran, eta Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak 2020an gauzatutako jardueraren berri eman nahi die nola erakunde eta antolakundeei hala herritar guztiei.

Lehenengo eta behin, barne-antolaketa deskribatzen du eta zehazten du zein den Emakunderen zeregina, eta, horren arabera, bi atal nagusitan egituratzen da: lehenengoak garatutako jardura jasotzen du, batez ere erakunde publikoen eremuan, politika publikoak diseinatzeko, sustatzeko, koordinatzeko, aholkatzeko, horien jarraipena egiteko eta horietan emakumeen parte-hartzea sustatzeko ekintzen inguruko lana. Atal hau botere publikoen bidez eginiko ekintzei buruzkoa da, batez ere administrazio hiru mailetan, eta Estatuko, Europako eta nazioarteko erakundeekiko harremanen esparruan.

Bigarren atalean, gizarte osoarentzat bideratutako jardura azaltzen da, bai agente edo talde antolatuen bitartez egindakoa (adibidez, emakumeen elkarteek edo enpresa eta erakunde pribatuek egindakoa), bai herritarrentzat egindakoa. Jardura honetan bi alderdi sartzen dira: alde batetik diskriminazio-egoera zehatzei emandako erantzuna, eta, bestetik, gizarte-sentsibilizazioa.

Emakundek eskerrak eman nahi dizkio administrazioan eta beste erakunde batzuetan profesionaltasunaren bidez memoria honetan jasotzen diren jardura guztiak egiten laguntzen duen pertsona orori, batez ere, berdintasuneko teknikariei. Halaber, Emakundeko Zuzendaritzak bere aintzatespena eta esker ona adierazi nahi dizkie Erakundearen lan egiten duten pertsona guztiei, egunero gauzak ondo egiteko gaitasuna eta erakundearen xede eta helburuekiko konpromisoa erakusteagatik.

Eskerrik asko guztioi.



Emakumeen Mundu Konferentziaren 25. urteurrena.



AURKIBIDEA

SARRERA	2		
1. SARRERA: EMAKUNDE	4		
1.1. Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundea. Egitekoa eta antolaketa	5		
1.2. Urtebete pandemiak sortutako lehentasun berriak direla eta berehala erreakzionatzeko ...	6		
1.3. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legearen bigarren aldaketa egiteko Legearen proiektua	7		
1.4. Emakundeko emakumeen eta gizonen berdintasunerako Plana (2018-2021)	8		
1.5. Euskadin soldata-arrakala murrizteko Estrategia eta Ekintza Plan	8		
1.6. Emakundeko Zuzendaritza Kontseilua	10		
1.7. Eusko Legebiltzarrarekiko harremana.....	10		
1.8. Berrikuntza publikoa eta kudeaketa aurreratu.....	11		
1.9. Euskararen erabilera normalizatzea.....	11		
2. ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN ESPARRUAN EGINDAKO JARDUKETAK	13		
2.1. Sustapena, aholkularitza eta erakundearen koordinazioa.....	14		
2.1.1. Administrazio autonomikoa.....	14		
2.1.2. Foru- eta toki-administrazioa.....	18		
2.1.3. Beste erakunde eta antolakunde batzuekiko koordinazioa eta lankidetzak.....	22		
2.2. Politika publikoen ebaluazioa	37		
2.3. Zeharkako jardueraren esparru eta zerbitzuak	38		
2.3.1. Aholkularitza juridikoa.....	38		
2.3.2. Prestakuntza.....	40		
2.3.3. Azterlanak, ikerketak eta argitalpenak	46		
3. GIZARTE OSOA XEDE DUTEN JARDUERAK	53		
3.1. Emakumeen elkartegintza eta berdintasunaren aldeko mugimenduak sendotu eta bultzatzea.....	54		
3.1.1. Lan-proiektuak emakumeen elkarrekin.....	54		
3.1.2. Emakumeen elkarte, fundazio eta federazioentzako dirulaguntzak.....	55		
3.1.3. Emakumeen aurkako indarkeriaren prebentzioa, horren inguruko sentsibilizazioa eta laguntza bultzatzen duten erakunde, elkarte eta fundazioentzako dirulaguntzak ...	56		
3.2. Enpresentzako aholkularitza eta laguntza.....	56		
3.2.1. Berdintasun-planak: aholkularitza	56		
3.2.2. Enpresa eta erakunde pribatuentzako dirulaguntzak.....	57		
3.2.3. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Lankidetzak Erakundeak.....	57		
3.2.4. Aholkularitza-enpresen homologazioa eta jarraipena	57		
3.2.5. BAI SAREA. Gizonen eta emakumeen berdintasunerako lankidetzak-erakundearen Sarea	58		
3.2.6. Enpresei laguntzeko beste tresna batzuk	60		
3.3. Herritarrei arreta zuzena emateko jarduketak, berdintasun-printzipioa eta bereizkeriarik ezarena defendatzeko sektore pribatuan.....	60		
3.4. Gizarte-sentsibilizazioa	61		
3.4.1. Nahiko programa.....	62		
3.4.2. Beldur Barik program.....	63		
3.4.3. Gizonduz ekimena	64		
3.4.4. Kanpainak	68		
3.4.5. Emakumeen eta Gizonen arteko berdintasunerako gunea	71		
3.4.6. Hedabideetan agertzea	72		
3.4.7. Berdintasunaren aldeko Emakunde Saria	72		
3.4.8. Emakunderen webgunea eta sare sozialak.....	73		
3.4.9. Emakunderen Zuzendaritzaren presentzia sentsibilizazio-jardueretan.....	73		
4. ERANSKINAK	76		
1. ERANSKINA: Diagnostikoak egiteko eta/edo emakumeen eta gizonen berdintasunerako planak egiteko eta ebaluatzeko dirulaguntzak jaso dituzten udalerrri, kuadrilla eta mankomunitateen zerrenda.....	77		
2. ERANSKINA: Dokumentazio Zentroko kontsulten banaketa.....	80		
3. ERANSKINA: Emakume eta gizonen berdintasunerako proiektuetarako dirulaguntza jaso duten emakumeen elkarte eta federazioen zerrenda.....	84		
4. ERANSKINA: Dirulaguntzak jaso dituzten emakumeen aurkako indarkeriazko portaerei buruz sentsibilizatzeko eta/edo halakoak prebenitzeko jarduerak bultzatzen eta sustatzen dituzten erakunde, elkarte eta fundazioen zerrenda.....	92		
5. ERANSKINA: Emakume eta gizonen berdintasunerako diagnostikoak eta planak diseinatzeko laguntza kontratatuzko dirulaguntza jaso duten enpresen eta erakundearen zerrenda.....	95		
5. ARGAZKIAK	96		





1. Sarrera: **Emakunde**



1.1. Emakunde - Emakumearen Euskal Erakundea. Egitekoa eta antolaketa

Egitekoa:

Otsailaren 5eko 2/1988 Legeak Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundea sortu zuen, erakunde autonomo administratibo gisa, berezko izaera juridikoarekin eta Eusko Jaurlaritzaren Lehendakartzara atxikita. Emakunderen egitekoa berdintasun-politikak diseinatu, bultzatu, koordinatu eta ebaluatzea da, politika horietarako aholkua ematea, eta gizartea sentibilizatzea, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortzeko –benetakoa eta eraginkorra–, Euskal Autonomia Erkidegoko politikagintzaren, ekonomiaren, kulturgintzaren eta gizartearen esparru guztietan.

Erakundeak, berdintasunera bideratuta balioen aldaketaren alde egiteko, bi jarduera-eremu handi ditu: batetik, administrazio publikoekin lan egitea, administrazio horietan berdintasunaren aldeko baliabide pertsonalak eta ekonomikoak sendotuz eta politika publikoetan genero-ikuspegia sartzeko neurriak abian jar daitezela sustatuz; bestetik, gizartearekin orokorrean lan egitea, emakumeen ahalduntzea, gizarte- eta ekonomia-eraldaketa eta emakumeen kontrako indarkeriaren aurkako borroka sustatzeko.

Zuzendaritza-organoak:

Emakunderen jarduera gidatzen duten organoak hauek dira:

- Zuzendaritza Kontseilua: Eusko Jaurlaritzako lehendakaria izango da buru eta Emakundeko zuzendaria, berriz, lehendakariorde; halaber, kontseilukideak Eusko Jaurlaritzan hezkuntzan, lanean, osasunean, industrian, kulturen eta gizarte-gaietan eskumenaduten sailletakoak, foru- eta toki-administrazioetakoak, Eusko Legebiltzarrekoak eta Emakunderen Aholku Batzordekoak izango dira¹.
- Zuzendaria: Izaskun Landaida Larizgoitia².



Berdintasun, Justizia eta Gizarte politiketako sailburua, Emakundeko zuzendaria eta idazkari nagusia.

Kudeaketa-organoak:

Emakundek kudeaketa-organo hauek dauzka:

- Idazkari nagusia: Zuriñe Elordi Romero³.
- Prentsa eta Komunikazioko arduraduna: Karnele Jaio Eiguren.
- Alor funtzionalak:
 - Administrazioa.
 - Aholkularitza juridikoa eta informazioa.
 - Lankidetzatza instituzionala.
 - Azterlanak, dokumentazioa eta plangintza.
 - Programak eta prestakuntza.
 - Emakumeen aurkako indarkeria desagerraraztea.
 - Berdintasunaren eta bazterketa ezaren printzipioa defendatzea.

1. Urtarrilaren 31ko 214/2006 Dekretuak arautua.
 2. Urtarrilaren 29ko 137/2013 Dekretu bidez izendatua.
 3. Ekainaren 27ko 184/2017 Dekretu bidez izendatua.



Koordinazio organoak:

Emakundek koordinazio-organo hauek dauzka bere egitura organikoaren barruan:

- Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako Erakundearteko Batzordea.
- Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako Sailarteko Batzordea.
- Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen Aholku Batzordea - Emakumeen elkarten partaidetzarako organoa.
- «Etxeko tratu txarrak eta sexu indarkeria jasaten dituzten emakumeei harrera hobea egiteko erakundearen arteko II. Akordioa» delakoaren Jarraipen Batzordea.
- Begira - Publizitate eta komunikazio ez-sexista erabiltzeko Aholku Batzordea.

1.2. Urtebete pandemiak sortutako lehentasun berriak direla eta berehala erreakzionatzeko

COVID-19ak sortutako pandemiak nabarmen aldatu ditu agenda eta lehentasun politiko eta sozialak 2020an, eta politika publikoak beste modu batean bideratzera behartu gaitu, lehentasun horiei erantzuteko. Emakunderen kasuan, lehentasunetako bat emakumeen aurkako indarkeriaren esparruko erakunde-erantzuna koordinatzea izan da, hasiera-hasieratik bermatze aldera arreta-zerbitzuek funtzionatzen dutela eta biktima guztiek zerbitzu horiek eskuratzeko aukera izango dutela, biktimen aniztasuna kontuan hartuta. Hala, euskal erakundeak testuinguru berri horri erantzuteko egokitu behar izan dira, eta hori alde aurretik finkatutako egiturei eta koordinazio-lanari esker egin ahal izan da.

Pandemia hasi zenetik, Emakundek kontuan hartu du krisiek, alde batera utzita nolakoak diren, ez dietela modu berean eragiten pertsona guztiei, beti baitute inpaktu negatibo nabarmenagoa lehendik ere kalteberatasun handiagoko egoeran zeuden pertsonengan, hala nola hauengan: lan ezegonkorak dituzten pertsonak, langabeak, etxerik gabeko pertsonak, desgaitasun edo gaixotasun kronikoak dituztenak, adineko pertsonak, eta migratuak. Halaber, emakumeen eta gizonen arteko desparekotasunak –gure gizartean desagerrarazi ez dugunak– agerian uzten du halako taldeen barnean emakume eta neskatok arrisku handiagoa

dutela krisi hori pairatzeko, diskriminazioari, indarkeriari eta eskubide-uraketari dagokienez.

Horregatik, indarkeria matxistaren arloan beharrezkoa eta premiazkoa den erantzunaz gain, Emakundek berretsi du pandemiari eman beharrek erantzunean genero-ikuspegia modu integralean txertatu behar dela, epe labur, ertain eta luzean hartu beharrek neurriak al bait eraginkorrenak izan daitezten, emakumeentzat ez ezik, gizonentzat ere bai, eta, halaber, inor ez dadin atzean utzi, Garapen Jasangarrirako Euskadi Basque Country 2030 Agendan jasotako konpromisoan bilduta dagoen bezala.

Horretarako, Emakundek «*Berdintasuna pandemia-garaian. COVID-19aren eragina genero-ikuspegitik*» txostena eman zuen 2020an; eragile sozioekonomikoei gakoak ematen zaizkie txosten horren bidez, hobeto ulertzeko pandemiak emakume eta gizonengan nolako inpaktua duen eta zergatik duen halako inpaktua, erantzunak genero-ikuspegia kontuan hartuta egokitzeko gomendioez gain.

Ildo beretik, Emakundek gomendioen dokumentu bana ere eman zituen, pandemiaren ondoren etorkizuna berdintasunean funtsatuta eratzeko; gainera, Eusko Jaurlaritzak horren inguruan hartutako neurrien bilduma bat egin zuen Emakundek. Bestalde, Emakundek gogoetarako gune birtualen ziklo bat ere antolatu zuen, «*Garbira pasatzeko zirriborroak*» izenburuaren, COVID-19ak berdintasunean eta emakumeen aurkako indarkerian duen eraginari buruzko eztabaida eta gogoeta partekatua sortzeko.

Material horiek guztiak bildu eta herritarren eskura jarri ziren, Institutuaren webgunean sortutako gune espezifiko baten bidez.

2020a legealdi berri bat hasi deneko urtea ere izan da: antolaketa-aldaketak izan dira eta Emakunde Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren parte izatera igaro da; 2020an, halaber, Emakundek aintzatespen garrantzitsua jaso du euskara lanerako eta elkarbizitzarako hizkuntza bihurtzearen alde egin duelako,



Bikain zigilua lortu baitzuen (euskararen esparruko hizkuntza-kudeaketaren kalitate-ziurtagiri gorena da Bikain zigilua).

Beraz, testuinguru berrietara egokitzeko eta, aldi berean, sortu zenetik bere jardura gidatzen duten berdintasun-politikak indartzeko urtea izan da 2020a Emakunderentzat.

1.3. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legearen bigarren aldaketa egiteko Legearen proiektua

Zegokion izapidetzea gauzatu ondoren, urtarrilaren 28an Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legearen bigarren aldaketa egiteko Legearen proiektua onartu zuen Gobernu Kontseiluak. Hauteskundeak aurreratzearen eta Eusko Legebiltzara desegitearen ondorioz, proiektua bertan behera geratu da.

Legealdi berriarekin batera, proiektuari berrekin zitzaion, eta bigarren aldiz aurkeztu zen, kondizio berberekin, Gobernu Kontseiluan. Gobernu Kontseiluak azaroaren 19an onartu zuen proiektua, eta euskal legegintza-ganberara bidali zuen, hark izapidetu zezan.

Legearen proiektu horrek Eusko Jaurlaritzaren legealdiko konpromiso bati zein Legebiltzarreko talde politiko guztien eskariei erantzute aldera, eta, batez ere, Euskadin emakumeen aurkako indarkeriaren aurrean berdintasun-politikak, prebentzioa eta erakundeen erantzuna hobetu eta indartu beharri, kontuan izanik gaur egun indarrean den testua duela 15 urte onartu zela. 4/2005 Legea aldatu nahi da, hain zuzen ere, berdintasunaren aldeko eta indarkeria matxistaren kontrako politika eta itun handi bat lortzeko, hura indartzeko eta araudiaren eta gizartearen testuinguru berriaren ondoriozko behar berrietara egokitzeko.



Gobernu Kontseiluak lege-proiektua onartzea.

Bestalde, eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legea indarrean jarri zenetik 15 urte igaro ondoren, bost urteko ebaluazioa egin behar da, Lehenengo Xedapen Gehigarrian aurreikusita dagoen bezala. 2020an, beraz, eta etapa bat burutze aldera, ebaluazio bat abiarazi da, eta, horren bidez, Legeak indarrean eman dituen 15 urteotan berdintasunaren arloan egindako lana ebaluatu nahi da. Ebaluazio horrek, Berdintasunerako Legearen betetze-maila eta aplikazioa neurtzeaz gain, legearen garapenean inplikaturako pertsona eta erakunde guztiek egindako ahaleginari balioa ematea espero dugu.



1.4. Emakundeko emakumeen eta gizonen berdintasunerako Plana (2018-2021)

2018-2021erako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Planak Emakunderen estrategia zehazten du XI. Legealdirako Gobernu Programan eta EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Planean emakumeen eta gizonen berdintasun-arloan ezarrita dauden konpromisoak egikaritzeko. Emakundetik bultzatutako politikak planifikatu, lehenetsi eta irisgarri egiteko baliabide bat izateaz gain, aldi berean politika horiek eraginkorrak izateko eta eraldatzaile izaera izateko behar den konpromiso politikoa ere adierazten du.

Plana, 2018an onartua, webgunean kontsultatu daiteke, eta Emakundek 2018-2021 aldi osorako ezarrita duen plangintza estrategikoa biltzen du; gainera, berariaz zehazten du 2018-2019 eta 2020-2021 aldietarako jardueren bi urteko plangintza, dagozkion ebaluazioekin batera.

1.5. Euskadin soldata-arrakala murrizteko Estrategia eta Ekintza Plana

Euskadin soldata-arrakala murrizteko strategiaren eta 2019-2020 urteetarako Ekintza Plan Operatiboaren esparruan (Lehendakaritzak eta Emakundek zuzendu dute plan hori eta sailen arteko koordinazioaren bidez garatu da, 2019ko urtarrilaren 29an eraturako sailen arteko mahai baten bitartez, zeinetara Emakundeko zuzendaria bertaratu baitzen), honako jarduketa hauek egin dira 2020an:

– Emakundeko zuzendariak Gizarte Elkarrizketako Mahaiak 2020an zehar deitutako hiru bileretan parte hartu du, eta Genero Berdintasunari buruzko Lantaldeak maiztaren 5ean egindako bilera zuzendu du. Sindikatuetak, enpresa-erakundeetako eta Eusko Jaurlaritzaren sailetak ordezkariekin. Taldearen helburua honako hauei heltzea da: kontziliazio erantzukidea, enpresetako berdintasun-planak, genero-berdintasuna negoziazio kolektiboan,

eta Euskadin soldata-arrakala murrizteko estrategia eta ekintza-plan operatiboa garatzea eta horri jarraipena egitea.

– Emakundeko zuzendariak Aukera Berdintasunerako I. Biltzar Nazionalean parte hartu du. Ildo horretatik, Emakundeko zuzendariak Agentes de Igualdad y Empresa biltzarrean –martxoaren 4an Bartzelonako World Trade Centerren egindakoan– parte hartu zuen; zehazki, soldata-arrakalari buruzko mahai-ingurua zuzendu zuen, non Emakundek berdintasunari eta enpresari buruzko euskal berdintasun-politiken eta esperientziaren berri eman baitzuen.



Berdintasunerako Biltzar Nazionalea Bartzelonan.

– EAEko pentsioetako genero-arrakalari buruzko txostena zabaldu da; zuzenbideko doktore eta EHUko Lan eta Gizarte Segurantzako irakasle Olga Fotinopoulou Basurkok zuzendu eta koordinatu du plan hori, Edurne López Rubia eta Elixabete Errandonea Ulazia eta eta Alberto Riesco Sanz irakasleek osatutako talde batekin batera. Azterketa horrek pentsioen egungo egoera deskribatzen digu, betiere generoaren ikuspuntutik. Pentsioetako genero-arrakala emakumeek hala bizitzan zehar nola karrera profesionalean izan ohi dituzten askotariko desparekotasunen isla da, bereziki arrakalari dagokionez.



Gizarte Elkarrizketarako Mahaia.

- BAI SAREA berdintasunerako erakundeen sareak abenduan egindako batzarrean honako hauek aurkeztu ziren: produktu berriak, soldata-arrakalaren analisiaren FAQak, soldata-arrakalaren mapa bisuala eta enpresetan existitzen den soldata-arrakalari heltzeko gardentasun-baliabidea. Produktu horiek – sarearen barruan eratuak– soldata-arrakalari buruzko lantaldeak diseinatu ditu. Gainera, azaroaren 20an Emakundek antolatutako eta enpresei zuzendutako jardunaldi batean parte hartu dute soldata-arrakalaren taldeko ordezkariak, eta soldata-arrakala aztertzeko jarraibideak –Sareak landutakoak– aurkeztu dituzte.
- Gizonduz eta Nahiko programak indartzeko lan egiten jarraitu dugu, herritarrak –bereziki, gizonak– sentsibilizatzeko etxeko lanetan eta pertsonen zaintzan izan beharreko erantzunkidetasunaren inguruan. Gizonek hazkuntzan izan beharreko partaidetzan sakontzeko eta erantzunkidetasunean eragina duten balioen aldaketa adin txikietan lantzeko jardun dugu. Halaber, Gizonduz Programaren esparruan, «Vigilancia + *hagamos lo que nos corresponde*» deritzon kanpaina abiarazi da, gizonek etxeko lanetan eta zaintzan gehiago har dezaten parte.
- Emakumeen eta gizonen soldata-berdintasunaren aldeko egunaren bezperan, prentsa-ohar bat zabaldu da, gogorarazteko soldata-diskriminazioa dela gaur egun emakumeen eta gizonen arteko desberdintasuna eragiten eta betikotzen ari den faktoreetako bat.
- Soldata-arrakalan eragina duten faktore guztiak hobeki ezagutzeko lagungarriak diren ikerketa sektorialak egitea sustatu da. Zehazki, EAEko pentsioei eta soldata-arrakalari buruzko txosten bat landu da.
- Enpresetan soldata-arrakala murrizteko lan egiten jarraitu dugu, eta horretarako, enpresetan emakumeen eta gizonen berdintasunerako planak orokortzeko lanak babestu ditugu. Horretarako, dirulaguntza-lerroaren zuzkidura ekonomikoa handitu da.





Emakundeko Zuzendaritza Kontseilua.

1.6. Emakundeko Zuzendaritza Kontseilua

2020an ohiko bi bilkura egin ditu Emakundeko Zuzendaritza Kontseiluak. Lehenengoa urtarrilaren 23an egin zuen, eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legearen bigarren aldaketa egiteko Legearen aurreproiektua Gobernu Kontseilura eramatea onartu zen aho batez, hark onetsi zezan.

Bigarrena abenduaren 18an egin zuen, XII. legegaldiaren hasiera zela-eta; bilera horretan Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak, Eusko Legebiltzarrak eta Aholku Batzordeak izendatutako kideak berritu ziren. Bilkura horren helburu nagusia araudiak eskatutako dokumentuak onartzea izan zen:

- EAEko emakumeen eta gizonen egoerari buruzko Zifren Txostena, 2019.
- EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Plana Botere Publikoen Alorrean Gauzatzeari buruzko Jarduera Txostena – 2018.
- Emakundek 2019an gauzaturako jarduketaren memoria.

Bileran, halaber, Kontseiluari jakinarazi zitzaion azaroan Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legearen bigarren aldaketa egiteko Legearen proiektua Legebiltzarrera bidaliko zela.

1.7. Eusko Legebiltzarrarekiko harremana

Emakunderen eta Eusko Legebiltzarraren arteko harremana etengabea eta arina da. 2020an, Gizarte Politika eta Gazteria Batzordeak eta Ogasun eta Aurrekontu Batzordeak eskatutako bi agerralditan parte hartu du Emakundeko zuzendariak. Orobat, sei hilean behin legez besteko 3 proposamenen eta 2 mozioren betetze-mailaren berri ere eman du Emakundeko zuzendariak. Era berean, 15 galderari erantzun zaie idatziz eta honako txosten hauek igorri dira Eusko Legebiltzarrak horien berri izan dezan:

- Emakunde - Emakumearen Euskal Erakundearen 2019ko Jarduera Memoria.
- Berdintasunaren eta bazterketa-ezaren printzipioen arloko 2019ko Jarduera Memoria.
- Begira publizitate eta komunikazio ez-sexista erabiltzeko Aholkularitza Batzordearen 2019ko Jarduera Memoria.
- «EAEko emakumeen eta gizonen egoerari buruzko Zifrak, 2019» izeneko txostena.
- EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Plana botere publikoen alorrean gauzatzeari buruzko jarduketa-memoria, 2018.



Eusko Legebiltzarreko Kultura, Euskara, Gazteria eta Kirol Batzordeak 2014an onartutako legez besteko proposamenari erantzuteko (proposamen horren bidez, Emakunderi eskatzen zaio Euskadiko Gazteriaren Kontseiluari aholkularitza eta laguntza eskaintzeko modu egonkor eta iraunkorrean, berdintasunari dagokionez), Emakundek laguntza teknikoa eta ekonomikoa ematen du dirulaguntza izendun baten bidez Gazteriaren Euskal Kontseiluarekin, erakunde horrek genero-ikuspegia txerta dezan nola bere funtzionamenduan hala jardura guztietan. Halaber, Gazteriaren Euskal Kontseiluarekin elkarlanean aritu gara Beldur Barik kanpaina abiarazteko.

1.8. Berrikuntza publikoa eta kudeaketa aurreratua

Kudeaketa Publiko Aurreraturako Emakunderen 2020-2021 Plan Estrategikoaren esparruan, 2020ko kudeaketa-plana egin eta gauzatu eta 2019koa ebaluatu da. Hori guztia, Eusko Jaurlaritzaren Kudeaketa Publiko Aurreratuaren Eredua (EJKPAE) ezartzera bideratutako Aurrerabide proiektuaren esparruan.

Bestalde, Q-eparearen osoko saioetan eta lansaiioetan parte hartu dugu (kudeaketako bikaintasunarekin konprometitu dauden EAEko erakundearen sarea da).

1.9. Euskararen erabilera normalizatzea

Euskararen Erabilera Normalizatzeko Emakunderen 2018-2022 Plan Estrategikoaren esparruan, 2020ko urteko kudeaketa-plana egin eta gauzatu eta 2019koa ebaluatu da. 2020an egindako jardueren artean, honako hauek nabarmendu behar dira: Euskara Batzordeak Planaren komunikazioan eta jarraipenean egindako lana, Emakunderen berezko hizkuntza-irizpideak eguneratzea eta euskara ezagutu aplikatzeko eta arloen arabera egindako lana, «Euskunde» dibulgaziozko buletina eratzea, langileentzako sentsibilizazio- eta prestakuntza-ekintzak, etab. Horrez gainera, euskal administrazio publikoetako berdintasun-teknikarien artean euskararen erabilera sustatzeko proiektuan parte hartzen jarraitu du Emakundek, bai eta Euskaraldiak eta AEK-k sustatutako jardueretan ere. Dokumentazioa euskarara itzultzeko eta euskaraz sortzeko prozedura batean ere egin da lan, herritarrei bermatzeko emango zaien zerbitzua euskarazkoa izan daitekeela oso-osorik. Halaber, hizkuntza-normalizazioko teknikariekin koordinatzeko bileretan ere parte hartu dugu, baita hizkuntza politika arloan Herri Aginteen arteko Koordinaziorako Batzordearen (HAKOBA) talde teknikoaren bileretan ere.



Eusko Legebiltzarreko Gizarte Politika eta Gazteria Batzordea.



Azkenik, nabarmentzekoa da Emakundek BIKAIN Euskararen Kalitate Ziurtagiria eskatu eta goi-mailako kalifikazioa lortu duela.

Ebaluazio-taldeak alderdi bat azpimarratu du batez ere: 2014az geroztik hona euskararen presentzia eta erabilera areagotzeko lan handia egiten ari dela eta, halaber, gai hori oso hein handian dagoela txertatuta erakundearen kudeaketan. Txostenean, hobetzeko arloez gain, honako indargune hauek ere aipatzen dira:

- Euskararen normalizazioa erakundearen lan-ildo estrategikoetako bat da.
- Baliabide ugari bideratzen dira hizkuntza-normalizaziora.
- Hizkuntza-eskakizunen betetze-maila handia da (% 89).
- Langileek asko hartzen dute parte euskararen erabilera sustatzeko ekimenetan.



BIKAIN euskararen kalitate ziurtagiria.





2. **Administrazio Publikoen** eremuan egindako jarduketak



Administrazio publikoekin egindako lana Emakunderen jarduketa-esparru handietako bat da. Esparru horretan politika publikoen sustapen, koordinazio, aholkularitza eta jarraipeneko ekintzak egiten ditu, gizarteak politika horietan parte har dezala sustatzeaz gain. Atal hau botere publikoen bidez egindako ekintzei buruzkoa da, batez ere administrazioko hiru mailetan, eta estatuko, Europako eta nazioarteko erakundeekiko harremanen esparruan. Sustapeneko eta koordinazioko egitura organikoaren esparruan egiten diren ekintzak bereizten ditu, alde biko beste harreman-testuinguru batzuetan egiten direnak, eta prestakuntza eta aholkularitza, laguntza-dokumentuak egitea, txostenak egitea eta abar helburu dituzten beste batzuk.

2.1. Sustapena, aholkularitza eta erakundearen koordinazioa

2.1.1. Administrazio autonomikoa

Emakundek Sailarteko Batzordearen bitartez betetzen du, nagusiki, Eusko Jaurlaritzaren barnean berdintasun-politikak sustatzeko eta aholkatzeko eginkizuna.

Emakumeen eta gizonen berdintasunerako Sailarteko Batzordea

Batzorde hori, 4/2005 Legean jasoa eta gaur egun abenduaren 26ko 261/2006 Dekretuaren bidez arautua, Eusko Jaurlaritzak emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan gauzatzen dituen jarduketak koordinatzeko organoa da. Emakunderi atxikita dago; batzordeko presidentea Eusko Jaurlaritzako lehendakaria da, eta batzordeko presidenteordea Emakundeko zuzendaria. Erakundeko Idazkaritza Nagusiak idazkaritza-funtzioak betetzen ditu eta kide gisa parte hartzen dute Lehendakariak idazkari nagusiak eta Eusko Jaurlaritzako sail bakoitzeko sailburu batek.

Pandemiaren eta legegaldi-aldaketaren eraginez, Sailarteko Batzordea ez zen bildu 2020an.

Alabaina, Batzordearen esparruan «COVID-19ari aurre eginez eta etorkizuna eraikiz berdintasunetik. Gomendioak eta Eusko Jaurlaritzak hartutako neurriak» dokumentua eman zen.

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Sailarteko Batzordea arautzen duen dekretuan xedatzen denari jarraikiz, Batzorde honek Sailarteko Talde Tekniko

bat du, eta horren helburua da Batzordeko kideei laguntza eta aholkularitza tekniko eskaintzea, bere esku uzten diren gaiak aztertuz, txostenak osatuz eta proposamenak eginez.

Emakundek sustatzen eta koordinatzen du Sailarteko Talde Teknikoa eta, sailen arteko bileren bidez nahiz alde biko bileren bidez, sail bakoitzari dagozkion sektoreko politikak aztertzen laguntzen dio; horretarako, berdintasuna bultzatzen duten helburuak identifikatzen ditu, jarduera-estrategiak zehazten ditu, eta sail bakoitzaren eta Jaurlaritza osoaren berdintasun-politiken plangintzarako, garapenerako eta jarraipenerako baliabideak proposatzen ditu.

Aholkularitza eta informazioko lanean, Jaurlaritzako sailek, erakunde autonomoek eta erakunde publikoek egindako kontsultei erantzun zaie. Halaber, proiektu zehatzak gauzatzeko lankidetzak eman da; batez ere, materialak berrikusteko eta prestatzeko edota genero-ikuspegia barne hartzen duten sektore-ekintzak abian jartzeko. Gainera, berdintasunerako politiken plangintza, kudeaketa eta ebaluazioa hobetzeko proposamenak egin dira.



2020an, Sailarteko Talde Teknikoa behin baino ez da bildu honako gai hauei heltzeko:

- 4/2005 Legearen bigarren aldaketa egiteko legearen aurreproiektuaren izapidetzearen egoera.
- Kontratazio publikoaren arloko prestakuntza-proposamen bat –Berdintasun-unitateei zuzendua– aztertzea.
- Lan-ildoak adostea, etorkizunera begira.

Gainera, emakumeen aurkako indarkeria ezabatzeko Sailarteko Talde Teknikoak Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Plana Estatu Itunera, Istanbulgo Hitzarmenera eta Euskadi Basque Country Agendara egokitzeko lan bat egin zuen 2019an. Lan horren ondorioz, egoerari buruzko txosten bat eman zen, eta dokumentu operatibo bat hartu zen horren barnean, 4 baliabide juridiko horien ezarpen-mailari jarraipena egite aldera. 2020an, taldeak telematikoki lan egiten jarraitu du pandemia dela-eta; gainera, dokumentu operatiboaren sei hilean behingo eta urteko eguneratzeak egin ditu (2020ko ekaina eta 2020ko abendua, hurrenez hurren), aipatutako baliabide juridikoak batera abiarazteko.

Emakumeen eta gizonen berdintasunerako sailen planak

4/2005 Legearen 15.4 artikulua ezartzen duenez, Emakundek Eusko Jaurlaritzako sailen berdintasun-planari buruzko txostenak egin behar ditu, eta txosten horietan, planen edukiak Gobernuaren plan orokorreko esku-hartze eta jarraibideetara egokitzen diren adierazi.

Ildo horretan, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako I. Planari (2020-2023) buruzko txostena egin da 2020an.

Beste sail eta entitate batzuekin egindako proiektuak eta lankidetzako ildoak

Sailarteko Batzordearen esparruan eta Sailarteko Talde Teknikoan egiten den lanaz gain, Emakundek alde biko lana egiten du zenbait sailetan eta horiekin lotuta dauden edo lotura duten erakundeekin eta entitateekin, funtsean proiektu eta zeregin zehatzetan dituzten eskariak kontuan hartuta. 2020. urtean, elkarlan eta lankidetzak hauek nabarmendu behar dira:

- Lehendakaritzarekin, Euskadin soldata-arrakala murrizteko Estrategia eta Ekintza Plan Operatiboaren diseinuan eta ezarpenean jardun dugu lankidetzan. Halaber, Bizikidetzak eta Giza Eskubideen 2017-2020ko Planaren Sailarteko Batzordean ere parte hartu dugu, bai eta Berpiztu Programaren Sailarteko Batzordean ere. «II. ARDATZA: Enplegua eta horren kalitatea hobetzea».
- GOGORA Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuarekin, Zuzendaritza Kontseiluaren parte izanik.
- Ekonomia eta Ogasun Sailarekin elkarlanean jarraitu dugu EAEko aurrekontu orokorretan genero-ikuspegia sartzeko prozesuan.
- Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailarekin, Aurrerabide proiektuaren esparruan, Eusko Jaurlaritzaren Kudeaketa Publiko Aurreratuaren Eredua (EJKPAE) Ezartzeko Gidaliburu Praktikoan lagundu da. Baliabide horrek antolaketa-unitate batzuetan arrakastatsuak izan diren eta beste unitate batzuentzat arian-arian kudeaketa publiko aurreratu bat ezartzeko erreferentziatzakoak diren ezarpenen adibide praktikoak eskaintzen ditu.





Euskal Estatistika Kontseilua.

- Enpleguko eta Gizarte Politiketako Sailarekin, Gizarte Zerbitzuen Euskal Kontseiluan, Euskal Autonomia Erkidegoko herritar etorkinen Integrazio eta Partaidetza Sozialerako Foroan eta Enplegu Foroan hartu dugu parte, baita Ijito Herriaren Erabateko Sustapenerako eta Partaidetza Sozialerako Kontseiluan eta Familiaren Euskal Kontseiluan ere.
- Halaber, Haur eta nerabeenganako indarkeria EAEn txostena egiten lagundu da. Diagnostikoa, erronkak eta orientabideak. Gainera, emakumeen aurkako indarkeria matxista baloratzeko baliabide bat prestatzen ari da Emakunde, Eudelekin eta foru-aldundietako gizarte-zerbitzu espezializatuarekin koordinatuta.
- Gazteria Zuzendaritzarekin, Gazte Planaren Sailarteko Batzordean parte hartu du Emakundek Gazte Planaren garapenean eta jarraipenean, eta gazteei zuzendutako ekintza espezifikoak txertatu dira. Gainera, Beldur Barik programa ezartzeko aholkularitzaren eta babesaren bidez laguntzen du Emakundek.
- Hezkuntza Sailarekin Euskal hezkuntza-sistemaren hezkidetzako II. Planaren jarraipenean ez ezik, berdintasun eta tratu ona lortzeko bidean (Jarraipen Batzordean eta Batzorde Teknikoan parte hartuz) ere hartu dugu parte; horrez gain, interesa agertu duten ikastetxeei Nahiko eta Beldur Barik⁴ programak ezartzeko materialak, prestakuntza, aholkularitza eta laguntza eman diegu doan. 2020an, Emakundek ikastetxeetako Beldur Barik 2014-2017 esperientzia pilotuaren ondoriozko materiala Bigarren Hezkuntzako irakasle eta ikasleentzako fitxa estandarren formatura egokitu du, betiere Hezkuntza Sailaren argibideei jarraikiz, 2021ean eskuragarri egon daitezen Hezkuntza Sailaren webgunean.
 - Kultura eta Hizkuntza Politika Sailarekin, Euskararen Erabilera Normalizatzeko Eusko Jaurlaritzaren 2018-2022 Planaren esparruan, lankidetzan aritu gara Hizkuntza eta Generoari buruzko Batzordean parte hartuz eta «*Feminismoa eta Euskara bidelagun*» online topaketa-zikloa antolatuz.
- Eustat Euskal Estatistika Erakundearekin elkarlanean jarraitzen dugu, Euskal Estatistika Kontseiluan parte hartuz.
 - Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailarekin batera, Innobasque Berrikuntzaren Euskal Agentziaren bazkide diren erakundeen batzar nagusian parte hartu da, bai eta Emakume Nekazarien Estatutuaren Jarraipen Batzordean ere.



euskara eta feminismoa bidelagun

Hizkuntza, generoa eta beste menderakuntza batzuk

Azaroak 17, 10:00 - 11:30 mahai-ingurua



Tarana Karim
Palmira Dual Jiménez



Leocadia Bueriberi



Aurkezlea:
Amelia Barquín



Antolatzaileak



Hizkuntza eta Generoa batzordea

“Feminismoa eta Euskara bidelagun” online topaketa-zikloa.

- Osasun Sailarekin elkarlanean jarraitu dugu Zuzendaritza Batzordearen eta osasun batzorde teknikoaren bitartez politika guztietan, Emakundek arlo horretan egindako jarduera guztien txostena aurkeztuz; horrez gain, erakundearteko mahaian ere parte hartzen dugu, nahasmendu mentalak dituzten pertsonen estigmari heltzeko.
- Osakidetzarekin, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Planaren esparruan berdintasuna sustatzeko aholkuak ematen jarraitu dugu.
- Lan eta Enplegu Sailarekin, Lan Ikuskaritzaren eta Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen arteko hitzarmenaren esparruan, koordinazio telematiko eta informazioa trukatzeko jarduerak egin dira.

Osalanekin, Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundearen eta Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen hitzarmenaren barruan, informazioa trukatzeko jarduketak egin dira, bai eta koordinazio- eta lan-bilera bat ere. Orobat, laneko osasunari buruzko jardunaldi bat prestatzen ere lagundu dugu, non Lan Ikuskaritzak ere parte hartu duen.

Genero-inpaktuaren aurretiko ebaluazioa

Generoaren eraginaren alde aurretiko ebaluazioa genero-ikuspegia politika publikoetan sartzeko oinarritzko neurrietako bat da, eta hala geratzen da ezarrita Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legean. Zortzigarren xedapen gehigarria betetzeko, Gobernu Kontseiluak aipatutako ebaluazioa egiteko gidalerroak onetsi zituen 2012ko abuztuan.

Emakundek 2007an sailek generoaren araberrako inpaktuaren txostenak ongi egin zituztela egiaztatzeko eta hobekuntzak proposatzeko hasi zuen lanari dagokionez, Emakundek 54 espediente jaso eta aztertu ditu 2020an. Hurrengo taulan, urteetan zehar izandako bilakaera ikus daiteke.



2006-2020 DATUAK

	Legeak	Dekretuak	Aginduak	Ebazpenak	Guztira
2006	0	1	0	0	1
2007	17	57	25	1	100
2008	19	75	81	4	179
2009	4	66	45	5	120
2010	14	55	51	8	128
2011	27	71	47	4	149
2012	6	106	39	3	154
2013	6	43	18	1	68
2014	12	43	29	1	85
2015	12	62	36	2	112
2016	2	32	34	2	70
2017	4	39	25	1	69
2018	7	37	23	0	67
2019	12	43	14	0	69
2020	3	26	24	1	54
Guztira	145	757	490	33	1.425

Bestalde, 2020an, Gestión de Impacto en Función del Género (generoaren araberako inpaktuaren kudeaketa) aplikazioan jasotako informazioa migratu eta egokitu da. Aplikazio horren bidez, Jaurlaritzako langileen eskura jartzen da sailek eta EAEko Administrazio Orokorraren mendeko edo hari lotutako organismo eta erakundeek egindako inpaktu-txostenak kontsultatzeko aukera.

Halaber, 5 gidaliburu sektorial eguneratu dira. Material sektorial horiek generoaren araberako inpaktuari buruzko txostenak egiteko Gidaliburuaren osagarri gisa balio dute, eta emakumeen eta gizonen arteko egoera-desparekotasunaren analisia testuinguruan kokatzen dute, orientazio eta eredu gisa zehaztutako eremu sektorial batean.

2.1.2. Foru- eta toki-administrazioa

Emakumeen eta gizonen berdintasunerako Erakundearteko Batzordea

Batzordea, 4/2005 Legean jasoa eta gaur egun urtarrilaren 16ko 5/2007 Dekretuaren bidez arautua, administrazio autonomikoak, foralak eta tokikoak emakumeen eta gizonen berdintasunaren alorrean gauzatzen dituzten jarduerak koordinatzeko organoa da. Emakunderi atxikita, zuzendaria da buru eta euskal administrazio publikoko hiru mailetako ordezkariak zati beretan eratzen dute.

Pandemiaren eta legealdi-aldaketaren eraginez, Erakundearteko Batzordea ez zen bildu 2020an. Alabaina, «COVID-19ari aurre eginez eta etorkizuna eraikiz berdintasunetik. Gomendioak eta Eusko Jaurlaritzak hartutako neurriak» dokumentua helarazi zen.

Erakundearteko Batzordea arautzen duen Dekretuan xedatuta dagoenaren arabera, Batzorde honek Erakundearteko Talde Tekniko bat du eta hark aztertu, txostenak osatu eta proposamenak egiten ditu, eta Batzordeko kideei laguntza eta aholkularitza teknikoa ematen dizkie, autonomia-erkidegoko, foru-aldundietako eta udalerrietako administrazioek emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan garatzen dituzten politika eta programak koordinatzeko zereginen. 2020an bizi izandako ezohiko egoeraren ondorioz, talde hori ez da bildu urte horretan.

Erakundearteko Batzorde horren esparruan, Emakundek Lantalde Tekniko (LT) hauek bultzatu eta koordinatzen ditu:



- **Sektore publikoko hitzarmen, dirulaguntza eta kontratuetan berdintasun-neurriak aplikatzeko irizpideak eta baliabideak.** 2020an, talde hori ez da bildu.
- **Berdintasun-politiketan gutxieneko kalitate estandarrak ezartzea eta erakunde arteko koordinazioa hobetzea.** 2018an kalitate estandarrak definitzeko lan egin ondoren, 2019an erakundearteko koordinazioa hobetzeari lotutako lanari ekin zaio, bereziki toki-esparruko esku-hartzeetan, eta 2020an prozesu horretan lan egiten jarraitu da eta bilera birtual bat gauzatu da. Helburua autonomia-mailan lan-esparru komun bat sortzeko oinarriak ezartzea da, non erakunde bakoitzak toki-eremuan bultzatzen dituen ekimenak guztien artean zehaztutako eta adostutako esparru bati erantzuteko jomuga izango duten.
- **Berdintasuneko Jardunbide Egokien Bankua.** Talde hori ez da bildu 2020an.
- **Berdintasuna inbertsioko eta egiturako funts europarretan.** 2020-2023 denboraldirako lan-plan bat diseinatu eta onartu da, Europako Egitura eta Inbertsio Funtsen EAEko programa operatiboetan genero-ikuspegia txertatzen aurrera egiteko. Horrez gainera, programa operatiboan egoerari jarraipena egin zaio, emakumeen eta gizonen berdintasunerako printzipio horizontala betetzeari dagokionez (indarguneak eta hobetzeko alderdiak) eta, bereziki, programa horien komunikazio-estrategiei gagozkiela. Horretarako, 2020an bi aldiz bildu da taldea.

Bestalde, EAEko udalentsako eta aldundientzako informazio- eta aholkularitza-lana burutu da.

Sailarteko Batzordearen esparruan egindako lanaz gainera, Emakundek udalentsako beste lankidetzak- eta laguntza-ildo batzuk ditu.

Berdinsarea - Berdintasunaren aldeko eta emakumeenganako indarkeriaren aurkako Euskadiko udalen sarea

Sare hori Emakunderen bultzadarekin sortu zen eta 2005ean EUDELEkin (Euskadiko Udalen Elkarte) sinatutako lankidetzak-hitzarmen baten bidez jarri zen martxan. Horren bidez, Emakundek konpromisoa hartu zuen sarea dinamizatuko duen berdintasunerako eragile bat kontratatuzko finantzaketan parte hartzeko, eta EUDELEk konpromisoa hartu zuen hori sortu eta kudeatzeko, orobat hori garatzeko beharrezkoak diren jarduerak gauzatzeko.

Sare horrek honako organo hauen bidez funtzionatzen du:

- Jarraipen Batzordea, EUDELEko eta Emakundeko ordezkariak osatzen dutena. Honako ardura hauek ditu: hitzarmenaren jarraipena egitea, Sarearen jardura gidatzen duten gidalerroak finkatzea eta haren lehentasunak azaltzea lan-plana egitean, Jaurlearitza eta gainerako erakundeen politikekiko koherentea izan dadin eta koordinatuta egon dadin.
- Osoko Bilkura Sarearen gobernu-organoa da, eta sarea osatzen duten udal guztietako tokiko hautetsiek osatzen dute.
- Batzorde Teknikoa udalerrri bakoitzak izendatutako berdintasuneko teknikariek osatzen dute, baita Sarearen idazkaritza teknikoaz arduratzen diren teknikariek eta Emakundeko teknikari batek ere.

Hauek izan dira, zehazki, 2020an egin ditugun ekintzak:

- Berdinsarea garatu eta finantzatzeko EUDELEkin sinatutako hitzarmena berri du.
- Jarraipen Batzordearen bileretan parte hartu da eta hartutako akordioak jarraipena egin du.
- Berdinsarearen batzorde teknikoetan parte hartu du eta onartutako akordioak jarraipena egin du.



- Talde eta proiektu hauetan parte hartzea:
 - Prestakuntza politiko-teknikoa, Virginia Woolf Basqueskola.
 - Berdintruke.
 - Berdinlan:
 - Indarkeriari udal-erantzuna emateko batzordea. Emakumeen aurkako Indarkeriaren Batzordea: «*Indarkeria matxistaren biktimak erreparatzeko tokiko ekintzak. Udalerrietan erreparazio-printzipioa aplikatzeko gida didaktikoa*» dokumentua eratzeko atazan parte hartzea; COVID-19ak eragindako konfinamenduan indarkeria matxistari arreta emateko baliabideen sistemari eta eraginari buruzko informazioa; gazteen artean indarkeria sexista prebenitzeko estrategia eta toki-eremuko Beldur Barik programa hobetzeko proposamenak eta gogoetak egitea.
 - «*Normaltasun berrian*» genero-ikuspegia transbertsal bihurtzeari buruzko batzordea.
 - 5.000 biztanletik beherako udalerrietan berdintasuna sustatzeko batzordea.
 - Prestakuntza politiko-teknikoa berdintasunaren aldeko tokiko hautetsiekin.

Populazio txikiagoko udalerrii zuzendutako laguntza, berdintasun politikak garatzeko

Berdinsareak lan handia egin du berdintasun-politikak sustatzeko, batez ere jende ugari bizi den udalerrietan. Hala ere, udalerrri txiki gehienentzat zaila da sare horretan sartzea, sartzeko betekizunengatik –besteak beste, langileak kontratatu, berdintasun-planak egin eta berdintasun-politiketarako aurrekontuei buruzkoak–.

Horregatik, 2011tik Emakunde eta EUDELeK, lankidetzeta-hitzarmenak sinatuz, lan egin dute populazio txikiagoko udalek emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko politikak jar ditzaten martxan, Berdinsarearekin koherentea izango

den strategiari jarraikiz, eta epe ertainean sare horretara sartu ahal izateko beharrezko baldintzak sortzen ahaleginduta.

Udalerrii, kuadrillei eta mankomunitateei dirulaguntzak emakumeen eta gizonen berdintasunerako diagnostikoak eta/edo planak egin eta ebalua ditzaten

Toki-erakundeetarako dirulaguntzen deialdia, emakumeek eta gizonen udalerrietan duten egoerari buruzko diagnostikoak egin eta tokiko planak egin eta ebalua ditzaten, betiere Jaurlaritzak onartutako EAerako esparru-planaren jarraibide orokorre jarraikiz, udalerrii dagokienez Emakunderi dagokion laguntza teknikoa ematea ahalbidetzen dion beste baliabide bat da. 2020an, 720.000 euroko zenbatekoa izan duen deialdi bat egin da, eta 36 proiektu diruz lagundu dira, 33 udalerriri eta 2 mankomunitate, kuadrilla eta/edo elkarteri dagozkienak⁵.

Berdintasun-planak, txostenak eta aholkularitza

4/2005 Legearen 15.4 artikulua ezartzen duenez, Emakunde foru- zein toki-administrazioen berdintasun-planari buruzko txostenak egin behar ditu, eta txosten horietan, planen edukiak Gobernuaren plan orokorreko esku-hartze eta jarraibideetara egokitzen diren adierazi.

Txosten horiek egiteko, Emakunde hainbat irizpide hartzen ditu kontuan, planak Legearen edukien eta Jaurlaritzak onetsitako plan orokorreko helburu eta estrategien arabera diseina daitezzen: erakunde bakoitzaren berezko beharrezko diagnostikoan oinarrituta egotea, alderdi teknikoan, alderdi ekonomikoan eta denbora aldetik plan bideragarriak izatea, eta diagnostikoan definitutako errealitate sozialaren aldaketari egokitutako estrategia, helburu eta ekintzak definitzea.

Aurten, 12 berdintasun-planen txostenak egin dira, tokiko erakundeena. Plan horiek ondorengo taulan azalduko dira.



Lehen Plane	Bigarren Planak	Hirugarren Planak	Laugarren Planak	Bosgarren Planak
Laukizerako Emakume eta Gizonen Berdintasunerako I. Plana (2020-2024)	Debako emakumeen eta gizonen berdintasunerako II. Plana (2020-2023)	Andoaingo emakumeen eta gizonen berdintasunerako III. Plana (2020-2023)	Donostiako Udaleko Emakume eta Gizonen Berdintasunerako IV. Plana (2020-2024).	Billboko Udala. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Plana (2020-2023)
	Lemoako II Berdintasun Plana (2020-2023)	Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako II. Foru Plana Gipuzkoan (2020-2023)	Elgoibarko Udala. Emakume eta Gizonen Berdintasunerako IV. Plana (2020-2023)	Eibarko Udala. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako IV. Plana (2021-2024).
		Soraluzeko emakumeen eta gizonen berdintasunerako III. Plana (2020-2023).	Mungia emakume eta gizonen berdintasunerako IV. Plana (2020-2024)	Portugaleteko Emakume eta Gizonen Berdintasunerako V. Plana (2020-2024)

Foru- eta toki-administrazioen esparruan **beste lankidetzak hauek** dira aipatzekoak:

- Bizkaiko Foru Aldundiaren Indarkeria Matxistaren Behatokia parte hartzea;
- Hiru foru aldundiekin lankidetzak hitzarmenak sinatzea Beldur Barik programa kudeatu eta kofinantzatzeko.
- parte hartzeko prozesu bat garatzea, hiri-antolamenduko plan orokorren genero-inpaktuaren aurretiko ebaluazioak egitera berariaz bideratutako gida bat prestatzeko. Emakunde prozesu hori sustatu eta koordinatu du, EUDELekin lankidetzan, eta bertan parte hartzen dute Eusko Jaurlaritzaren barnean berdintasunean eta/edo hirigintzan eta lurralde-plangintzan eskumena duten arloek, hiru foru-aldundiek eta zenbait toki-erakundeak.



Beldur Barik programa.



2.1.3. Beste erakunde eta antolakunde batzuekiko koordinazioa eta lankidetzak

Alde batetik, administrazio autonomikoarekin duen harremanaz gainera, eta, bestetik, toki- eta foru-administrazioekin duenaz aparte, Emakundek gure gizartea osatzen duten beste erakunde eta instituzio batzuekin koordinazioan jarduteko eta parte hartzeko egitura egonkorrak ditu.

Etxeko tratu txarrak eta sexu indarkeria jasaten dituzten emakumeei harrera hobea egiteko erakundeen arteko II. Akordioaren Jarraipen Batzordea

2009ko otsailaren 3an, etxeko tratu txarrak eta sexu-indarkeria jasaten dituzten emakumeei harrera hobea egiteko Erakundearteko II. Akordioa sinatu zen, eta Jarraipen Batzordea eratzeko erabakia hartu zen bertan. Akordioaren arabera, honako hauek dira, besteak beste, Batzordearen eginkizunak: Akordioan adierazitako neurriak eta jarraibideak behar bezala aplikatzen direla bermatzea, jarduera bateratuak proposatzea, erakundearteko koordinazioa hobetzeko proposamenak egitea, eta jarduketa-protokoloaren edukiak sor daitezkeen egoera berrietara egokitzeko proposamenak egitea. Etxeko tratu txarrak eta sexu-erasoak jasaten dituzten biktimei laguntza ematen dieten erakundeak hobeto koordinatzea du xede, biktimei babes osoa eman ahal izateko arlo sanitario, polizial, judizial eta sozialean. Horretarako, kasu hauetan profesionalak erabili behar dituzten jarraibide eta irizpideak ezarri dira, bai profesional bakoitzak bere esparruan egin behar duen lanerako, bai erakundeen arteko harremanetarako. Batzordeko kide dira, Emakundeko Zuzendaritzaz gain, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusia, Euskal Autonomia Erkidegoko Fiskaltza Nagusia, Eusko Jaurlaritzako sail batzuk (Osasuna, Segurtasuna, Lana eta Justizia, Enplegu eta Gizarte Politika, Ingurumena, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza eta Hezkuntza Saila), EAEko hiru aldundiak, EUDEL, Arartekoa, Legelarien Euskal Kontseilua eta Euskadiko Sendagileen Kontseilua.

Batzordeak etengabeko laguntza-talde teknikoa du, baita beste lantalde batzuk ere, aldi baterako direnak, Batzordeak edo Erakunde arteko Talde Teknikoak berak hautemandako beharren arabera gaiak aztertzen dituztenak. Gaur egun, Informazio Sistemaren Taldea da martxan dagoen lantalde tematikoa.

Martxoaren 16an, alerta-egoera dekretatu ondoren, indarkeria matxistaren biktimei diren emakumeei arreta hobea emateko erakundeen arteko II. Akordioaren Jarraipen Batzordea aktibatu zen, inoiz ez bezalako egoera horretan koordinatutako jarduna indartzeko eta eremu horretan erantzun egokia emateko. Emakundek etengabeko harremana izan zuen, II. Akordioaren Batzordeko erakundeen artean emakumeen aurkako indarkeriaren arretaren arloan zuzeneko eskumena duten guztiekin –hots, Eusko Jaurlaritzaren sailekin, foru-aldundiekin eta udalekin–, zerbitzuak eta baliabideak COVID-19aren pandemiak sortutako egoeraren arabera egokitzeko. Gainera, Erakundearteko Talde Teknikoa aktibatu zen, eta etengabe egon zen ETT hori koordinatuta Emakunderekin alarma-egoera osoan.

Alerta-garaian martxan dauden baliabideen mapa bat eratzeari ekin zaio; Jaurlaritzak, foru-aldundiek eta udalek kudeatzen dituzte baliabide horiek. Bermatu da biktimari arreta emateko telefono-zenbakia (900840111) eguneko 24 orduz aktibo dagoela, Segurtasun Sailak indarkeriaren biktimei diren emakumeak babesteko eskaintzen dituen zerbitzuek («bortxa» telefonoa, genero-indarkerian espezializatutako ertzainak, segurtasun pribatua, etab.) martxan daudela, eta genero-indarkeriaren biktimei diren emakumeei ordainketa bakarreko prestazio ekonomikoa emateko egiten ari diren eskabideen ebazpenek jarraitzen dutela, bai eta emakume biktimei egoitzetan berehalako harrera emateko zerbitzuek eta aholkularitza juridikoko eta arreta psikologikorako zerbitzuek ere.



Denbora-tarte horretan, koordinazioa hobetzeaz gain, 24 orduko telefonoari eta 112 telefono-zenbakiari buruzko informazio gehiago jarri da, hainbat hizkuntzako materiala argitaratu da, eta, desgaitasunaren arloan diharduten euskal erakundeak biltzen dituen EDEKA euskal koordinakundearekin lankidetzan, materialak egokitu dira, konfinamendu-garaian beharbada indarkeria matxista jasaten ari diren emakume desgaituengana ahalik eta modurik eraginkorrean iristeko.

Apirilaren 16an, Batzordea bildu egin zen baliabide eta zerbitzuei jarraipena egiteko, aldez aurretik arlo horretako baliabide eta zerbitzuei jarraipena egiteko beste hiru txanda gauzatu ondoren. Bileraren jomuga nagusia egoerari buruzko datu eguneratuak lortzea, partekatzea eta, horrenbestez, identifikatutako beharrei erantzun egokia ematea izan da.

Erakundearteko Talde Teknikoa

II. Akordioaren Jarraipen Batzordearen esparruan, Erakundearteko Talde Teknikoaren –ETTaren– lana bultzatu eta dinamizatu da. Erakundearteko Talde Teknikoak lan-saio bat egin du 2020an.

Emakundek lan-bilera baterako deia egin zion otsailaren 26an EATT taldeari, eta bertan aurkeztu zion taldeari «Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legearen bigarren aldaketa egiteko lege-aurreproiektuaren» azken zirriborroa. Ildo horretan, hauek azaldu ziren: egindako izapideak; hasieran aldaketarako zer planteamendu egin ziren; lege-aurreproiektua zein iturritatik sortu den; parte hartzeko prozesua; egindako zirriborroak; eta, besteak beste, erakunde eta herritarrekin eztabaidatu ondoren lege-proiektuan sartzeko proposatutako aldaketak eta hobekuntzak.

Bestalde, gai-zerrendako beste puntu batean, bileraren aurretik eta bilera egin bitartean Erakundearteko Talde Teknikoak egindako ekarpenak jasotzen dira, «Genero-indarkeriaren biktimentzako zigor-prozesuari buruzko informazio-



II Akordioaren Jarraipen batzordea.

gidaliburua» delakoari dagokionez. Dokumentu hori Gipuzkoako Probintzia Auzitegiko Batzorde Judizialeko lantaldeak sortu zuen.

Azkenik, genero-indarkeriaren biktima-kondizioa judizioz kanpo egiaztatzeari dagokionez orain arte egindako jarduketan berri ere eman du Emakundek, bai eta aurreko urteko Ebaluazio eta Jarraipen Txostenaren berri ere. Ildo horretan, taldeari adierazten zaio aholkularitza-enpresa bat kontratatu dela, informazioa biltzeko eraginkorragoa izango den eredu berri baterako proposamena egin dezan.



Gainera, arestian adierazi dugun bezala, II. Akordioaren Jarraipen Batzordea osatzen duten politikariei dagokienez, Emakundek koordinazio teknikoari eutsi zion denbora guztian, telematikoki, ETTa osatzen duten erakundeen artean emakumeen aurkako indarkeriaren arretaren arloan zuzeneko eskumena duten guztiak –hots, Eusko Jaurlaritzaren sailekin, foru-aldundiekin eta udalekin–, zerbitzuak eta baliabideak COVID-19aren pandemiak sortutako salbuespen-egoeraren eta premia berrien arabera egokitzeko.

Informazio Sistemen Taldea

2020an, COVID-19ak sortutako salbuespenezko egoerak indarkeria matxistaren biktima diren emakume eta adingabeekin gertatzen ari zenari buruzko datu eguneratuak izan beharra ekarri du berekin. Ezohiko datu-bilketa hori sistematizatzeko, aparteko bi bilera egin dira Informazio Sistemen Taldearen esparruan: 2020ko maiatzaren 28an Eusko Jaurlaritzaren hainbat sailekin; eta 2020ko ekainaren 1ean, berriz, foru-aldundiekin eta Eudelekin.

Gainera, indarkeriaren biktima diren emakumeei eta adingabeei ematen zaien arretari buruzko datuak biltzeko aplikazioa berriz diseinatzeko atazari ere ekin diogu, erakunde bakoitzera egokitzeko ez ezik, adiskidetsu, erabilgarri eta intuitiboagoa izan dadin lortzeko ere bai. Aplikazioko galdetegia berrikusteari eta egiten diren hobekuntzak egiaztatzeari begira, 2020an Informazio Sistemen Taldearen bi bilera egin dira, urriaren 28an eta abenduaren 15ean. Elkarlan horrekin jarraituko dugu 2021ean ere.

Gainera, Informazio Sistemen Taldearen 2020ko urriaren 28ko bileran, 2019ko datuei buruz jasotako informazioa ere eman zen. «*Emakumeen aurkako indarkeriari buruzko datuak eta analisisa. EAE, 2019*» txostena aurkeztu da, batez ere Segurtasun Sailak emandako datuei buruz. Era berean, biktima diren emakume eta adingabeen arretari buruzko datu-bilketari buruzko azterketa-txostena aurkeztu da: «*Emakumeen kontrako indarkeriari emandako erantzuna.*

EAE, 2019». Txosten horiek Emakunderen webgunean daude eskuragarri, edonork kontsultatu ditzan.

Datuak bildu eta aztertzeke lan horren barruan, berariazko hainbat aurkezpen laburpen prestatu dira: «*Eusko Jaurlaritzak emakumeen kontrako indarkeriari emandako erantzuna. EAE, 2019*», «*Foru-aldundiek emakumeen kontrako indarkeriari emandako erantzuna. EAE, 2019*» eta «*Eusko Jaurlaritzak eta foru-aldundiek Emakumeen kontrako indarkeriari emandako erantzuna. EAE, 2019*».

Emakumeen aurkako indarkeriarekin lotutako erakundearteko beste lankidetzaren prozesu batzuk

Emakumeen aurkako indarkeriaren arloan jarduteko tokiko protokoloak.-

Emakundek koordinazio-lanak egiten ditu emakumeen aurkako indarkeriaren arloko jarduketa-protokoloak homogeneizatzeko. Hala, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legearen 62. artikulua bultzatu du, hortxe ezartzen baita protokolo horiek garatu beharra. Ildo horretan, erakundeak protokoloei buruzko txostenak egiten ditu eta aholkularitza eskaintzen du, toki-administrazioek erreferentziarako esparru bat izan dezaten, baldin eta toki-administrazioek hala eskatzen badute. Halaber, 2020an Zallari aholkularitza eman zaio eta polizia-arloarekiko koordinazioa hobetzeko esku-hartzeak ere egin dira, Erreterria, Oartzun eta Oñatiko jarduketa-protokoloei dagokienez.

Diagnostikoa egitea eta EAEko emakumeen etxeetan adineko emakumeekin

esku hartzeko proposamen bat elkarlanean diseinatzeari. 2020an, UPV/EHUko Balioen Filosofia eta Gizarte Antropologia Sailaren zerbitzuak kontratatu dira, batetik, egoeraren diagnostikoa egiteko, eta bestetik, esku hartzeko proposamen bat elkarlanean diseinatzeko. Proposamen horren helburua adineko emakumeen aurkako indarkeria matxistak prebenitzea da azken batean, betiere EAEko emakumeen etxeekin elkarlanean.



Horretarako, lantalde bat sortu da emakumeen etxe bat duten udalerrietako berdintasun-teknikariekin eta horien erreferente diren beste profesional batzuekin. Emakumeen etxeek metatutako ezagutza izan da ataza horren oinarria, bai eta hainbat udalerrian gauzatu diren beste proiektu batzuetan –hala nola Emakumeen Harrien proiektuan– lortutako esperientzia ere, elkarrekin esku hartzeko proposamen bat diseinatzeko, etorkizunari begira.

Proiektu honen esparruan, azken urteotan egindako jardueraren diagnostiko bat egin da; horretarako, kontuan hartu da udalerrietan adineko emakumeekin zerikusia duten jarduketa-ildoei buruzko informazio guztia, eta, halaber,

ahalik eta datu gehien bildu dira adineko emakumeek udalerriri horietan duten asoziazionismoari eta parte-hartze sozial eta politiko espezifikoari buruz.

Gainera, egindako txostenak adineko emakumeen gogoetak eta ikuspuntuak jasotzen ditu, halako moldez non emakume horiek diagnostiko-prozesuan parte hartu duten, udalerriri bakoitzeko profilak, errealitateak eta egoerak ez ezik, udalerriri bakoitzaren idiosinkrasia ere kontuan hartuta.

Genero-indarkeriako egoerak egiaztatze prozedurak.- 2019an Emakundek gidatutako gogoeta-prozesuaren barruan, genero-indarkeriaren egoerak egiaztatze judizios kanpoko prozeduraren inguruan (gaikuntza-titulua), zeina 2018ko abuztuaren 8ko Errege Lege Dekretutik (Genero Indarkeriaren aurkako Estatu Ituna garatzeko premiazko neurriei buruzko Errege Lege Dekretua) eratorria baita eta biktima-kondizioa egiaztatze gaitutako erakunde gehiago ezartzen baititu, betiere lan- eta gizarte-eskubideen eta gizarteratze- eta laneratze-programen eta gizarte-zerbitzuen esparruan; hala, gizarte-zerbitzuen, zerbitzu espezializatuen eta harrera-zerbitzuen txostenak baliozkotu egiten dira; 2020an Gogoeta Prozesuaren bigarren zatia sustatu da, Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritzak, Lanbidek eta foru-aldundietako gizarte-zerbitzu espezializatuk parte hartzen dutela. Lehenengo bileran, emakumeen aurkako indarkeria matxista baloratzeko baliabide bat egiteko atazari ekitea erabaki zen, irizpideak adosteko eta foru-aldundiei erakunde egiaztatzaile gisa egin dezaketen zeregina errazteko. Zeregin hori Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritzarekin elkarlanean eta foru-aldundiekin eta Eudelekin koordinatuta gauzatzen ari gara.

Orobat, Genero Indarkeriaren aurkako Gobernu Ordezkaritzak kudeatzen duen Gaikuntza Titulurako eta biktima izaera egiaztatze Talde Teknikoan ere parte hartzen ari gara. Ekarpen guztiak Eusko Jaurlaritzako Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritzarekin adostuta egiten dira, hura baita, behin-behinean, EAEko organo egiaztatzailea.



Baliabideen eta zerbitzuen mapa.



Emakumeen aurkako indarkeria matxista baloratzeko baliabidea lantzea.-

Emakumeen indarkeria-egoerak baloratzeko irizpide komunak finkatzeko baliabide bat behar dela eztabaidatu izan du, askotan, II. Akordioaren Erakundearteko Talde Teknikoak. Biktima-kondizioa egiaztatzen gaikuntza-tituluari buruz 2020an egindako gogoeta-prozesuan berriro aipatu da premia hori; hori dela-eta, Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritzarekin lankidetzan, eta foru-aldundietako gizarte-zerbitzu espezializatuekin koordinatuta, baliabide hori taxutzeko lanari ekin zaio. Horretarako, gaian aditua den pertsona baten zerbitzua kontratatu da eta hainbat bilera egin dira Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritzarekin. Bilera horietan, hasitako bidea gogorra dela eta baliabide komun hori eratzen jarraitzeko konpromiso adostuari eutsi zaiola nabarmendu da.

Emakumeen Mutilazio Genitala (EMG).-

2013an hasi den eta harrezkerotik lantzen jarraitu den beste lan-prozesu bat emakumeen genitalen mutilazioa (EGM) orokorrean aztertu eta lantzeari buruzkoa izan da, erauzketa hori emakumeen aurkako indarkeria-mota bat den aldetik.

2014. urtean EAEn egindako Emakumeen Mutilazio Genitalari buruzko diagnostikoaren ostean, 2015ean etorkinekin lan egiten duten gobernuz kanpoko erakundeetako eta Euskal Administrazio Publikoko langileei bideratutako prestakuntza abiarazi zen. Horretarako, 2 lantalde jarri ziren martxan, EMGari aurrea hartzeko osasun- eta hezkuntza-arloko gomendioak prestatu ahal izateko. Talde horietan aldi berean lan egin dute Eusko Jaurlaritzaren Osasun Saileko eta Osakidetzako profesionalek osatutako osasun-taldeak eta hezkuntza-taldeak, alde batetik, eta Berritzegune Nagusiko zein Hezkuntzako Ikuskatzailtzako profesionalek osatutakoak bestetik. Emakundek koordinatzen ditu bi taldeok.

2020an, Emakundek Osakidetzarekin eta Eusko Jaurlaritzako Osasun eta Hezkuntza Sailekin Emakumeen Mutilazio Genitalari buruz duten lankidetzaren esparruan hartutako konpromisoen jarraipena egin da. Gainera, urtero bezala, NBEk Emakumeen Mutilazio Genitalaren aurkako informazio- eta sentsibilizazio-

ekintzak areagotzeko eskaera egin du, horren Nazioarteko Eguna dela eta. Eta Emakundek eskaera horren alde egin zuen, laugarren urtez jarraian.

Sexu-esplotaziora bideratutako emakumeen eta neskatuen salerosketa.-

Gizakien salerosketari heltzeari dagokionez, Askabide erakundeari emandako dirulaguntza izendun bat izapidetu eta kudeatu da, sexu-esplotaziorako gizakien salerosketaren biktimak diren emakumeei eta horien seme-alabei arreta integrala emateko baliabidea kudeatzeko eta biktima horiei arreta anbulatorioa emateko. Gainera, Congregación Oblatas erakundearentzako dirulaguntza izenduna izapidetu eta kudeatu da, «Ireki Leihoak» proiektua garatzeko; proiektu horren helburua da prostituzioaren errealitateari sistematikoki behatzea, sexu-esplotaziorako gizakien salerosketaren biktima izan daitezkeen emakumeak detektatzeko, identifikatzeko eta artatzeko.

Sexu-esplotaziorako gizakien salerosketaren biktima diren emakumeentzako eta horien seme-alabentzako egoitza-baliabide berri bat abiarazi dugu. Emakundek gaitu zuen etxebizitza hori 2019an, eta 6 lagunentzako edukiera du. Ertzaintzak berriaz horretarako emandako txosten batean proposatutako segurtasun-neurriak biltzen ditu.

Gainera, UPV/EHUko Giza Eskubideen eta Botere Publikoen UNESCO Katedra kontratatu da, sexu-esplotaziorako emakumeen eta nesken salerosketaren arloko aholkularitza teknikoko lanak egiteko, sexu-esplotaziorako gizakien salerosketaren mahaiak planteatutako zereginetan funtsatuta. Emakundek bultzatu eta koordinatzen du mahai hori, eta bertan parte hartzen dute Segurtasun Sailak, Enpleguko eta Gizarte Politiketako Saileko Familia Politikako eta Aniztasuneko Zuzendaritzak, Eusko Jaurlaritzaren Lana eta Justizia Saileko Justizia Zuzendaritzak, hiru foru-aldundietako Adingabeen zerbitzuak, eta Espainiako Gobernuak Euskadin duen Ordezkaritzako, Segurtasun Indar eta Kidegoetako eta hamaika GKEtako ordezkariak: Cáritas, CEAR Euskadi,



Munduko Medikuak, HIESaren aurkako Batzordea, Gurutze Gorria, Gizarterako, Aukera, Save the Children, Askabide, Oblatas eta Accem.

Ekainaren 18an, lan-saio bat egin genuen, telematikoki, Sexu Esplotazioa helburu duen Emakume eta Nesken Salerosketaren kontrako Mahaiaren esparruan esku hartzen duten GKEekin, eta salerosketa-kasuak hautemateko adierazle komun batzuk finkatu genituen.

Azaroaren 30ean, bigarren bilera bat egin zen aurrez aurre, GKEek adierazle komunen diseinuarekin lotuta egindako lana bateratzeko. Bilera horretan, Segurtasun Indar eta Kidegoetako ordezkariak ere parte hartu zuten (izan ere, ordezkari horiek jada egin zizkieten, hori baino lehen, ekarpenak horretarako prestatutako hainbat dokumenturi).

Gainera, sexu-esplotaziorako gizakien salerosketaren mahaiaren 2020ko ekintza-planaren barruan, abenduaren 16an, Emakundek online prestakuntza-jardunaldi bat antolatu zuen bi hizlarirekin. Lehena Alberto Daunis Rodríguez doktorea izan zen, Malagako Unibertsitateko irakaslea, zeinak «*Gizakien salerosketaren delitua: hurbilketa bat auzitegiko jardunbidetik*» mintzaldia aurkezteko esku hartu baitzuen; bigarrena, berriz, Andrea Giménez-Salinas Framis doktorea izan zen, Comillasko Pontifize Unibertsitateko irakaslea, zeinak «*Gizakien salerosketaren biktimak ikusaraztea eta horien babesa hobetzea: arrisku-adierazleak eta -faktoreak*» hitzaldiarekin esku hartu zuena.

Segurtasun Sailarekiko lankidetzak .- Emakunde ordezkaturik dago Euskal Autonomia Erkidegoko poliziaren arteko koordinazio-protokoloak berrikusteko proiektuaren indarkeria matxistaren aurkako jokabidea hobetzeko ezarritakoaren jarraipen-taldean. Zehazki, 2020ko abenduaren 3an (osteguna) egindako hasierako bileran, proiektuaren edukiak eta epeak azaldu ziren, bai eta polizia-koordinazioaren berrikuspenaren aurretiko azterketako gaiak ere.

Emakundeko Aholku Batzordea - Emakumeen elkarten partaidetza eta elkarrizketarako organoa

Oso onartuta dago emakumeen herritartasunak politika publikoak diseinatzeko lanean parte hartu behar duelako ideia, eta balio demokratiko eta zibiko lotuta dago premia hori. Zehazki, emakumeen elkarrizketa soziopolitikoak emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna eratzeko estrategia nagusitzat hartzen da, eta emakumeek parte hartzea eta eragina izatea, gainera, ahalduz baliabidetzat jotzen da.

Emakunderen lehentasunezko jarduketa-ardatzetako bat emakumeen elkarte-sarea sustatzea eta indartzea da, esku-hartze publikoaren esparru guztietan berdintasun-politikak diseinatzeko eta erabakiak hartzeko solaskidetzak sustatze aldera.

Aholku Batzordea 1993an jarri zen martxan esperientzia pilotu gisa, eta 1998ko ekainaren 9an arautu zen. Horrenbestez, aspalditik egiten du lan eta, beraz, lan-esperientzia luzea du. Horren ondorioz, EAEko berdintasun-politikak garatzeko jazoera historiko garrantzitsuetan parte hartu du, hala nola EAEko emakumeen eta gizonen berdintasunerako planetan, 4/2005 Legea eguneratzeko aurreproiektuan eta EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legearen bost urtean behingo bigarren ebaluazioaren diseinuan eta garapenean. Batzorde horretan lurralde osoko elkarteak daude ordezkaturik, batzordea arautzen duen dekretuan ezarritako bideak erabiliz.

Lan horren ondorioz, elkarteekin harremana izateko eta trukeko mekanismoak sortuz joan dira, eta elkarte horien arteko trukea eta lan koordinatua ere sustatu eta babestu da. Horren guztiaren emaitza da Emakunderen Aholku Batzordea; hari esker, gainera, gero eta handiagoa da berdintasun handiagoa izango duen gizartea lortzeko sentsibilizazioaren eta gizarteko aldaketan arloan elkarteek egiten duten ekarpena.



2020an, COVID-19ari erantzuteko ezarritako neurrien ondoriozko egoerara egokitu behar izan dira komunikazio-arloko ekintzak. Krisi global, sanitario eta ekonomikoko testuinguru horrek eragina izan du Emakunderen Aholku Batzordearen lanean, eta bete jarduera eten ez badu ere, kontraste-metodologia bestela bideratu behar izan du, arreta saio birtualetan eta informazio-truke telematikoan jarrita. Aholku Batzordeko elkarten ordezkariak alde aurreko plangintza batean funtsatuta lan egitea, barneko lan-prozedurak sistematizatuta eduki izana, gune horrek baliabide informatiko propioak izatea eta lurralde bakoitzeko aholku-azpibatzerde bakoitzak hainbat urtean zehar prestakuntza etengabe jaso izana funtsezkoak izan dira emakumeek politika publikoetan elkarrizketan aritzeko eta inpaktua izateko duten gune horrek bere jarduera eten ez dezan eta horiek inpaktua izan dezaten (ezinbesteko elementua bizi izan dugun garai gogorrean).

Elkarrizketa eta komunikaziorako organoaren ohiko eginkizunekin jarraitzeaz gain, Emakunderen osoko bilkuran aurkeztu dituzte komunikazioaren alorreko urteko lan-programaren emaitza eta 2021erako lan-lehentasanak. Parte hartzen duten esparruetan ordezkari berriak izateko ezinbestean sartu behar diren aldaketak proposatu dituzte, eta aurretiko analisi baten ondoren, proposamen-ekarpen egokiak egin dituzte.

Aurreko urtean bezala, Aholku Batzordeko elkarten ordezkariak –bai eta haren ere– ahalduntze indibidual eta kolektiboa babesteko garatutako programei jarraipena eman zaie, elkarrizketarako gune gisa:

- Emakunderen Aholku Batzordearen esparruan sortutako elkarrizketa-egituretan emakumeen elkarten komunikazioa errazteko programa.
- Politika publikoen, parte-hartzearen, emakumeen herritartasunaren eta elkarrizketa soziopolitikoaren arloko prestakuntza-programa.

Komunikazio-baliabide eta -euskariak garatu dira, berriak eta/edo existitzen direnak oinarri hartuta, batzordea interes-talde desberdinekin harremanetan egotea errazte aldera.

Urteko lan-programan adostutako ekintzen abiaraztea eta lan-baliabide berrien garapena izan dira euskariak.

Lurraldeen arteko lan-saioak egin dira, aztertzeko elkarten egungo egoera nolakoa den eta parte-hartzaileen elkarten eguneratzea eta elkarte horiek lantaldeetan izan beharreko presentzia nola susta daitezkeen. Euskadiko emakumeen presentziari, parte-hartzeari eta asoziazionismoari buruzko ibilbide historikoa ere analizatu da, lurralde guztietan.

Aholkularitza-azpibatzerde bakoitzean ordezkariak parte-hartzea sendotzeko ekimenak abiarazi dira, elkarrizketarako gune horren xedea eta hartako parte-hartzearen eraginak ezagututa eta onartuta.

Lurralde arteko Batzordearen lana areagotu da eta bileren izaera eraginkorra hobetu da. Eduki eta masa kritiko handiagoa sortu da hiru lurraldeetako ordezkariak artean, eta eragin soziopolitikoak, gainera, areagotu egin da. 18 lan-bilera egin dira guztira.

Halaber, Emakundek Euskal Administrazio Publikoaren maila guztietan sortutako sektore-partaidetzako organoetan Aholku Batzordearen ordezkari bat egoteko aukera bultzatzen eta ahalbidetzen jarraitu du, bai eta elkarte guztiekiko komunikazioa –udalen, eskualdeen eta lurraldeen mailakoa– babesten ere.

Emakundek emakumeen parte-hartze soziopolitikorako dinamika eta estrategia berriak bilatu, eratu eta finkatzeko lan egiten du. Esparru horretan elkarteekin lan egiten dugu lurralde-eremuko eta lurraldeen arteko bileren bitartez. Bilera horien helburuak sareak sendotzea, modu egonkorrean koordinatzea eta denon intereseko ekimen eta proiektuak adostea dira.



Emakunderen Aholku Batzordeko elkarteen ordezkariak lurralde bakoitzean parte har dezatela bultzatzeari esker (elkarlaneko kultura sortze aldera), elkarte-sarearen bitartez emakumeen parte-hartze aktiboa sustatzeko ekintzak zehaztu eta etorkizunean konpromisoak bilatu ahal izango dira. 2020an berrogeita hamar bilera baino gehiago egin dira hiru lurraldeetan, eta lurraldeen arteko bilerak ere egin dira.

2020ko programazioan planifikatutako ekintzez gain, beste hainbat ekintza ere gauzatu dituzte; adibidez, dokumentu bat prestatu dute, non modu arrazoituan adierazi baitute beharrezkoa dela ikuspegi intersektionala kontuan hartzea Eusko Jaurlaritzak COVID-19ari aurre egiteko hedatutako neurrietan, eta neurri horiek lantzen jarraituko dutela, ikuspegi hori Aholku Batzordearen elkarrizketan txerta dadin. Halaber, Emakunderi jakinarazi diote, proposamen-dokumentu baten bidez, konfinamendu- eta deskonfinamendu-garaiaren inpaktuarekin lotuta 2020rako emakumeen elkarreentzako dirulaguntzen deialdian aurkeztutako proiektuen garapenean eragiten ari diren errealitate edo kasuak.



Aholku batzordea.

Halaber, lankidetzan jarraitu dute «kontu-emate soziala eta generoa Euskal Autonomia Erkidegoan: Emakunderen eta emakumeen elkarteen arteko interakzio-esperientzien ebaluazioa» ikerlanean, Deustuko Unibertsitateko Etika Aplikatuko Zentroko doktoregaiaren doktorego-tesian.

Begira/Publizitate eta komunikazioari erabilera ez-sexista emateko aholku-batzordea

Begira 1998an sortu zen, Emakundera atxikitako batzorde gisa; hasierako helburua publizitatearen esparruan emakumeen eta gizonen artean berdintasun erreal eta eraginkorra lortzea zen, eta, ondoren, 4/2005 Legean ezarritakoa betez, baita komunikabideen esparruan ere. Batzorde berria ekainaren 11ko 360/2013 Dekretuan arautu zen.

Batzordearen helburuak hauek dira, batik bat: komunikabideetan pertsonen –sexu batekoak edo bestekoak izateagatik– giza duintasun txikiagoa edo handiagoa dutela eta objektu sexual soilak direla adierazi ez dadin bermatzea, eta emakumeen aurkako indarkeria justifikatu, hutsaldu edo horretara bultzatzen duen edukirik egon ez dadin bermatzea. Bestalde, bi sexuen irudi berdintzalea, orekatua, plurala eta edertasun-kanonik eta sexu-estereotiporik gabea sustatu behar dute, eta emakumeek bizitzaren eremuetan betetzen dituzten funtzioetan duten partaidetza aktiboa berma dezatela, bereziki kontuan hartuta haur eta gazteentzako programazioaren edukiak.

Begirak herritarrek edota erakundeek egindako keak jasoko ditu eta prozedura zuzentzaileak proposatuko ditu edo, behar izanez gero, dagokien organoetara bideratu, Emakume eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeak jasotzen duenaren arabera zehapen-prozedurak erabakitzeko.

Emakumearen Euskal Erakundeari atxikitako Batzorde honetako kideak hauek izango dira: Emakunde bera, Idazkari Nagusia buru dela, Eusko Jaurlaritzako Publizitate Instituzionalari buruzko Sailarteko Batzordeko, Lehendakaritza, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura, eta Ekonomiaren Garapen eta




Azpiegitura Saitetako, EITBko, Euskal Herriko Unibertsitateko, Emakunderen Aholku Batzordeko eta EKA kontsumitzaileen elkarteko ordezkariak. Horiekin batera publizitatean eta komunikazioan adituak diren pertsonak osatzen dute batzordea.

2020an, Begira Batzordea aurrez aurre bildu zen otsailaren 18an.

2020an, onlineko 3 jardunaldi proposatu dira, aurreko urtean bezala, emakumeen aurkako indarkeria ardatz hartuta; zehazki, gai hauetan zentratu dira jardunaldi horiek: «Emakumeen aurkako sexu-indarkeriako kasuetako informazio-tratamendua» eta «Emakumeen aurkako indarkeria sinbolikoa publizitatean eta genero-ikuspegia sorkuntza-prozesuan»; gogoeta errazteko eta baliabideak antolatzeke egin dira jardunaldiak.

Bestalde, kexen eta aholkularitza-kontsulten 14 espediente izapidetu dira 2020an. Jasotako kexetan oinarrituta, BEGIRAK 6 gomendio igorri dizkie zenbait erakunderi, kode deontologikoan eta bi dekalogoetan jasotako printzipioetan oinarrituta. 6 eskabide bideratu dira –gehienak Madrilgo Irudiaren Behatokira– eta beste bat, gainera, Institut Català de les Dones erakundera. Euskal komunikabide batean argitaratutako albiste bati buruzko aholkularitza-eskaera bati erantzun zaio. Azkenik, nabarmendu behar da publizitatea bertan behera uzteko errekerimendu bat bidali dela.

Kexa motaren arabera, (publizitatea edo komunikazioa), 8 publizitatearen arloko kexak dira, eta beste 6, berriz, komunikazioaren arlokoak. Publizitatearen esparruan, kexa gehienak, ustez genero-estereotipoak eta -rolak indartzen zituzten iragarkien gainean egin dira, hala nola gazte, argal eta gorputz perfektuko izatearekin lotzen den edertasun-eredu bakar bat islatu eta emakumeen gorputza gauza bihurtzen duten iragarkien gainean. Komunikazioaren esparruan, batez ere emakumeen aurkako indarkeria banalizatzen duten eta emakumeen irudi estereotipatua helarazten duten kexak dira.



Jardunaldia Begira.



Beste lankidetzak batzuk: unibertsitateak, berdintasun-erakundeak, nazioarteko instituzioak

Unibertsitateak: Aurreko urteetan bezala, Euskal Herriko Unibertsitateak antolatutako «Emakumeen eta Gizonen Berdintasunaren gaineko Masterrean» laguntzen jarraitu du Emakundek. Master horren helburua profesionalak gaitzea

da, berdintasun-eragile gisa lan egin dezaten, bai administrazioan bertan, bai erakunde eta entitate pribatuetan. Lankidetzak hainbat ekintzaren bidez zehaztu da: dirulaguntza izendun bat emanez, irakaskuntzan parte hartuz eta Emakunden praktikak egitea faboratuz, hain zuzen.

EHUrekin 2018an sinatutako lankidetzako hitzarmenaren esparruan, prestakuntza-ekintzak eta berdintasun-politikak elkarrekin sustatzeko, emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko online ikastaroaren 4 edizio egin ditugu, eta beste 4 gizonari, berdintasunari eta maskulinitateari buruzko ikastaroari dagokionez.

EHUko Zuzenbide Fakultateko Justizia Sozialaren aldeko Klinika Juridikoarekin elkarlanean jarraitu dugu, kasu errealak, ezagutzak eta esperientziak eskainiz, ikasleek prestakuntza praktikoa eskura dezaten diskriminazioaren aurkako legediari eta berdintasun-eskubideak defendatzeari dagokienez.

UPV/EHUren Zuzenbide Fakultatearekin elkarlanean jarraitzen dugu, Zuzenbideko gradua egiten ari diren ikasleek derrigorrezko praktikak egin ditzaten Emakunde-Emakumearen Institutuak gauzatzen duen herritarren berdintasun-eskubideen defentsaren arloan.

Halaber, Deustuko Unibertsitateko Emakumeen kontrako indarkerian esku hartzeko unibertsitate master ofizialaren garapenean ere jardun dugu lankidetzan, 2020-2021 ikasturtean, ikasleentzako 14 bekaren bidez eta prestakuntza-saio bat emanez.

Unibertsitate horrekin beste modu batean ere lankidetzan aritu da Emakunde: 2020. urterako Emakume Teknologoaren Ada Byron Sariaren deialdia eta beste jarduera osagarri batzuk babestu ditu. Ekimen horren helburuak hauek dira: teknologiaren arloko emakume profesionalen lana jendaurrean aitortzea eta erakustea. Izan ere, lan hori ez du behar adina ezagutzen gizarteak, oro har, nahiz eta ekarpen handiak egin emakumeek hainbat eremutan. Helburua da saria jasotzen duten emakumeak gaur egungo neska gazteentzat eredu eta pizgarria izan daitezela eta bokazio teknologikoak areagotu daitezela.

JARDUNALDI BIRTUALA JORNADA VIRTUAL

Sexu-indarkeria: non jarri arreta?

Norma Vazquez Garciaekin

Psikologian Lizentziaduna eta Sortzen enpresako zuzendaria

Violencia sexual: ¿dónde poner el foco?

Con Norma Vázquez García:

Licenciada en Psicología y Directora de Sortzen.



Ekainak 18 de junio
10:30-12:10


Jardunaldia Begira.



Estatuko berdintasun-erakundeak: Emakundeko zuzendari Izaskun Landaidak Berdintasunerako Konferentzia Sektorialaren bilera parte hartu zuen. Konferentzia horretan Espainiako Gobernuak dago ordezkaturik, Berdintasuneko ministroaren eta haren taldearen bidez, bai eta Estatuko autonomia-erkidego guztiak ere, eta, besteak beste, EAEko erakundeek berdintasunaren eta emakumeen aurkako indarkeriaren arloan egiten dituzten jarduketan berri emateko antolatzen da, martxoaren 31ko 12/2020 Errege Lege Dekretuaren (genero-indarkeriaren eta beste sexu-indarkeria mota batzuen biktimei babesaren eta arretaren alorrean zuzendutako premiazko neurriei buruzko Errege Lege Dekretua) eta COVID-19aren osasun-krisia dela-eta genero-indarkeriaren Kontingentzia Planaren esparruan.

Lanaren esparruan, autonomia erkidegoetako lantaldeak deitutako saioan parte hartzen jarraitu dugu. Saio hori genero-indarkeriaren biktime-kondizioa egiaztatze sistemak abian jartzea ahalbidetzen duten oinarriko prozedurei buruzkoa izan zen, 1/2004 Lege Organikoaren II. Tituluko II. Kapituluan aitortutako eskubideen ondorioetarako, eta Genero Indarkeriaren aurkako Estatu Itunaren 63. neurrian aurreikusitakoa garatzeko. Hain zuzen ere, genero-indarkeriaren aurkako Estatu Ituna garatzeko premiazko neurriei buruzko 2018ko abuztuaren 8ko Errege Lege Dekretuak (Estatu Itunaren 63. proposamenean jasota) beharrezko neurriei ekin zien biktime izaera egiaztatze gaitutako organismoak gehiago izateko, lan eta gizarte eskubideen esparruan, Gizarte Segurantzako eskubideen esparruan eta laneratze eta gizarteratze programetan, baliagarritasuna emanez gizarte-zerbitzuen, zerbitzu espezializatuen eta harrera-zerbitzuen txostenei; bidenabar, izaera egiaztatze aldez aurretik salaketa, babesteko agindu edo epai zigortzailea edukitzea baldintza bertan behera utzi da.

Arazo horri dagokionez, Emakundek Berdintasunerako Batzorde Sektorialean parte hartu du 2020an –Berdintasunerako Estatu Idazkaritzak egin zuen horretarako deialdia– (Berdintasunerako Konferentzia Sektorialeko lan- eta



Berdintasunerako Sektorereko Konferentzia.

babes-organo orokorra), bai eta gaikuntza-tituluar buruzko lantaldean ere. Alor politikoan hainbat bilera egin dira, eta autonomia-erkidego guztietako ordezkariak parte hartu dute bilera horietan.

Horrez gainera, irailaren 24an, Berdintasun, Justizia eta Gizarte politiketako sailburu Beatriz Artolazabal eta Emakundeko zuzendari Izaskun Landaida bertaratu egin ziren Berdintasuneko ministroak honako hauetarako deitutako bilerara: zainketei eta erantzunkidetasunari buruzko jardunbide egokiak lantzeko eta genero-indarkeriaren aurkako neurrien balantzea eta eguneratzea egitea; gizakien salerosketaren eta sexu-esplotazioaren aurkako Kontingentzia Plana prest jartzea; Bizitzeko Gutxieneko Diru Sarrera; gizakien salerosketan eta sexu-esplotazioaren biktimezako bitoki-alternatibetarako neurriak; eta ziurtatze-irizpideak.



Emakumeen aurkako indarkeriarekin lotutako erakundearteko beste lankidetzazko prozesu batzuk

Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiarekiko elkarlana.- Emakunde genero-indarkeriaren koordinaziorako Gipuzkoako probintzia-batzordeetan (uztailaren 22a eta abenduaren 2a) izan da, bai eta Batzorde horren mendeko teknikari-taldeak 2020ko urtarrilaren 29an, otsailaren 26an, martxoaren 27an, maiatzaren 27an, ekainaren 24an, irailaren 30ean eta urriaren 28an egindako bileretan ere (Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak antolatu zituen bilera horiek).

Lankidetzazko horren ondorioz, Emakundek «Genero-biktimen zigor-prozesuan dituzten eskubide nagusiak» liburuxka eta «Genero-indarkeriaren biktimentzako zigor-prozesuari buruzko informazio-gidaliburua» eratzeko prozesuan ere parte hartu du. Bi gidaliburuak Gipuzkoako Probintzia Auzitegiko Batzordearen talde

teknikoak egin eta bultzatu ditu. Esparru horretan, Emakundek bere gain hartu du liburuxka eta gidaliburua argitaratzea (dagozkien bertsioetan). Bi dokumentuen helburua honako hau da: azaltzea, biktimentzako ulertaraz den hizkera baliatuta eta formatu grafikoan, zein diren prozesu judizialean dituzten eskubide nagusiak eta zer fase izan ohi dituen prozedurak epaitegi edo auzitegietan. Gure autonomia-erkidegoko bi hizkuntza ofizialetan –euskaraz eta gaztelaniaz–, eta maiztasun handinez erabiltzen diren hizkuntza ez-ofizialetan –arabieraz, frantsesez, ingelesez, italieraz eta errumanieraz– sortu dira material horiek, bai eta erraz irakurtzeko moduan ere, adimen- edo garapen-desgaitasuna duten pertsonentzat. Argitalpen horiek Donostian aurkeztu ziren 2020ko abenduaren 2an, eta Izaskun Landaida Emakundeko zuzendaria izan zen aurkezpen horretan, bai eta bertan esku hartu ere.



Gipuzkoako Genero Indarkeriaren Batzorde Probintziala.



Informazio-liburuxka.



Gainera, genero-indarkeriaren koordinaziorako Bizkaiko Probintzia Batzordean ere parte hartu du Emakundek. Batzorde hori 2020ko otsailaren 17an egin zen, Bilbon, Bizkaiko Probintzia Auzitegiak antolatuta.

Estatu-itunaren esparruan onartutako genero-indarkeriaren aurkako estrategiei buruz senatuak emandako txosteneko akordioei jarraipena eta ebaluazioa egiteko Batzorde Berezia.- Beatriz Artolazabal Berdintasun, Justizia eta Gizarte politiketako sailburuak eta Izaskun Landaida Emakundeko zuzendariak agerraldia egin dute Senatuan, Genero-indarkeriaren aurkako Estatu Itunaren jarraipenaren berri emateko. Agerraldian jakinarazi zuten, Estatu Itunaren betetze-mailaren jarraipena egiten ari da Emakunde, eta Estatu Itunak autonomia-erkidegoei erantzuteko eskatzen dituen 114 neurrietatik, Euskadik jada 77 bete ditu, beste 14 neurri betetzeko asmoa du, eta gaur egun beste 3 ezartzeko estrategia lantzen ari da. Neurrietako 32ren kasuan, uste da Estatuari dagokiola horiek bultzatzea, baina Euskadik aurrera egin du horietako 12 betetzeko zereginen.

EBko erakundeak eta Europako esparrua: Arlo honetan honako jarduketa hauek egin dira:

Euskadiren Europa Batasuneko Ordezkaritzarekin lankidetzan, Europako Itsas eta Arrantza Eskualdeen Kontseiluaren esparruan emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko Task Force bat (lantaldea) sortu da, eta Euskadik gidatuko du lantalde hori.

Emakumeen eta Pobreziaren gaineko eztabaida birtualean parte hartu du Emakundek. Eztabaida hori Emakumearen Institutuak antolatu zuen EQUINET Berdintasunerako Erakundearen Europako Sarearekin batera.

«Emakumeen eta gizonen berdintasuna kohesio-politikan» mintegian parte hartu du Emakundek. Mintegi hori Europako Batzordeko Eskualde eta Hiri Politikako Zuzendaritza Nagusiak antolatu zuen, Eskualdeen eta Hirien 18. Aste

Europarraren esparruan. Ekimen horretan Europako Funtsetako Berdintasunari buruzko Lantalde Teknikoan garatzen ari den erakundearteko eta lankidetzako lana aurkeztu zen. Horrez gain, GBEIk kudeatutako Euro Gender sarean parte hartu da.

Europar Batasunaren Inbertsioko eta Egiturako Funtsei (EIE funtsak) lotuta berdintasun arloan eskuratutako konpromisoen jarraipena egin da, eta hainbat programa operatiboren jarraipen-batzordetan parte hartu da. Halaber, prestakuntza-saio bat antolatu da Europako Funtsetako Berdintasunari buruzko Lantalde Teknikoan, Europako Funtsetako Berdintasunari buruzko Lantalde Teknikoak 2020-2023 urteetarako onartutako lan-planaren esparruan erakunde bakoitzak abian jarriko duen lan-prozesurako oinarriak ezartzeko, Europako Funtsekin egindako esku-hartzeetan genero-ikuspegia txertatzeko aldera.



Eskualdeen eta Hirien Europako Astea.



NBEko eta nazioarteko erakundeak: Nazioarteko lankidetzari dagokionez, berriz, honako jarduera hauek egin dira:

Halaber, laneko bi aldeko agendak garatu dira Argentina-Mercosurreko ordezkartzarekin, Txile, Peru eta Kolonbiako ordezkartzarekin (Emakundek sinatutako bi lankidetzak-memorandumak garatzeko, Familien Fundazioarekin, Txileko Presidentetzako Fundazioen Sarearekin, eta Txileko Genero Berdintasun eta Emakumeen Ministerioarekin), eta Mexikoko Ordezkaritzarekin (Mexikoko Gobernuaren Emakumeen aurkako Indarkeria Saihestu eta Desagerrarazteko Batzorde Nazionalarekin lankidetzak-memoranduma garatzeko).

Euskadiren Estatu Batuetako eta Mexikoko ordezkartzeekin lankidetzan, Nazio Batuekin eta nazioarteko beste zenbait erakunderekin eta zenbait herrialderekin lankidetzan jardun dugu berdintasunaren alorreko jakintza, esperientziak eta

jardunbide egokiak trukatzeko, Beijingo Emakumeen IV. Munduko Biltzarraren 25. urteurrenaren esparruan.

UNFPA-ECCARO erakundeko langileekin mintegi birtual batean parte hartu dugu, COVID-19ak eragindako krisiaren testuinguruan EAEn emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko egindako lanaren berri emateko.


Gainera, Nazio Batuek Latinoamerika eta Kariberako Garapenerako duten Programaren Genero Atalarekin batera lan egin dugu, Tokiko Garapen Ekonomikoan genero-ikuspegia txertatzeko estrategian (DELGEN- Desarrollo Económico Local y Género). Genero Ikuspegian oinarritutako Toki Gobernuaren Nazioarteko Misio Teknikoan parte hartu dugu (berdintasun-ikuspegia duen lidergoa), eta plangintza-bilera bat egin dugu DELGEN ekimeneko gizarte-erakundeekin.

UNFPA EECA eta Eusko Jaurlaritzako Biktimia eta Giza Eskubideen Zuzendaritzaren arteko koordinazioa erraztu da zuzendaritza horrek Europan errefuxiatu eta migranteen krisian emakume eta nesken giza eskubideei buruzko proiektu batean parte hartzeko.

Nazio Batuen Garapenerako Programak (NBGP) COVID-19ari eta generoari buruz antolatutako webinar batean parte hartu dugu, «COVID-19, el desafío de las ciudades con lentes de género» izenekoan, DELGEN Partzuergoaren esparruan (Tokiko Garapen Ekonomikoa, genero-ikuspegiarekin). Sei eskualde-



Beijing + 25.



PNUD webinarra.



eta mundu-erakundek –besteak beste, Emakundek– osatutako partzuergoa da DELGEN, genero-eredu jasagarria eta lurralde-garapen ekonomikorako politikak hedatzeko helburua duena.

Indarkeriaren biktima diren haur eta emakumeen funtsezko zerbitzuei buruzko Nazio Batuen Programa Bateratu Globala finantzatzen eta horretan parte hartzen jarraitu dugu, NBE Emakumeak eta Nazio Batuen Biztanleria Funtsak (UNFPA) gidatuta. Programaren helburu nagusia nazioarteko adostasuna lortzea da emakumeen aurkako indarkeria prebenitzeko eta horri erantzuteko funtsezko elementu eta zerbitzuei dagokienez. Nazioarteko programan beharrezko gutxieneko estandarrak erabakitzen dira indarkeria hori pairatzen duten emakumeen eta neskatuen beharrei kalitatezko erantzun koordinatua emateko. Programan, erantzun instituzionalaren zenbait arlo lantzen dira, hala nola poliziala, judiziala, osasunekoa, gizarte-zerbitzuena, baita koordinazioko eta gobernanzako sistemak eta mekanismoak ere.

Euskadin programa horren esparruan sortu den dokumentazio guztia jaso eta antolatu egin da, lan-prozesuaren parte izan diren pertsona guztien zerbitzura jartzeko. Informazio hori eskuragarri dago hobekuntza-programa kudeatzeko sortutako webgunean: www.emakundeonu.eus

Programaren garapenari laguntzeko, Nazio Batuen Biztanleria Funtsari dirulaguntza izenduna eman zaio; izan ere, Funts horrek bideratzen du proiektua, NBE Emakumeak erakundearekin batera.

Hirugarren sektoreko erakundeak: Emakunde hirugarren sektoreko erakundeekin lankidetzan aritu da jarduketa batzuetan, adibidez:

- Cine Invisible/Film Sozialak zinema-jaialdiarekin lankidetzan aritu gara, emakume zuzendari onenaren saria babestu baitugu;
- Bertsozale Elkartearekin lankidetzan aritu gara bertsolaritzan genero-ikuspegia txertatzeko eta prestakuntza-jardueren bitartez emakume bertsolarien ahalduntzea babesteko;



Zinema ikusezinen Nazioarteko Jaialdia.



- Edekarekin (Desgaitasuna duten pertsonen ordezkarier Euskal Koordinakundea) lankidetzan aritu gara desgaitasunari eta indarkeria matxistari buruzko bi gidaliburu prestatzeko. Zehazki, indarkeria matxistaren biktimak diren emakume desgaituentzako informazio-gidaliburu bat eta indarkeria matxistaren biktimen esku-hartzean diharduten profesionalentzako baimen informatuari buruzko beste gidaliburu bat lantzeko;
- Edekarekin lankidetzan aritzea, COVID-19ak eragindako pandemia-egoerari buruzko informazio-kartelaren gainean baliabide eskuragarriak taxutzeko. Zehazki, entzumen-urritasuna duten emakumeei zuzendutako bi bideo eskegi dira zeinu-hizkuntzaz, euskaraz eta gaztelaniaz; honako hauek egin dira: adimen- edo garapen-urritasuna duten emakumeentzako irakurketa errazeko kartela; eta ikusmen-urritasuna duten pertsonentzako QR kodea.



Desgaitasunari eta indarkeria matxistari buruzko gida.

2.2. Politika publikoen ebaluazioa

Berdintasun- eta genero-politiken ebaluazioa, indarreko legeriak berdintasunaren arloan ezartzen duen eta nahitaez bete behar den agindua izateaz gain, kontu ematea xede duen jarraipen-mekanismoa da. Aldi berean, ikasteko eta hobetzeko baliabidea da. Horri esker, inplementatutako politikek norainoko arrakasta duten jakin ahal da, eta etorkizunean erabakiak hobeto hartu ahal dira.

Emakundek 1991n ekin zion ibilbideari, eta ezaguna eta aitortua da politika publikoen ebaluazioaren alorrean egin duen lana, bai aldizkakotasunari eta sistematizazioari dagokionez, bai bere deszentralizazio-mailari dagokionez.

EAE-KO EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO PLANA EBALUATZEA

Botere publikoen jardueraren inguruan egiten den urteko jarraipenaren bidez, EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Planaren garapen-maila ezagutu dezakegu, gauzatzearen ikuspegitik. Ikuspegi horren mugak gorabehera, intereseko panoramika bat eskain dezake, oinarritzko kontu batzuen inguruan, besteak beste, aurrerapena berdintasun-politiken plangintzan, berdintasun-politikek beren erakundeetan sustatzen dituzten berdintasun-unitateen garapena edo administrazio publikoek berdintasuna sustatzeko bideratutako aurrekontuak.

Jarraipen hori EAEko erakundeek aplikazio informatiko baten bidez betetako galdetegi esker lortutako informazioan oinarritzen da. 2019an egindako jardueri buruzko informazioa batu da 2020an. Guztira, 131 erakundek edo instituziok parte hartu dute.

Emandako informazioa oinarri hartuta, txosten hauek egin dira:

- EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Planaren (2019) ebaluazioa, EAEko botere publikoek egindako berdintasun-planaren garapen eta ezarpenaren jarraipena barne hartzen duena.



- Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren esparruarekin zerikusia duten Eusko Jaurlaritzako sailen eta sail horietako erakunde autonomo eta erakunde publikoen jardueraren jarraipena, 2019. urteari buruz.

EAE-N EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIARI EMANDAKO ERANTZUNAREN EBALUAZIOAE

Urtero bezala, emakume biktimei emandako arretari buruzko datu-bilketaren analisi-txostena ere aurkeztu da: «Emakumeen kontrako indarkeriari emandako erantzuna. EAE, 2019».

COVID-19ak markatutako urtea izan da 2020a, eta testuinguru horretan, pandemiak indarkeria matxistaren biktimak diren emakume eta adingabeengan duen eragina eguneratuta ezagutu beharra sortu da. Hori dela eta, martxotik ekainera (lehen konfinamenduaren eta deskonfinamenduaren garaiak) hileko datuak argitaratu eta zabaldu dira salaketei, arreta psikologiko espezializatuari, harrera-zerbitzuei, Emakumeen aurkako Indarkeriaren Biktimentzako Telefono bidezko Arreta Zerbitzuaren bitartez emandako arretari eta ordainketa bakarreko laguntzei buruz. Halaber, etengabe eguneratzen zen informazioa eman da harremanetarako moduen eta baliabideen berrantolaketari buruz.

Txosten guztiak Emakunderen webgunean argitaratu ditugu.

2.3. Zeharkako jardueraren esparru eta zerbitzuak

Emakunderen eguneroko lanean erakundearen nahiz erakundea osatzen duten arlo batzuen eta besteen eguneroko jardunean zeharkako eragina duten zerbitzuak eta lan-eremuak daude. Zeregin juridikoak, prestakuntzakoak, dokumentaziokoak eta ikerkuntzakoak dira. Ezinbestekoak dira Emakunderen arlo bakoitzak programatutako jarduerak egin ahal izateko.

2.3.1. Aholkularitza juridikoa

Emakunderi esleitutako eginkizunetan parte hartu du Emakundeko Aholkularitza Juridikoak: zenbait gairen barneko eta kanpoko izapideak egiten lagundu du – bereziki dirulaguntzen eta hitzarmenen izapideak egiten–, eta arau juridikoak egiteko prozeduretan ere lagundu du; hau da, aplikagarri den araudia berrikusten, horren jarraipena egiten eta eguneratzen. Gainera, Eusko Jaurlaritzaren sailai, foru-aldundiei eta EAEko udalei erakundearen jarduketa-eremuari dagozkion gaiei buruzko aholkularitza juridikoa ematen jarraitu dugu, bai eta herritarren dirulaguntzen deialdiei buruzko zalantza juridikoak argitzen ere.

Zehazki, honako hauek izan dira Aholkularitza Juridikoaren eginkizunak:

- Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legearen bigarren aldaketa egiteko Legearen aurreproiektua egiten eta izapidetzen laguntzea.
- Lankidetzeta-hitzarmenak egitea hiru foru-aldundiekin, emakumeen kontrako indarkeria prebenitzeko «*Beldur Barik*» erakunde arteko kanpaina garatzeko eta finantzatzen laguntzeko.
- Genero-inpaktuaren aurretiko ebaluazioaren txostenak egitea, 4/2005 Legeko 21. artikuluan ezarritakoari jarraituz.
- Eusko Jaurlaritzako sailietako, foru-aldundietako eta tokiko erakundeetako berdintasun-planen txostenak egitea, 4/2005 Legeko 15. artikulua betez.
- Txostenak egitea eta ebazpen-proiektuak prestatzea, emakumeen eta gizonen berdintasunaren alorreko lankidetzeta-erakundeak izendatzeko edo, hala badagokio, izendapen hori kentzeko.
- Emakume eta gizonen aukera-berdintasunaren arloan aholkularitza teknikoa emateko aholkularitza-erakundeen homologazioarekin zerikusia duten txostenak eta ebazpen proiektuak egitea, eta hala badagokio, atzera botatzea.



- Txostenak eta ebazpenak egitea Emakundeko kontratazioetarako eta kudeaketa-aginduetarako, eta Emakunderen kontratazio-mahaietara joatea.
- Deialdiak, emakidak eta gainerako gorabeherak (minorazioak, itzulketak, jarduera-aldaketak, errekurtsoen ebazpena, hutsen zuzenketak, luzapenak, etab.) ebazteko proiektuak egitea eta izapidetzea, Institutuak abiarazitako dirulaguntzei eta lehiaketa bidezko laguntzei dagokienez:
 - emakumeen elkarteak sustatzeko,
 - emakumeen aurkako indarkeriazko portaerak prebenitzeko edota horien inguruan sentsibilizatzeko jarduerak bultzatzeko eta sustatzeko, erakunde, elkarte eta fundazioen aldetik,
 - udalerrientzat eta beste toki-erakunde batzuentzat,
 - enpresa eta erakunde pribatuentzat, homologatutako kontsultoreak kontratatu ditzaten, berdintasun-planak egiteko,
 - ikerlanak egiteko,
 - ikerlanak argitaratzeko (VIII. lehiaketa),
 - «Emakumeen aurkako indarkerian esku hartzeari buruzko Masterra» (ez da lehia-izaerakoa) egiteko.
- Dirulaguntza izendunak eta zuzenekoak egitea eta izapidetzea, honako erakunde hauen alde:
 - Nazio Batuen biztanleria-funtsa (UNFPA), Indarkeria jasaten duten Emakume eta Neskatoentzako Funtsezko Zerbitzuei buruzko Baterako Programa Globala garatzen laguntzeko.
 - «Maite Albiz» Emakumeen Dokumentazio Zentroa, emakumeen eta gizonen berdintasunaren alorreko dokumentu-funtsak eskuratu, kudeatu, digitalizatu eta zabaltzeko.



Emakunde Saria 2020.

- Euskal Herriko Unibertsitatea, 2020-2021 ikasturtean «Emakume eta Gizonen Berdintasunaren gaineko Masterra online» emateko.
- Eudel-Euskadiko Udalen Elkarte, udalerrri txikienei berdintasun-politiketan aholkularitza-zerbitzua garatzen laguntzeko (Berdinbidean); berdintasunaren alde eta emakumeen kontrako indarkeriaren aurkako euskal udalerrien sarea garatzeko (Berdinsarea); eta Europako Udalerrri eta Eskualdeen Kontseiluan Eudel zuzendari izatea babesteko, eta zuzendari izateak eragiten dituen gastuei erantzuteko.
- Gazteen Euskal Kontseilua, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren arloan aholkularitza emateko.



- Askabide Elkartea, sexu-esplotaziorako gizakien salerosketaren biktima izan diren emakumeentzako arreta-programa kudeatzeko.
 - Congregación Oblatas del Santísimo Redentor lagunartea, sexu-esplotaziorako gizakien salerosketaren biktimak izan diren emakumeak detektatu eta emakume horiei arreta emateko programa kudeatzeko.
 - Euskal Herriko Unibertsitateko Uda Ikastaroak Fundazioari, «*Emakumeen eta neskatuen kontrako sexu-indarkeriari buruzko irudikapenak eta diskurtsoak*» ikastaroa egiteko.
 - Kultura, Communication y Desarrollo (KCD) GGKE, «*Film Sozialak*» Zinema Ikusezineko Nazioarteko Jaialdia antolatzeke.
 - Euskal Herriko Bertsozale Elkartea, emakumeen parte-hartzea sustatzeko bertsoaritzan, genero-ikuspegia ezartzeko eta emakumeen ahalduntzea sustatzeko.
- «2018ko Emakunde Saria» delakoaren deialdia eta ebazpena izapidetzea.
 - Herritarrek, hainbat erakundek eta Emakundeko langileek hainbat gairi buruz egindako galderei erantzutea eta horiek bideratzea: laguntzen deialdiak eta esleipenak, emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko legeria, erakunde laguntzaileak eta gizarte-zehapenak aitortzea, Emakunderen kontsulta-organoak antolatzea eta atxikitzea, generoaren araberako inpaktuaren alde aurreko ebaluazioa, datuen babesa, amatasuna, edoskitzea eta eszedentzia, etab.
 - Laneko sexu-jazarpenaren eta sexuan oinarritutako jazarpenaren kontrako protokoloa eguneratzeko atazan parte hartzea.
 - Begira publizitate eta komunikazio ez-sexista erabiltzeko aholku-batzordeari laguntzeko taldean parte hartzea.

- Erakundearen administrazio-egintza guztien tramitazio elektronikoa egitea. Informatika-arloarekin elkarlanean aritu gara, deialdiak informatikoki garatzeko.
- Euskal Autonomia Erkidegoko Datuak Babesteko ordezkariarekin lankidetzan aritzea.

2.3.2. Prestakuntza

Emakundek, Europako eta/edo nazioarteko erakunde ugari bezala, profesionalen prestakuntza generoarekiko sentsibiltatea adierazten duten politikak garatzeko oinarritzko estrategia dela uste du. Halaber, Emakumeen eta gizonen berdintasunerako 4/2005 Legeak garrantzi handia ematen dio prestakuntzari.

Prestakuntzarekin lotutako jarduerak zenbait jarduera-ildoren inguruan egituratzen dira Emakunden:

JABETUZ programa, emakumeen aurkako indarkeriaren biktimak artatzen dituzten profesionali zuzendua

2015. urtean, Emakundek «*JABETUZ*» programa diseinatu eta abian jarri zuen; emakumeen aurkako indarkeriaren biktima direnei arreta ematen dieten profesionalentzako online emandako lehen oinarritzko prestakuntza-ikastaroa da.

Programa horren bidez, bateratu egin nahi da Euskal Autonomia Erkidegoan emakumeen aurkako indarkeriaren biktimak artatzeko dagoen sistemako profesionalen ikuspegia. Arreta hori ematen den eremuetako erakundeetan dagoen prestakuntza-eskariari ere erantzun nahi zaio.

Kontuan hartu behar den beste alderdi bat da programak, batez ere ikasleen foroetako parte-hartzearen bidez, biktima horiei arreta emateko lan egiten duten profesionalen sarea sustatzen duela eta erakundearteko koordinaziorako bide ematen duela; horrela, biktima horien arreta hobetzen laguntzen du.



Jabetuzen oinarrizko ikastaroa: Online oinarrizko prestakuntza-ikastaroak 85 orduko iraupena du eta ikastaroaren helburu nagusia Etxeko tratu txarren eta sexu-erasoen biktimei laguntza hobea emateko Erakundearteko II. Akordioaren printzipio orokorretako bat indartzera bideratuta dago; printzipio hori emakumeen ahalduzkoa da.

2020. urtean, Jabetuzen oinarrizko bi ikastaro eman dira: 11. edizioa otsailaren 17an hasi zen eta 12. edizioa irailaren 14an. 185 pertsonak hartu dute parte; 30 gizonak izan dira, eta gainerako 155ak, berriz, emakumeak, biktima horiei arreta emateko erakundearen arteko esku-hartze eremu guztietakoak, hala nola sistema judiziala, soziala, hezkuntzakoak, osasunekoak eta segurtasunekoak.

Jabetuzen ikastaro aurreratua: Oinarrizko ikastaroaz harago, Erakundearteko II. Akordioaren esparruan, hura osatzen duten erakundeek giza eskubideei buruzko nazioarteko zuzenbidetik eratorritako betebeharreran aurrera egiteko interesa agertu zuten, baita haurrak babesteko arauditik eta berdintasun-politika publikoetatik eratorritako betebeharreri dagokienez ere. Izan ere, gai batzuetan gehiago sakondu behar dela hauteman zuten, «Emakumeen kontrako indarkeriaren biktimen seme-alabak» eta «Aniztasun funtzionala» gaietan, esaterako.

Ildo horretan, 2016an, Emakundek Jabetuz online prestakuntza-ikastaro aurreratua diseinatu eta abiarazi zuen; programak hiru unitate didaktiko eta 35 orduko iraupena du, eta ezagutza- eta sakontze-maila handiagoa behar duten gai batzuen inguruan aurrera egiten jarraitzea du helburu.

Horrela, bi lehen unitateetan emakumeen aurkako indarkeriaren biktimen seme-alabei buruzko araudia aztertzen da, ikuspegi hirukoitz batean oinarrituta: giza eskubideak, haurtzarora eta generoa. Era berean, seme-alabek jasaten duten indarkeriaren ondorioak aztertzen dira, indarkeria-mota horren zuzeneko biktimak direnez. Eta, amaitzeko, azken ikasgaietan emakumeen aurkako indarkeriaren barnean, aniztasun funtzionala aztertzen da, zehazki, desgaitasun fisikoa duten emakumeen egoera eta premiak. Ikastaroa egin ahal izateko ezinbestekoa da aurrez oinarrizko online prestakuntza-ikastaroa egin izana.

2018. urtean, Emakundek igo egin du aniztasun funtzionalari buruzko ikastaro aurreratuaren gai kopurua. Lehen, II. moduluan, aniztasun funtzionala orokorrean lantzen zen eta desgaitasun fisikoa eta organikoa aztertzen ziren. Aurten gaiak zabaldu egin dira honako hauei dagokienez: gaixotasun mentala, entzuteko desgaitasuna, adimen-desgaitasuna eta/edo garapen-desgaitasuna eta ikusteko desgaitasuna. Hala, ikastaroa 35 ordukoa izatetik 55 ordukoa izatera aldatuko da.



Jabetuz on-line Prestakuntza.



2020an Jabetuzen ikastaro aurreratuaren bosgarren edizioa egin da, zeina apirilaren 20an hasi baitzen eta 98 parte hartzaile izan baitzuten: 85 emakume eta 13 gizon, hain zuzen.

Horrez gainera, eta Jabetuz programaren esparruan, COVID-19ari eta indarkeria matxistaren biktimen egoerari buruz hausnartzeko eskatzen die Emakundek ikastaroko irakasleei. Gogoeta hori Jabetuz programan azaldutako lan dokumentatu batekin burutzen da, ikasleei beren lanaren inguruko hausnarketa eta laguntza gisa balio diona.

EHUko Uda Ikastaroak

Euskal Herriko Unibertsitateko Uda Ikastaroen esparruan, Emakundek Donostiako Miramar Jauregian, uztailaren 21ean eta 22an, «Emakumeen eta neskatoen kontrako sexu-indarkeriari buruzko irudikapenak eta diskurtsoak» ikastaroa antolatu zuen. Ikastaro horren helburuak honako hauek izan ziren: sexu-indarkeriari buruzko narratiba estereotipatu, sexista, birbiktimizatzaile eta doktrinatzailen eraketa aztertzea; sexu-indarkeriaren eraketa eta irudikapen horien banalizazioa zalantzan jartzea; eta sexu-indarkeriari buruzko narratiba horiek birkontzeptualizatzea, diskurtso feministak eta ahalduntze-diskurtsoak eraikitzeke.

Honako ikastaro hauek gauzatu ziren: «*Narrativas sobre el peligro sexual: el caso Alcàsser y la construcción del terror sexual*», Nerea Barjola Ramosena; «*Nik sinesten dizut: Ierro arteko patriarkatua irakurtzen*», Samara Velte Moránena; «*El #MeToo de la pequeña pantalla: Evolución de la representación de la violencia sexual contra las mujeres en la ficción*», Delicia Aguado Peláezena, eta «*Mujeres y miedo en el espacio público: efectos sobre la percepción de la violencia sexual*», María Rodó Záratearena.



EHUko udako ikastaroa.

Halaber, bi mahai-inguru egin ziren, izenburu hauekin: batetik, «*Nuevos discursos frente a la violencia sexual*», zeinetan hauek hartu baitzuten parte: Pilar Kaltzada González Linking Ideas-kazetaria eta aholkularia (moderatzaila), Nerea Barjola Ramos, Samara Velte Morán, Delicia Aguado Peláez eta María Rodó Zárate; eta bestetik, «*Aportando estrategias para la reparación ante la violencia sexual*», zeinetan hauek hartu baitzuten parte: Pilar Kaltzada González Linking Ideas-kazetaria eta aholkularia (moderatzaila), Irantzu Varela Urreztizabala, Silvia Rugamas Rivas, Laia Serra Perelló eta Maitena Monroy Romero.



«Garbira pasatzeko zirriborroak» saio birtualen zikloa

COVID-19aren pandemia dela-eta, saio birtualen ziklo bat antolatu zen, «garbira pasatzeko zirriborroak» deritzona. Hausnarketak eta eztabaidak faboratzeko eta ekarpenak jasotzeko sortu zen zikloa, bai eta pandemiaren ondorioz emakumeen eta gizonen berdintasunaren inguruan sortutako erronka berriak identifikatzeko gune izateko ere. Hori guztia, azken batean etorkizuneko politikak bideratuko dituzten proposamenak sortzeko.



Saio birtualen zikloa.

Ekimen horren bidez, gonbidatuek (espezialistak, mugimendu feministako pertsonak, esparru instituzionalekoak, esparru akademikokoak, etab.) eta saioetan parte hartu zuten ikusleek denbora eta ezagutza ekarri zuten hausnartzeko eta proposamenak egiteko lan kolektiboan.

Saio guztiak Pilar Kaltzada kazetariak moderatu zituen, Miryam Artolak prestatutako akta grafiko batez lagunduta. Zikloak iraun zuen bitartean, saioaren 3.000 bat bistaratze egin ziren. Bai saioak bai horietan jorratutakoaren laburpen-dokumentua Emakunderen webgunean daude eskuragarri.

- 1. SAIOA - 2020/05/14
«COVID-19a eta emakumeen aurkako indarkeria. Ikasitakoak eta proposamenak». Parte-hartzaileak: Norma Vázquez, Mónica Ramos eta Jorge Freudenthal.
- 2. SAIOA -2020/05/28
«COVID-19a eta horrek emakumeen osasunean duen eragina: ikasitakoak eta proposamenak». Parte-hartzaileak: Amaia Bacigalupe, Maria del Mar García eta Marga Saenz.
- 3. SAIOA -2020/06/02
«COVID-19aren testuingurua feminismoaren ikuspegitik: ikaspenak eta proposamenak». Parte-hartzaileak: Josune Oyarbide, Maider Zilbeti eta Josebe Iturrioz.
- 4. SAIOA -2020/06/11
«COVID-19a eta berdintasuna arlo ekonomikoan: ikasitakoak eta proposamenak». Parte-hartzaileak: María Pazos eta Mertxe Larrañaga.
- 5. SAIOA -2020/07/16
«Eraiki dezagun etorkizuna berdintasunetik. Ikaskuntzak eta proposamenak COVID-19aren garaian». Hizlaria: María Ángeles Durán.



Beste prestakuntza- eta sentsibilizazio-jarduera batzuk

Era berean, Emakundek honako prestakuntza-jarduera hauek antolatu ditu:

- Emakumeen osasunaren nazioarteko egunaren inguruko hitzaldia, «COVID-19a eta horrek emakumeen osasunean duen eragina: ikasitakoak eta proposamenak» izenburuarekin, Emakunde Birtualaren ekimenaren barruan. Maiatzaren 28an Amaia Bacigalupek, María del Mar Calventek eta Marga Saenzek hartu dute parte.
- «Berdintasuna kudeaketa aurreratuan: tresnak eta esperientziak (IV)» jardunaldia, Kudeaketa Aurreratuaren XXVI. Europar Astearen esparruan (Euskalitek sustatutako astea), Bilbon, urriaren 27an. Jardunaldiak honako helburu hauek zituen:
 - Emakundek eta Euskalitek 2019an kudeaketa aurreratuko esparruan berdintasunaren arloan egin dituzten ekintzak aurkeztea.
 - Berrikuntzarako jarraibideak ematea, generoaren ikuspegitik: jarrerak egunez egun eraldatzen.
 - Kudeaketa aurreratuan enpresetan izandako berdintasun-esperientziak ezagutzera ematea: DBUS eta Lantegi Batuak.
- «Berdintasunaren arloko aurrerapenak enpresetan. Araudi berria eta esperientziak» izeneko Jardunaldia, azaroaren 20an Eusko Jaurlaritzaren Ekitaldi Aretoan egin (Bilboko Kale Nagusia, 85). Jardunaldiaren helburuak hauek izan ziren:
 - Enpresetan emakumeen eta gizonen arteko berdintasunean aurrera egiteko esparru arautzaile berrien aurkezpena: Urriaren 13ko 901/2020 Errege Dekretua, berdintasun-planak eta haien erregistroa arautzen dituena eta laneko hitzarmen eta akordio kolektiboen erregistro eta gordailuari buruzko maiatzaren 28ko 713/2010 Errege Dekretua moldatzen duena, zein urriaren

13ko 902/2020 Errege Dekretua, emakumeen eta gizonen ordainsari-berdintasunari buruzkoa.

- BAI SAREA deritzonaren aurkezpena, Sareak soldata-arrakalaren gainean landutako jarraibideei buruz.

Jardunaldi amaieran, aintzatespen-plakak eman zitzaizkien honako erakunde lankide hauei: IMATEK (INGURUMENA ADVANCED TECHNOLOGIES), TALIO SOLUTIONS, ACHUCARRO BASQUE CENTER FOR NEUROSCIENCE, BIZITZEN FUNDAZIOA, INNOBASQUE, ASFALTIA, IZAN ZENTROA eta LANDABE INGENIERÍA.

- «Berrikuntzak soldata berdintasunaren eta laneko sexu-jazarpenaren eta sexuan oinarritutako jazarpenaren arloetan» jardunaldia, azaroaren 27an online egin. Jardunaldiaren helburuak hauek izan ziren:



Lankidetzaren Erakundeak.



- Lanpostuak genero-ikuspegiarekin baloratzeko lan-sistemak ezagutzea. Beatriz Quintanillak emandako hitzaldia.
- Sexu-jazarpenaren eta sexuan oinarritutako jazarpenaren aurkako Emakunderen protokoloaren zereginari buruz hausnartzea. Olga Fotinopulosek emandako hitzaldia.
- «*Laneko sexu-jazarpenaren eta sexuan oinarritutako jazarpenaren aurkako prebentzio-prestakuntza. Berrikuntzak eta aplikazio praktikoa*», abenduaren 9an Lakuako (Gasteiz) Euskaldun Berria Aretoan egina, Olga Fotinopulosen eskutik. Jardunaldiaren helburuak hauek izan ziren:
 - Sexu-jazarpenera eta sexuan oinarritutako jazarpena testuinguruan jartzea. Baliabideak: protokoloa.
 - Emakunderen protokolo-ereduaren berrikuntzak aurkeztea, prestakuntza-saio baten bidez.

Aholkularitza espezializatua eta irakaskuntza-elkarlana

Emakundek laguntza eta aholkularitza ematen dizkie beste instituzio batzuei prestakuntza-jarduerak antolatzeko, edukiak diseinatzen, irakasleak eta materialak bilatzen, irakasten eta erakundeak koordinatzen lagunduz. Zeregin hori gero eta garrantzi handiagoa hartzen ari da azken urteetan.

Zeregin horrekin lotuta, nabarmentzekoa da HAEErekiko lankidetzaren eta aholkularitza-lana berdintasunean oinarritutako zeharkako prestakuntzaren garapenean, administrazio orokorraren eta haren erakunde autonomoen zerbitzura dauden langileentzat. Hain zuzen ere, HAEEekin elkarlanean aritu gara irakaskuntza-eskaintza diseinatzen, irakaskuntza-beharrizan berriak identifikatzen eta ikastaro berriak proposatzen. Emakundeko langileak, gainera, modu egonkorrean aritzen dira lankidetzan HAEEEK antolatutako emakumeen eta gizonen berdintasuneko prestakuntza-ikastaroak irakasten. Zehazki, 2020an «*Emakumeen eta gizonen berdintasuna proiektuetan*» ikastaroa eman da (edizio bat).

Gainera, Emakundeko langileek UPV/EHUK antolatutako «Emakume eta Gizonen berdintasunaren gaineko Masterra» delakoaren irakaskuntzan parte hartu dute (zehazki, hiru irakasgai eta aurrez aurreko saio bat eman dituzte). Era berean, Emakumeen aurkako Indarkeria Desagerrarazteko Emakunderen Arloak «*Emakumeen kontrako indarkerian esku hartzeko Deustuko Unibertsitateko Master*» delakoan parte hartu du; zehazkiago, 4 orduko prestakuntza-saio bat eman zien ikasleei 2020ko urriaren 15ean.

2020an, gainera, honako prestakuntza eta jardunaldi hauetan ere aritu da lankidetzan:

- Agirre Lehendakaria Center zentroarekin, prestakuntza-saio bat eman zaie Etorkizuneko liderrak prestatzeko programako ikasleei.
- Mintzaldi bat egin da Oviedon otsailaren 25ean, Asturiasko Emakumearen Institutuak eskatuta, Asturiasko gobernuak hezkuntzari buruz egindako batzorde batean, «*Hezkidetzaren bultzatzea. Emandako pausoak eta etorkizuneko erronkak*» goiburuekin.



Laneko sexu-jazarpenari buruzko jardunaldia.



2.3.3. Azterlanak, ikerketak eta argitalpenak

Errealitateak ongi ezagutzeko aukera ematen duten estatistikak eta azterlanak –genero-harremanak eta horiek emakumeen eta gizonen arteko desberdintasun-egoeretan duten eragina aztertzen dituztenak– eskuragarri izatea ezinbestekoa da dauden desberdintasunak zuzentzera eta desberdintasun-egoera eta -modu berriak hautematera eta prebenitzera bideratutako politikak diseinatu eta garatzeko. Xede horrekin, Emakundek etengabe hainbat motatako azterlanak egiten ditu, arreta halaber hainbat sektoretan jarrita. Beste alde batetik, ikerketa sustatzen du, eta egindako azterlanak hedatzeko jarduerak egiten ditu. Lan-ildo horretan, zenbait jarduera sartzen dira, besteak beste: erakundearen beraren argitalpenak eta ikerketan genero-ikuspegia txertatzea sustatzeko beken deialdia. Antzeko xedeak dauzka Erakundeko Dokumentazio Zentroak. Zentro horrek aholkularitza eta baliabideak eskaintzen ditu azterlan eta ikerlanetarako, bai Emakundeko eta administrazio publiko guztietako langileentzat, bai ikerketan beste arlo batzuetan (unibertsitateetan edo bestelakoetan) aritzen direnentzat.

Azterlanak

EAEko emakumeen eta gizonen egoerari buruzko zifrak

«EAEko emakumeen eta gizonen egoerari buruzko zifrak» izeneko urteko txostenari esker, emakume eta gizonen errealitatearen deskribapen eguneratua egin ahal da euskal gizarteko eremu sozial ekonomiko eta politiko batzuetan eta besteetan. Txosten hori eginez Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundea sortzeari buruzko otsailaren 5eko 2/1988 Legearen 4. artikuluan eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legean biltzen diren legedapenak betetzen dira, emakumeek eta gizonen gizartearen arlo batzuetan eta besteetan daukaten egoera eta posizionamenduari buruz (beharrizanak, egoerak, etab.) ikuspegi orokorra ematen duelako, bai unean unekoa, bai ebolutiboa.

Haren helburua da genero-desberdintasunak hobeto ezagutzea ahalbidetuko duten adierazle eguneratuak eta garrantzitsuak administrazio publikoen eskura jartzea, eta horiek ezabatzerako bideratutako neurriak eta estrategiak har daitezela

erraztea. Xede nagusi horrekin batera, txostenak agente sozial eta ekonomikoak eta hezkuntza-arloko agenteak genero-berdintasunari buruz sentsibilizatzea du helburu.

Txosten honek informazioa bildu zeneko urtea aipatzen du. Hain zuzen ere, urte horretan bildu eta aztertu da aztertutako arlo bakoitzean eskuragarri dagoen informaziorik berriena. Horretarako, datu kuantitatibo ofizialak eskaintzen dituzten informazio-iturri nagusiak hartu dira kontuan, Euskal Estatistika Erakundearen (EUSTAT) eta beste estatistika-erakunde batzuen (INE eta Eurostat, batez ere) estatistikak erabiliz. Era berean, Eusko Jaurlaritzako hainbat sailetako, Estatuko Ministerioetako eta Emakundeko informazioa bildu da.

Txostenak zazpi atal ditu:

1. Demografia-azterketa
2. Hezkuntza
3. Lana
4. Ekonomia- eta gizarte-baliabideak
5. Osasuna
6. Parte-hartzea
7. Emakumeen aurkako indarkeria

EAEko emakumeen aurkako indarkeriari buruzko datuak eta analisisa

Urtero bezala, emakumeen aurkako indarkeriaren dimentsioari buruzko txostenak egin dira: «Emakumeen aurkako indarkeriari buruzko datuak eta analisisa. EAE, 2019». Era berean, emakumeen aurkako indarkeriari buruzko estatistika-datuak hileroko argitaratzen ditugu webgunean.

«Feminismoa eta Berdintasuna» hiztegi terminologikoa

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak eta Emakundek elkarlanean egin dute «Feminismoa eta Berdintasuna» hiztegia, eta euskarazko terminologiako emakume adituekin eta profesionalekin egindako lanaren emaitza da.





“Feminismoa eta Berdintasuna” hiztegia.

Hiztegiak oinarriko terminoak eta kontzeptu propioak eskaintzen ditu feminismoaren eta berdintasunaren arloan. Indarrean dagoen legeriak ezartzen dituen kontzeptuak dira, baina bai eta gizarte-mugimenduetatik sortutakoak eta nazioartean erabilitakoak ere. Euskarazko terminologia eguneratu, finkatu eta normalizatzeko bidean, euskaraz finkatzen ditu pertsonen arteko harremanetan oso beharrezkoak diren kontzeptuak eta terminoak, gure gizarte osoarentzat.

Euskal Herriko lurralde ugariatako emakume talde batek egindako lanaren emaitza da hiztegia, eta Elhuyar Fundazioarekin koordinatuta gauzatu da. Emakume horiek ezagutza eta esperientzia dute euskararen arloan eta feminismoan, askotariko eremuetan: erakunde publiko eta pribatuetan, unibertsitatean, hedabideetan, elkarte feministetan... Hiztegia Euskararen Aholku Batzordearen Terminologia Batzordeak onetsi du eta EUSKALTERM Euskal Terminologia Banku Publikoan dago integratua.

Hiztegia 2020ko azaroaren 30ean aurkeztu zuten prentsaurreko batean Miren Dobaran Hizkuntza Politikarako sailburuordeak eta Izaskun Landaida Emakundeko zuzendariak, hiztegia egiteko prozesuetan parte hartu duten Itziar Díez de Ultzurrun eta Lorea Agirrerekin batera.

Berdintasuna pandemia-garaian. COVID-19aren eragina genero-ikuspegitik COVID-19aren pandemiak emakumeengan eta gizonengan modu ezberdinean nola eta zergatik eragiten duen hobeto ulertzen laguntzen du «*Berdintasuna pandemia-garaian. COVID-19aren eragina genero-ikuspegitik*» txostenak.

Txostena 6 atal handitan dago egituratua, dimentsio anitzeko ikuspegi horretatik errealiter hurbiltze aldera. Hala, azaltzen du COVID-19ak eragin diferentziala duela emakumeengan eta gizonengan, baina ez soilik gaixotasunaren prebalentziari dagokionez; horrez gain, eragin diferentziala du hainbat alderditan, hala nola enpleguan, bazterketa sozialean, ongizate emozionalean, familia-harremanetan eta zaintzen ardura hartzean.

Hori dela eta, txostenak agerian uzten du, adibidez, zaintza-lanak berriz familiaren ardura bilakatu izanak eragin handia izan duela, bereziki, emakumeengan. Lan-inpaktua larriagoa izan da emakumeen kasuan; batetik, krisiak gehien erasandako sektore ekonomikoetako batzuetan (hala nola ostalaritza, jatetxeak edo merkataritza) gehiegizko ordezkaritza izatearekin lotuta, eta, bestetik, lan-karga handia izateagatik eta lan egitean arrisku psikosozialeko gainesposizioa



izateagatik feminizatutako lanbideetan (erizainak, garbitzaileak, adinekoen egoitzetako langileak, zeladoreak, administrari laguntzaileak...).

Txostenak hainbat gomendio biltzen ditu gizarteko hainbat esparrutan inplikaturako eragile sozioekonomiko guztiei zuzenduak, erantzun eraginkor bat bermatzeko, pertsonengan zentratua eta genero-erakiko sentikorra.



Txostenaren aurkezpena.



COVID-19ren genero-eraginari buruzko txostena.

Ikerlanetarako beka

Ikerlanak egiteko 2020rako beken deialdia 2019ko abenduan argitaratu zen. Beka bakoitzaren zenbateko ekonomikoa (23.333 euro), bai eta iraupena (10 hilabete) eta deitutako hiru beketako bakoitzaren ikergaia ezarri ziren:

- **1. motako beka:** gizartean dauden eremuetan balio-aldaketa gauzatzeko lagunduko duten eta gizartea berdintasunerantz eramango duten ekimenak eta proposamenak bilatzea, eta horretarako dauden faktoreak aztertzea;
- **2. motako beka:** egoerak eta desberdintasunak aztertzea askotariko bereizkeria jasateko arriskuan dauden emakumeen kolektiboan, eta bereziki, balibide sozial eta ekonomikoez baliatzean eta segurtasunean;
- **3. motako beka:** erabaki soziopolitikoak hartzeko eremuetan emakumeek duten sarbidea, parte-hartzea eta eragina aztertzea, eta ekimenak eta estrategiak bilatzea emakumeen ahalduntze politikoa, ekonomikoa eta soziala eta lidergoa mesedetzeko eta sistema patriarkala aldatzen edo gainditzen laguntzeko.

1. motako bekan 15 eskaera aurkeztu ziren; 2. motako bekan, 9; eta 3. motako bekan, 8. Eskaeren kopuru osotik, deialdian 80 parte hartzaile baino gehiago izan dira. Balioespenak egin eta elkarrizketa egokiak egin ondoren, hiru beka esleitu ziren eta horien segimendua egin zen, horretarako ezarritako bileren egutegiaren bidez. Gaur egun, 7 pertsona ari dira prestatzen (5 emakume eta gizonezko 2), eta honako gai hauek landuko dira esleitutako beken bidez:

1. MOTAKO BEKA

EGILEA-KOORDINATZAILEA	IZENBURUA	ZENBATEKOA
Ixusko Ordeñana Guezuraga	Genero-indarkeriatatik kondenatuak izan diren gizonen tratamenduan epaileen lanaren azterketa eta hobekuntza proposamenak.	23.333 €

2. MOTAKO BEKA

EGILEA-KOORDINATZAILEA	IZENBURUA	ZENBATEKOA
Taldea: Margarita Sáenz Herrero (Koordinatzailea)	Análisis de la presencia de sesgos de género en la atención psiquiátrica de las personas usuarias que acuden al servicio de urgencias del Hospital Universitario de Cruces: trienio 2017-2019.	23.333 €

3. MOTAKO BEKA

EGILEA-KOORDINATZAILEA	IZENBURUA	ZENBATEKOA
Leire Milikua Larramendi	Lehen sektoreko emakumeak: ordezkatuak eta ikusgarriak.	23.333 €



2019ko beken deialdiari dagokionez, beka-mota guztiak 2020an amaitu dira, aurreikusitakoaren arabera. Hautaketa Batzordeak ikerlanak aztertu ditu, eta egokia izan da guztien emaitza.

Horrez gain, aurrean bi beken prestakuntza-emaitza komunikabideen aurrean aurkeztu da; bata 2018koa da, eta irailean aurkeztu zen, izenburu honekin: «Monetización del valor social del género en las organizaciones: Una propuesta integral de análisis e intervención»; eta bestea «Análisis de los fenómenos que contribuyen a perpetuar, o modificar, la discriminación de las mujeres en los campos de las matemáticas y la física». Bi ikerlanak Emakunderen webgunean argitaratu ditugu hedatzeko.



Ikerlanetarako beka.

Argitalpenen lehiaketa

Profesionalek eta gizarte-eragileek egindako ikerketen argitalpena eta zabalkundea sustatzeko eta laguntzeko, lehiaketaren lehenengo deialdia sortu zen; izan ere, arlo horretan egin diren eta gizartearen interesekoak diren ikerlanak azpimarratu eta erakusgarri jarri nahi dira. Helburu horrekin, 2020ko maiatzean, Emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko ikerlanak argitaratzeko VII. lehiaketa ebatzi zen (2019koa); Lau hautagai egon ziren eta, horien puntuazioa ikusita, Hautaketa Batzordeak erabaki zuen lehiaketa esleitu gabe uztea.

Bestalde, Emakundeko zuzendariaren 2020ko urriaren 1eko ebazpenaren bitartez, 2020an Emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko ikerlanak argitaratzeko VIII. lehiaketarako deia egin eta arautu zen. Lanok baldintza hauexek bete behar dituzte: emakumeen eta gizonen egoera, kondizio, jarrera diferentzialaren eta bizitzaren esparru guztietako genero-harremanen inguruko ezagutza hobetu, desberdintasunak sortzen dituzten kausak hobeto ezagutzen lagundu, eta berdintasun-politiken jardunbide egoki bihurtu daitezkeen ikerlanen emaitzak jakinarazi. VIII. lehiaketaren ebazpena hurrengo ekitaldian zehar garatu eta egingo da.

Argitalpenak

2020an, argitalpen hauek egin dira:

Txostenak:

42. zk.: «Sexismoa “aitaren eguna” eta “amaren eguna” helburu duten publizitate-kanpainetan. Hautemateko tresna».

Bertsio elektronikoko elebiduna Emakunderen webgunean aurki daiteke.

43. zk.: «EAE genero-indarkeria dela eta hildakoen inguruko trataera informatiboari buruzko azterketa (2015-2017)».

Bertsio elektronikoko elebiduna Emakunderen webgunean aurki daiteke.





Argitaratutako txostenak.

44. zk.: «Emakumeek EAEko hedabideetan duten presentziari buruzko II. azterketa (2018)».

Versión electrónica bilingüe en la página web de Emakunde.

43. zk.: «Genero-arrakala Euskal Autonomia Erkidegoko pentsioetan».

Bertsio elektronikoa elebiduna Emakunderen webgunean aurki daiteke.

Dokumentazio Zentroa

Dokumentazio Zentroak ohiko kudeaketa- eta mantentze-lanekin jarraitu du, baita Zentroak eskaintzen dituen zerbitzuen erabiltzaileei arreta eskaintzetik eratorritako lanekin ere:

- Funts bibliografikoak eta bideografikoak erosi, katalogatu eta indexatzea.
- Aldizkarien harpidetzak kontrolatzea eta horietako artikulua hustea.
- Informazio-eskaerei erantzutea.
- Bibliografiari buruzko aholkularitza eta bibliografia- eta bideografia-zerrendak «nahierara» egitea.
- Gai jakin batzuei buruzko prentsako albisteak hautatzea.
- Liburuak eta bideoak mailegatzea.

Zentroaren ohiko kudeaketa- eta mantentze-jarduerari dagokionez, 2020an zehar 250 dokumentu bibliografiko eta bideografiko inguru jaso dira eta 535 erreferentzia dokumental berri gehitu dira bibliotekako datu-basera: % 50 monografiak dira eta % 35 baino gehiago artikulua, dokumentuak... 2020 amaieran, Emakundeko Dokumentazio Zentroaren funts dokumentalean 26.150 erreferentzia dokumental zeuden.

Euskarri elektronikoak gero eta protagonismo handiagoa du, eta monografiaren erdia baino gehiago PDFak dira. Azpimarratu behar da, bestalde, dokumentu-erreferentzia berrien % 20 euskarri digitalean (DVD) dagoela –35 bideograbazio–. Era berean, Emakundek ekoiztutako ikus-entzunezko dokumentuetako asko digitalizatzeko edo formatuz aldatzeko prozesuarekin jarraitu da, bideo formatutik (VHS) formatu digitalera (DVD) igarotzeko, baina gero eta gutxiago.



Katalogatutako materialen erreferentziekin, hilean behin «*Berrikuntzen buletinak*» prestatzen dira. Horiek hala eskatzen duten Dokumentazio Zentroei, Erakundeko teknikariei, Eusko Jaurlaritzako sailtako Berdintasun Unitateei eta azken bost urteetan eskaeraren bat egin duten dokumentazio-zentroko erabiltzaileei banatzen zaizkie, posta elektronikoa bidez.

Herritarrentzako arreta- eta aholkularitza-zerbitzuei dagokienez, kanpoko 128 informazio-eskaerari erantzun zaie. Horietatik % 92 (118 kontsulta) EAEkoak dira eta % 8 (10), beste autonomia-erkidego batzuetakoak. Erabiltzaile gehienak emakumeak dira: % 80,5. Gizonen kasuan, berriz, % 19,5. Aurreko urtearekin alderatuta, eskaerak nabarmen jaitsi dira: 2019an 216 eskaera izan ziren, eta, 2020an, 128. Pandemiak eta konfinamenduak eragina izan du Dokumentazio Zentroan, gizarteko gainerako eremuetan bezala.

Posta elektronikoa da kontsultak egiteko gehien erabiltzen den bidea (104 kontsulta 2020an), aurreko urteetako kopuru bera. 2019an, % 78 izan zen, eta 2020an, % 82. Era berean, proportzioak ere mantendu dira, zentrori bertaratzen direnek aurrez aurre egindako kontsultei dagokienez (16 kontsulta 2019. eta 2020. urteetan).

Dokumentu elektronikoen erabilgarritasun handiagoak –Emakunderen webgunean nahiz Dokumentazio Zentroaren gure katalogoan– dokumentuak deskargatzeko aukera eskaintzen du Emakunderen webgunean, maileguan eskatu beharrik izan gabe, eta hori zuzenean eragiten ari da azken urteetan hauteman den zentrori egindako eskaeren beherakadan, baita artatutako telefono bidezko kontsulten kopuruan ere. Pandemiak liburuaren eta ikus-entzunezkoen maileguetan ere izan du eragina: 2019an 109 liburu-mailegu egin ziren eta, 2020an, 40; 2019an 22 ikus-entzunezkoen mailegu egin ziren, eta, 2020an, 2. Telefono bidezko kontsultei dagokienez, urtean zehar 278 dei jaso dira. Aurreko urteetan bezala, dei kopurua handiagoa izan da azaroan eta martxoan, emakumeenganako indarkeria ezabatzeko nazioarteko eguna eta emakumearen nazioarteko eguna direla eta.


Bestalde, dokumentu elektronikoa gero eta gehiago eskatzen dira (monografiak zein zentroan gordetako artikulua edo dokumentuak edo sarean kontsultatutako baliabideak). Sarritan, Emakundek argitaratutako liburuak dira, baita paperean ere, baina banaketarako agortuta daudenak. Sarean eskuragarri dauden beste material batzuei dagokienez, erabiltzaileei Interneten baliabideak edo dokumentuak bilatzen laguntzea edo horretarako jarraibideak ematea izaten da askotan Dokumentazio Zentroaren lana.

Pandemiaren eraginez, nabarmena izan da beherakada, bai dokumentu elektronikoen kontsultan, bai paperean egindakoetan. Emakundeko langileek egindako barneko informazio- eta dokumentazio-kontsultak nabarmen jaitsi dira, bai eta maileguak ere. Guztira, 68 liburu-mailegu erregistratu dira (122, 2019an), eta 4 ikus-entzunezko dokumentu (bideo, dvd, cd-rom). Berdintasunaren gaiaren inguruko bibliografiak edota edozein motatako informazioa ere eskatu da.

Estatuko beste dokumentazio zentro batzuekin kolaboratzeko esparruan, nabarmendu behar da Emakumeen Liburutegi eta Dokumentazio Zentroen Sareak garatutako proiektu eta jardueretan parte hartu dugula, esaterako «emakume» gaia zehazki adierazteko tresnak eguneratu eta berrikusteko lan kolektiboan (Tesauro). Gainera, urteko bigarren hiruhilekoan, funtseko liburu bikoiztuak banatu zituen sareko kide diren emakumeen liburutegi eta dokumentazio-zentroen artean.

Bestalde, Maite Albiz Emakumeen Dokumentazio Zentroarekin elkarlanean aritu gara jakintza zabaltzeko dirulaguntza izendun baten bitartez.





3. **Gizarte osoa** xede duten jarduerak



Gizarte osoa da Emakunderen ekintzen hartzaille eta helburu handia. Memoria honen lehenengo zatian Emakundek batez ere erakunde publikoen eta horietan emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko sortutako egitura eta tresnen bidez gizarteari begira sustatutako ekintzak deskribatu dira. Bigarren zati honetan, herritarrei zuzenean zuzendutako ekintzak zehazten dira. Ekintza batzuen zein besteen helburua gizartea emakumeen eta gizonen berdintasunean oinarritutako eredu baterantz eraldatzea da.

3.1. Emakumeen elkartegintza eta berdintasunaren aldeko mugimenduak sendotu eta bultzatzea

3.1.1. Lan-proiektuak emakumeen elkarrekin

Aholku Batzordearen esparruan garatutako prestakuntza-lanaz eta partaidetzaren bultzadaz gain, Emakundek beste lantalde batzuei laguntzen die eta aholku teknikoak ematen dizkie hala eskatzen duten elkarrekin, dela beren proiektuak landu eta ebaluatzeko, genero-ikuspegia txerta dezaten, dela sareak indartu ahal izateko dinamika eta ekintzei buruz, udalerrietan nahiz mankomunitateetan, lurraldeetan, autonomia-erkidegoan eta autonomia-erkidegoen artean. Hona hemen nabarmendu behar diren proiektu batzuk:

- EAEko emakume alargunen sareak.
- Landa-eremuetako emakumeen elkarrekin.
- EAEko emakume ijitoen elkarrekin.
- Erakunde mistoetako emakumeen arloak.
- Emakume etorkinen elkarrekin.

Emakume Nekazarien Estatutua garatzeko Jarraipen Batzordearen parte izan gara; bertan, Batzordeak berak agindutako zenbait proiektu eta ekintza diseinatzeko kolaboratu dugu, Emakume Nekazarien Estatutua garatuz nekazarien esparruan emakumeen eta gizonen arteko berdintasun handiagoa lortze aldera.

2020an, Gizarte Zerbitzuen Euskal Kontseiluan egiten ari diren ordezkartza-lanei lotutako lan-prozedura berri bat sortu da, eta ordezkagarritasunari lotutakoak gauzatu dira Zuzendaritza Kontseiluan, Begira Batzordean, Emakunde Sarietan,

Lurralde arteko Batzordean, Aholku Batzordearen Osoko Bilkuran, Lurraldeetako Aholku azpibatzaletan eta lantaldeetan.

Estatuko eta nazioarteko emakume-elkarte eta elkarte mistoen eta jarduera antzeko esparruetan egiten duten beste elkarte batzuen arteko elkartrukea bideratzen saiatu da.

Azkenik, askotariko prestakuntza eta aholkularitza eman zaie elkarrekin, emakumeen federazioei eta/edo federazio feministei, **Emakumeak Sarean** ekimenaren barruan. Ekimen hori 2011n sortu zen, «*Euskadi Informazio Gizartean Plana, 2010: Euskadiko Agenda Digitala*» planaren bidez. «*Emakumeen talde eta elkarten prestakuntza digitala*» proiektua abiarazi zen, webgune sozialak emakume-elkarrekin eskaintzen dizkien aukerei balioa emateko eta haien artean prestakuntza eta jardunbide egokien trukea errazteko.


Informazio-teknologiaren erabilerrari buruzko oinarrizko ezagutzei buruzko prestakuntza-saioren ondoren, tele-izapidetze elektronikoen prestakuntza premia hauteman zen; izan ere, elkarrekin administrazio publikoarekin telematikoki harremanetan jartzera behartzen zituen Estatuko lege batek. 2020an arlo horretan prestakuntza ematen jarraitzeko, bi mailako prestakuntzak dira, oinarrizko prestakuntza eta prestakuntza aurreratua, eta 60 emakumek parte hartu dute bi ikastaroetan. Are emankorragoa izan da pandemia betean, elkarten jarduera



oso baldintzatua egon baita. Gaikuntza, ildo horretan, inoiz baino estrategikoagoa izan da.

Emakumeen eta gizonen berdintasunaren alde lan egiten duten erakundeen direktorio digitala eguneratzen eta EAEko emakumeen elkarten gida eguneratzeko helburuarekin jarraitu da.

Volar dokumentala egin eta proiektatzearen ondorioz emakume biktimen eta bizirik atera diren emakumeen elkarten arteko dinamikak baliatuz, Emakunderen erreparazioko proiektuaren barruan, emakume biktimen/bizirik atera diren emakumeen elkarteekin harreman estua izan dugu.



EAEko emakumeen elkarten gida.

Volar film dokumentala Emakundek ekoitzi zuen eta Bertha Gaztelumendik zuzendu zuen; iraganean genero-indarkeria pairatu duten bederatzik emakume dira protagonista, eta esperientziak eta bizi-ibilbidea lehen pertsonan kontatzen dute. 2020. urte osoan, Emakundek filma bidaltzeko 94 eskaerari erantzun die, prestakuntza- edo sentsibilizazio-jardueretan erabiltze aldera, batez ere azaroaren 25eko ospakizunaren inguruan. Proiektio horietako zenbaitetan protagonistek parte hartu dute, erakunde antolatzaileek eskatuta.

3.1.2. Emakumeen elkarte, fundazio eta federazioentzako dirulaguntzak

Aholkularitza teknikoaz eta jarduerak antolatzeko babesa emateaz gain, Emakundek elkarten jardura ekonomikoki babesten jarraitu du, dirulaguntzen urteroko deialdiaren bitartez.

Irabazi-asmorik gabeko emakume-elkarte eta -federazioentzat da deialdia, bai eta helburu eta jardun-eremu bakarra emakumeen eta gizonen benetako berdintasuna lortzea duten fundazioei ere. Helburua emakumeen ahalduzko pertsonala, talde mailakoa, soziala eta politikoa sustatzea eta garatzea da, genero-ikuspegia daukaten parte-hartze prozesuen bitartez. Emakundek behar duten laguntza teknikoa ematen die, bai proiektuak egiteko prozesuan, bai dirulaguntzak izapidetzeko prozesuan.

Deialdira aurkeztu diren 136 elkarteetatik 123k jaso dute dirulaguntza⁷. Guztira, 184 proiektu lagundu dira diruz, eta 376.000 euro erabili dira horretarako.

7. Ikus elkarteak 3. eranskinean: Emakume eta gizonen berdintasunerako proiektuetarako dirulaguntza jaso duten emakumeen elkarte eta federazioen zerrenda.



3.1.3. Emakumeen aurkako indarkeriaren prebentzioa, horren inguruko sentsibilizazioa eta laguntza bultzatzen duten erakunde, elkarte eta fundazioentzako dirulaguntzak

Irabazi-asmorik gabeko erakunde, fundazio eta elkarteek ere funtsezko ekarpena egiten dute indarkeriazko jokabideen inguruan sentsibilizatzen eta prebenitzen eta emakumeen aurkako indarkeriaren arloan eta esku-hartze sozialeko funtsezko mekanismoa da.

Hori guztia dela eta, Emakundek, 2020. urtean, jarraitu du laguntza ekonomikoa ematen sentsibilizatzeko eta/edo emakumeen kontrako indarkeria jarrerak prebenitzeko ekintzak martxan dituzten erakundeei, baita indarkeria hori prebenitzeko oinarri gisa berdintasunezko jarrerak sortzera bideratzen dituzten estrategiak dituztenei ere.

Deialdira bideratutako baliabide ekonomikoen zenbatekoa 240.000 eurokoa da. 80 eskabide aurkeztu ziren, eta horietatik 43 diruz lagundutako proiektuak izan dira; aldiz, behar besteko puntuazioa lortu arren, 16 proiektuek ez dute dirulaguntzarik jaso, kreditua agortu delako. Beste 20 proiektuk ez dute gutxieneko puntuazioa lortu.

3.2. Enpresentzako aholkularitza eta laguntza

Berdintasunean aurrera egiteko, enpresa-kulturan aldaketa gertatu behar da: soilik ekoizpena kontuan hartzeari uztea eta pertsonak eta haien askotariko errealitateak aintzat hartzea. Azterlan ugari agertzen dutenez, pertsonen gogobetetasun handiagoak produktibitatea areagotzen du. Pertsonen gogobetetasun handiagoa hainbat alderdirekin lotuta dago, besteak beste, lanbide-aintzatespenarekin, lanbide-prestakuntzarako eta -sustapenerako aukerekin, lan-bizitza eta familiakoa eta pertsonala uztartzeko aukerekin, etab. Emakundek arlo horretan egiten duen lanaren ardatzak enpresetan sentsibilizazio-lana eta berdintasun-planak landu eta

abian jartzeko aholkularitza eta laguntza dira, baita enpresek ildo horretan egiten duten lana jendaurrean aintzatestea ere.

3.2.1. Berdintasun-planak: aholkularitza

Emakundek aholkularitza eman die enpresei eta beste erakunde batzuei berdintasunerako legediari buruz eta eskuragarri dauden baliabide material, ekonomiko eta pertsonalei buruz, emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzeko planak, programak eta jarduerak egin ditzaten beren lan-esparruetan.

Berdintasunerako Legea garatzearekin eta martxoaren 1eko 6/2019 Errege Dekretua indarrean jartzearekin batera (Enplegu eta lanaren arloan emakumeen eta gizonen arteko tratua- eta aukera-berdintasuna bermatzeko presako neurriena), Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoa aldatu zen. Halaber, erregelamendu bidez arautu daitezkeen gaiak arautu ziren. Horrekin lotuta, Berdintasun-planak eta haien erregistroa arautzen dituen urriaren 13ko 901/2020 Errege Dekretua argitaratu zen eta aldatu egin zen Hitzarmen eta akordio kolektiboen erregistro eta gordailuari buruzko maiatzaren 28ko 713/2010 Errege Dekretua eta urriaren 13ko 902/2020 Errege Dekretua (Emakumeen eta gizonen ordainsari-berdintasunari buruzkoa eta Hitzarmen eta akordio kolektiboen erregistro eta gordailuari buruzko maiatzaren 28ko 713/2010 Errege Dekretua aldatzen duena). Funtsean, bi errege-dekretu horiek argitaratu direnez eta enpresetan berdintasuna sustatzeko kontzientzia gero eta handiagoa denez, ikusi ahal izan da informazio- eta laguntza-eskaerak gora egin dutela, diagnostikoak eta berdintasun-planak egiteko ez ezik, plan horiek abian jartzeko eta plan horien egokitzapena egin eta Regconen erregistratu ahal izateko. Hain zuzen ere, enpresa txikien informazio-eskaerak gora egin dute, errege-dekretuak onartu ondoren, besteak beste, negoziatua den eta soldata-ikuskapen bat barne hartzen duen berdintasun-plan bat edukitzeko derrigortasuna baitute. Horrez gain, sexuaren ondoriozko eta sexu-jazarpenaren aurkako berariazko protokoloak aplikatzeari lotutako kontsulta kopuruak urtero egin du gora, baita esparru horretako prestakuntza-eskaeren kopuruak ere.



3.2.2. Enpresa eta erakunde pribatuentzako dirulaguntzak

Berriz ere enpresa eta erakunde pribatuek emakume eta gizonen berdintasunerako-diagnostikoak eta planak prestatzeko laguntza kontratatzeko dirulaguntzen deialdia egin da. Dirulaguntza 36 enpresei eman zaie⁹. Era berean, bat ez da gutxieneko puntuaziora iritsi, lau ezetsi egin dira dirulaguntzaren xedea ez betetzeagatik, eta hiruk uko egin diote, COVID-19tik eratorritako egoerak sortutako ziurgabetasunaren ondorioz.

Dirulaguntza eman zitzaien erakundeen artetik 13 Bizkaikoak dira, 21 Gipuzkoakoak eta 2 Arabakoak. Jarduera-eremuari dagokionez, adierazi behar da 28 erakunde zerbitzuen sektorekoak direla (8 ingeniartzaren sektorekoak eta 9 hezkuntzaren arlokoak, 2 sanitarioak, 2 esku-hartze sozialekoak, 2 esku-hartze kulturekoak, 2 aholkularitzakoak, museo 1, komunikazio-enpresa bat eta elikadura-enpresa bat) eta 8, industria-arlokoak. Guztira, zifrei dagokionez, baliteke 981 emakumerentzat eta 987 gizonentzat izatea onuragarriak erakunde horietako bakoitzean egitea aurreikusitako diagnostikoak eta planak (langileak diruz lagundutako erakundeetako plantillan), eta, zeharka, milaka gehiagorentzat.

3.2.3. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Lankidetzaren Erakundeak

Figura hori azaroaren 8ko 424/1994 Dekretuaren bidez sortu zen, gizarte-eta lan-esparruan emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren alde sor daitezkeen ekimenak sustatzeko, baita entitateek arlo horretan egiten duten lana nabarmentzeko ere.

Gero, 2014an 11/2014 Dekretu berria onartu zen, 424/1994 Dekretua aldatzen duena, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 41. artikulua garatuz.

Dekretu berriaren arabera, 25 eskaera jaso dira 2020an, eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Lankidetzaren Erakundearen aitortzea eman zaie jarraian

adierazitako 7 erakundeei. Bestalde, 8 eskaerari ezezkoa eman zaie, batek uko egin du eta beste 10 balorazio-prozesuan daude.

AITORTUAK

1. Talio Solutions SL
2. Izan Intervención Familiar y Comunitario
3. Landabe Ingeniería SL
4. Asfaltia SL
5. Achucarro Basque Center for Neuroscience Fundazioa.
6. Bizitzen Fundazioa
7. Innobasque, Berrikuntzaren Euskal Agentzia

Gaur egun, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Lankidetzaren Erakunde gisa aitortutako 114 erakunde daude.

3.2.4. Aholkularitza-enpresen homologazioa eta jarraipena

Aholkularitza-entitateei informazioa eta aholkuak eman zaizkie, enpresa eta erakundeei gizon eta emakumeen berdintasunaren alorrean laguntza teknikoa emateko homologazioa jasotzeko deialdiari buruz.

Aurten 12 eskaera egin dituzte enpresek, eta sei homologatu dituzte: ISB Consultoría, Grupo Gisma, Afianza Global Service SL, Berdintasun Proiektuak, Ekin Consultoría SC eta CDI Consultants. Gainerako sei ezezko erantzuna jaso dute, bai sartzeko baldintzak ez betetzeagatik, bai gutxieneko puntuazioa ez lortzeagatik.

Bestalde, homologatutako aholkularitza-entitateen jarraipena egin da, homologazioak eskatzen dituen baldintzak betetzen jarraitzen dutela egiaztatzeko.

Abenduaren 31n, Emakunde 32 aholkularitza-enpresa homologatu ditu, enpresei berdintasun-diagnostiko eta planak egiten laguntzeko.




3.2.5. BAI SAREA. Gizonen eta emakumeen berdintasunerako lankidetzaren Sarea

BAI SAREA Emakunde - Emakumearen Euskal Erakundeak sustatutako eta emakumeen eta gizonen berdintasunerako lankidetzaren Sarea osatutako sare bat da, 2018ko martxoaren 19an eratu zena formalki, Emakundek eta gizonen eta emakumeen berdintasunerako lankidetzaren Sarea askok bi urtez lanean jardun ondoren. Gaur egun, Emakundek eta 64 gizonen eta emakumeen berdintasunerako lankidetzaren Sarea osatzen dute, eta konpromiso-eredua sinatuta, konpromisoa hartu dute emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko, lanean emakumeak eta gizonak modu ekitatiboan tratatzeko, giza eskubideak eta diskriminaziorik eza errespetatu eta defendatzeko, langile guztien osasuna, segurtasuna eta ongizatea zaintzeko, emakumeen garapen profesionala sustatzeko, berdintasunaren aldeko enpresa-garapeneko, erosketako eta marketineko praktikak gauzatzeko, ingurune soziolaboralean berdintasuna sustatzeko eta emakumeen eta gizonen berdintasunaren alde egindako aurrerapenak ebaluatu eta zabaltzeko. NBERen emakumeak ahaldunduzko printzipioak aintzat hartuta eta EAeko errealitateara egokituta,

BAI Sarea justizia sozialean oinarritutako helburu hauek lortu nahi ditu:

- Esperientziak, jakintzak, praktikak, ikaskuntzak, ideiak, metodologiak eta abar partekatzea.
- Neurriak garatzen, tresnak egiten eta ekimen partekatuetan laguntzea.
- Sarea barnean (erakundeetan) eta kanpoan (gizartean) ezagutzera ematea. Sarea ekintza-eredutzat eta iritzia emateko erreferentetzat hartzen da (gai profesionaletan, enpresa-arloko gaietan, gai ekonomikoetan eta gai sozialetan, besteak beste).
- Enpresaren eta gizartearen errealitatea aldatzea, lan-eremuko genero-arrakalak murriztuz eta berdintasuna nahiz justizia soziala erakundeen balio estrategikoak izan daitezzen bultzatuz.



BAI SAREA.

Eratu zenetik, bost Batzar egin dira. 2020ko batzarretan (ekaina eta abendua), 2021-2022 aldiko II. Ekintza Plana definitu eta onartu zen. Barne-komunikazio tresna hobetzeari ere heldu zaio, taldeen lana, sarekideen arteko komunikazioa eta materialen antolaketa errazten dituen intranet bat eginda. Halaber, www.baisarea.eus webgunearen diseinua eta @SareaBai Twitterreko kontua egin dira.

COVID-19aren ondoriozko egoerak zinez baldintzatu du 2020. urtea. Sarea aktibo egon da hilabete hauetan guztietan, eta arrakastaz berrasmatu du bere burua, aurtengo Ekintza Planean jasotako neurriak garatu ahal izateko. Batzorde Antolatzaileak izan ezik, zeina ez baita egon aktibo aurrez aurreko topaketarik ez antolatzeko gomendioagatik, Sareko beste bost lantaldeek, talde eragileak, komunikazio-taldeak, soldata-arrakalaren taldeak, esperientziak trukatzeko taldeak eta berdintasunezko erakunde-kulturako taldeak, beren jarduerarekin jarraitu dute. Talde motorra % 50ean beritu da eta komunikazio-taldea eta berdintasunezko erakunde-kulturako taldea indartu egin dira erakunde berrien sarrera dela eta. Guztira, Emakundek eta 27 erakundeek –gaur egun sarea osatzen dutenen % 42– parte hartu dute lantaldeetan.



Honako hauek dira gaur egun BAI Sarea osatzen duten Lankidetzak Erakundeak:

1. AGINTZARI
2. ARTEZ EUSKARA ZERBITZUA KOOP. E.
3. BIDE GINTZA GEK GIZARTE-EKIMENEN KOOPERATIBA
4. BILBAO METROPOLI-30 ELKARTEA
5. GIZARTE-BAZTERKERIAREN AURKAKO MARGOTU ELKARTEA
6. ZABALTZEN GIZARTERATZE-ELKARTEA
7. T4 ELKARTEA
8. ASPACE BIZKAIA (GARUNEN PARALISIA DUTEN PERTSONEN LAGUNTZEKO BIZKAIKO ELKARTEA)
9. AUTOBUSES CUADRA SA
10. AUTOBUSES LA GIPUZKOANA SL
11. AUTOBUSES LA UNIÓN SA
12. APNABI-AUTISMO BIZKAIA
13. AVANZA MOVILIDAD GIPUZKOA SA
14. AVIFES (GAIXOTASUN MENTALAK DITUZTEN PERTSONEN ETA EUREN SENITARTEKOEN BIZKAIKO ELKARTEA)
15. AZ PROCESOS PARTICIPATIVOS SL
16. BAHÍA DE BIZKAIA GAS SL
17. BERRIA TALDEA
18. BIDE LAN GIPUZKOAKO AUTOBIDEAK
19. BIHARKO
20. BULTZ LAN
21. BIZKAIKO CARITAS
22. CDE
23. BILBOKO LAGUN ARTEAN HARRERA ZENTROA
24. GURUTZE GORRIAREN ZENTRO SOZIOSANITARIOA
25. DONOSTIAKO TRANBIA KONPAINIA SAU
26. COMPAÑÍA DEL TRANVÍA ELÉCTRICO DE SAN SEBASTIÁN A TOLOSA
27. CONSTRUCCIONES MARIEZCURRENA SL
28. CONSTRUCCIONES ZUBIEDER SL
29. ARABAKO GURUTZE GORRIA
30. DAITEKE CAREERS&JOBS SL
31. EDE FUNDAZIOA
32. EJIE SA
33. ELHUYAR- ZUBIZE SLU
34. EMUN, KOOP. E
35. ERROAK - SARTU ELKARTEA
36. EUSKO TREN SA
37. IZAN FUNDAZIOA
38. LANTEGI BATUAK FUNDAZIOA
39. NUEVO FUTURO FUNDAZIOA (GIPUZKOA)
40. GAZTAROA SARTU KOOP
41. GOIZTIRI
42. GUGGENHEIM BILBAO
43. IHOBE SA
44. INGETEAM POWER TECHNOLOGY (TECHNOLOGY ETA ELECTRONICS EKOIZPEN-UNITATEAK)
45. IPACE SL
46. ITELAZPI SA
47. IZENPE SA
48. JURITECNIA SL
49. KIROL MANAGEMENT
50. LABORAL KUTXA
51. METRO BILBAO SA
52. MU ENPRESAGINTZA KOOP. E
53. MURGIBE
54. ORONA KOOP. E
55. ORTZADAR S.
56. PROSPEKTIKER SA
57. SARTU ARABA
58. SATSE - ERIZAINZA SINDIKATUA
59. SUSPERGINTZA ELKARTEA
60. TALLER USOA LANTEGIA SAU
61. URAREN EUSKAL AGENTZIA
62. VIRTUALWARE 2007 SA
63. ZUBIETXE
64. ZUBIZARRETA CONSULTING



3.2.6. Enpresei laguntzeko beste tresna batzuk

EUSKALIT – Kalitatearen Sustapenerako Euskal Fundazioarekin sinatutako kolaborazio-hitzarmenaren barruan, hainbat jarduketa bateratu bideratu dira hitzarmena betetzeko, besteak beste, kudeaketa berdintasun-jardunbide egokien bilatzailea elikatzeko enpresa praktikak identifikatzea <https://www.euskalit.net/berdintasunbilatzailea/> eta horien aukeraketa bat aurkeztea urriaren 27an antolatutako jardunaldi bateratu batean.



Berdintasuna kudeaketa aurreratuan jardunaldia.

3.3. Herritarrei arreta zuzena emateko jarduketak, berdintasun-printzipioa eta bereizkeriarik ezarena defendatzeko sektore pribatuan

Atal honetan, Emakundek 2020an zehar sektore pribatuan berdintasun-printzipioaren eta sexuagatiko bereizkeriarik ezaren printzipioaren defentsarako eman dituen zerbitzuak azaltzen dira. Emakundek arlo honetan dituen funtzioak eta mugak otsailaren 16ko 3/2012 Legearen (Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legea eta Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundea sortzeko Legea aldatzekoa) 64. eta 65. artikuluetan daude jasota, hurrenez hurren.

Aipatutako artikuluekin bat etorritik, jarduketa-mota hauek egin dira:

- Eskatzaileei berehalako aholkularitza ematea, telefonoz edo aurrez aurre.
- Idatziz erantzuten diren eta aurretiazko azterlana eskatzen duten kontsultak.
- Kexen prozedurak.

Zuzeneko arretarako bulegoen jardura (aurrez aurreko eta telefono bidezko aholkularitza)

Emakundek zuzeneko arreta emateko bulegoak dauzka EAEko hiru hiriburuetan. Hala, arreta hobea eskain diezaieke herritarrei. Bulegootan, aurrez aurreko aholkuak emateaz gain, telefonozko kontsultei ere erantzuten diete, Emakunden herritarren berdintasun-eskubideen defentsaren arlorako dauden langileek.

Osasun-larrialdiko egoera deklaratu eta, gero, alarma-egoera deklaratzearen ondorioz, bere zerbitzuak herritarrei eskaintzen jarraitzeko erabakia hartu zuen Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundea. Pandemia-testuinguru batean, eta kontaktua pertsonalizatua edo fisikoa zen kasuetan, zerbitzuak ematen zituztenen eta zerbitzuak eskatzen zituztenen osasunari eragin ziezaioketen arriskuei aurrea hartzeko neurri egokiak hartuta, herritarren berdintasun-eskubideak defendatzeko arloak bere zerbitzuak aurrez aurre, telefonoz edo telematikoki eskaintzen jarraitu zuen.



2020an zehar, herritarren arretarako berehalako 181 zerbitzu eman dira, guztira. Gehienak, lan-arloari buruzkoak izan dira, familia-etxeko zerbitzuari dagozkionak. Emakunde - Emakumearen Euskal Erakundeak arreta pertsonalizatua ematen die familia-etxeko zerbitzuko langileei eta enplegatzaileei. Hala, familia-etxeko zerbitzuko langileek, emakumeak gehienak, lan-harremanetan tratu zuzena jasotzea zaindu nahi da.

Azkenik, 22 aholku-jarduera egin dira genero-indarkeriaren gainean, eta beste 77 banantze- eta dibortzio-prozeduretan, Emakunderen eskumen-arlokoak izan ez arren, askotan jasotzen baitira horien gaineko kontsultak. Gainera, ugaritu egin dira arazo ekonomikoak eta etxebizitza-arazoak dituzten emakumeen aholku-eskaerak.

Aurretiko azterlana eta kexa-prozedurak behar dituzten kontsultak

Aurretiko azterlana eta kexa-prozedurak eskatzeagatik idatziz erantzundako kontsultak guztira 87 dira, eta horietatik 55 kontsultak izan dira (% 63), 32 kexak (% 37).

Prozedura horietako gehienak lan-arlokoak dira (46), bigarren arlo nagusia komunikabideak eta publizitatea izan da (14), eta, jarraian, beste gai batzuei (gehienbat zerbitzuei) buruzkoak izan dira, eta, azkenik, kirol-arlokoak (5). Lan-arloko kasu gehienek amatasun-, edoskitze- eta familia eta lan-bizitzaren kontziliazio-eskubideari buruzkoak izaten jarraitzen dute. Nolanahi ere, aurten kontsulta gehiago egin dira onartutako hainbat lan-arau enpresek nola aplikatzen dituzten inguruan; esaterako, Berdintasun-planak eta haien erregistroa arautzen dituen urriaren 13ko 901/2020 Errege Dekretua, eta Emakumeen eta gizonen ordainsari-berdintasunari buruzko urriaren 13ko 902/2020 Errege Dekretua.

3.4. Gizarte-sentsibilizazioa

Berdintasuna benetan lortu ahal izateko, emakume eta gizonen portaerako jarraibide soziokulturalak dibertsifikatu eta aberastu behar dira eta gure izaeran sustrai sakonak dauzkaten balio batzuk aldatu behar dira. Horien ordez genero-zereginen atribuzio soziala etxean zein lan-arloan murriztuko duten beste batzuk ezarri behar dira, zaintza-lana beharizan sozial eta erantzukizun partekatu gisa ikusaraziko duten balioak, pertsona guztien berdintasunarekiko konpromisoa sendotuko dutenak, sexu biei balio eta prestigio bera emango dietenak, eta bereziki gizonen dagokienez, gizonen eredu tradizionala auzitan jarri eta berdintasunarekin koherenteak diren jarrera eta portaerak garatuko dituztenak.

Nahitaez sentsibilizatu behar da gizartea oro har, baita gizartearengan berdintasunean oinarritutako eredu batera aldatzeko beharrezko inguruan eragiten duten profesional, gizarte-eragile eta bestelako erakundeak ere. Hori dela eta, Emakunderen zereginetako bat da gizarte-sentsibilizazioko ekintzak egitea, eta horien artean nabarmentzekoak dira jardunaldiak, kanpainak, aldizkari digitala eta web-ingurunea, Berdintasunerako Emakunde saria eta eztabaida-taldeetan eta komunikabideetan etengabe parte hartzea.

Emakume eta gizonen berdintasunerako sentsibilizazioa funtsezkoa da desberdintasunaren ondoriozko arazo, desoreka eta bidegabekeria guztiei aurre egiteko, eta horien artean larrienari, emakumeen aurkako indarkeriari, alegia.








NAHIKO! ONLINE HITZALDIAK
PSICOWOMAN
ISA DUQUE

"GENERACIÓN Z. CUERPO Y AUTOESTIMA DESDE LA PERSPECTIVA DE GÉNERO"

20.11.18
10.00 - 11.30
ZOOM



IRAKASLEENTZAKO SOILIK

NAHIKO! Irakasleen formakuntza.

3.4.1. Nahiko programa

Nahiko programa hezkidetzeta-programa bat da. Lehen Hezkuntzan erabiltzen da, eta berdintasuna, errespetua eta indarkeriarik eza sustatzea du helburu. Programan, eskola-egutegiaren arabera lan egiten da; beraz, 2020ko datuak bi ikasturtetan banatzen dira: 2019-2020 eta 2020-2021.

2019/2020-2020/2021 edizioan, 49 ikastetxek hartu dute parte; ikastetxe horiei laguntza eta gaikuntza eman zaie Hezkuntza Sailarekin batera egindako deialdian, Euskal hezkuntza-sistemaren hezkidetzako II. Planaren esparruan, berdintasuna eta tratu ona lortzeko bidean. Ikastetxe horietan 2.876 neska eta 3.077 mutil daude.

2020an, honako hauek izan dira jarduketeta nabarmenenak ikasturtean zehar:

- Aurrez aurreko I. Jardunaldi Orokorra egin da. Bertan, hitzaldiak egin dituzte Eneko Fernandez Artigasek («*Haur eta literaturaren azterketa eta erabilera hezkidetzaren ikuspegitik*») eta Estibaliz Linares Bahillok («*Eremu digitalean haur eta nerabeen artean transmititzen den sexismoa eta matxismoa*»). Jardunaldira 73 pertsona bertaratu dira, guztira; 63 emakume eta 10 gizon.
- Osasun-krisia dela eta, ezin izan dira aurrez aurreko jardunaldi gehiago egin, baina, horren orde, 3 online hitzaldi egin dira; hitzaldi horiek egoera normal batean egingo liratekeen aurrez aurreko jardunaldi orokorren egunetan egin dira:
 - I. online konferentzia maiatzaren 15ean egin zen, Ana de Miguelen hitzaldiarekin («*Maitasunari buruzko gogoetak. Egungo neska-mutilen ereduak*»). 139 lagunek parte hartu zuten.
 - II. online konferentzia azaroaren 18an egin zen, Isa Duqueren hitzaldiarekin («*Z belaunaldia: gorputza eta autoestimua genero-ikuspegitik*»). 106 lagunek parte hartu zuten.



- III. online konferentzia abenduaren 10ean egin zen, Delicia Aguado Pelaezen hitzaldiarekin, («*Haurrentzako fikzioa genero ikuspegitik*»). 60 lagunek parte hartu zuten.
- 18 mintegi egin dira hiru hilean behin. Mintegiotan berriazko prestakuntza eman da, hiruhileko bakoitzean landuko diren unitate didaktikoak ezagutarazi dira, digitalizatutako material berriak probatu dira eta aurreko hiruhilekoko esperientzia ebaluatu da. Mintegietan 137 emakumezko irakaslek eta 33 gizonezko irakaslek hartu dute parte guztira.
- Banakako laguntza eman eta segimendua egin da, ikastetxe partaideek halaxe eskatuta.
- Programan digitalizatutako materiala dago unitate didaktikoak gauzatzeko, eta horretarako erabileran edo martxan jartzean sor daitezkeen behar informatikoetarako aholkularitza ematen da.
- 2019/2021 edizioan, Haur Hezkuntzako 3-6 urteko etaparako plan pilotu bat ezartzeko proposamena egingo da. 2020an, lehen saio espezifiko egin da 2019an eraturako talde pilotuarekin. 2020rako programaturako bigarren saioa 2021eko lehen hiruhilekora atzeratu zuten, osasun-krisia zela eta.

3.4.2. Beldur Barik programa

2009. urtean hasi zenez geroztik, programa finkatzen joan da eta Emakundek, 2013. urtean, bere gain hartu zuen programaren kudeaketa. Beldur Barik programa urtero egiten da, gazteen artean hausnarketa- eta eztabaida-prozesuak sortzeko, indarkeria sexistaren aurpegi guztiak identifikatzen jakiteko; ondoren, banakako eta taldekako jarrera eta jokabideak eraldatu eta eraiki nahi dira gazteekin, gertatzen diren desberdintasun- eta indarkeria-egoerak garaitu ahal izateko.



Beldur Barik kartela.



Erakunde arteko programa bat denez, hura kudeatze aldera, jarraipena eman zaio foru-aldundi bakoitzarekin egindako lankidetzeta-hitzarmenari. Era berean, koordinazio-bilerak egin dira Hezkuntza Sailarekin, Gazteria Zuzendaritzarekin eta UPV/EHUrekin.

2020an, Talde Motorra, programaren koordinazio-gunea, foru-aldundietako, Berdinsareko eta Emakundeko berdintasun-teknikariek osatu dute, eta 8 koordinazio-bilera egin dira.

Pandemiak markatu du Beldur Barik lehiaketaren 2020ko edizioa, eta zenbait lan-dinamika berregituratu dira. Sare sozialen bidezko komunikazioa indartu da eta hobekuntza orokorrak eta erabilerraztasun-hobekuntzak sartu dira web-orrian. 51 udalerrik, kuadrillak eta mankomunitatek parte hartu dute, eta 242 lan aurkeztu dira; horietatik 204 onartu dira lehiaketara. Aurten, segurtasun-neurriak kontuan hartuta, ez da Topaketa egin, eta, horren ordez, online sari-banaketa bat egin zen streaming bidez, Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitzatik, eta 100 pertsona inguruk jarraitu zuten.

Beldur Barik Uda kanpaina espezifikoko bat egin zen, jai-giroko eta udako aisialdiko eraso sexistak prebenitzeko. Kanpaina horren bidez, toki-erakunde guztiei bidali zitzaizkien kartelak eta Eraso Sexisten Aurkako Gida eguneratua, beren udalerrietan zabal zitzen.

Horretaz guztiaz gain, 2020an, Emakundek Beldur Barik programaren Inpaktuaren Ebaluazioa (2010-19) hasi du, eta 2021eko ekainera arte garatuko da, urteetan parte hartu duten gazteen ahotsa bildu eta etorkizuneko hobekuntzak eta ildo estrategikoak gazteen ikuspegitik identifikatzeko.

3.4.3. Gizonduz ekimena

2007an sortutako Gizonduz ekimen aitzindariaren xedea da gizonak emakumeen eta gizonen berdintasunaren alde gehiago inplikatu daitezen sustatzea. Honako helburu hauek ditu:

- Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren arloan eta emakumeek jasaten duten indarkeriaren aurka sentsibilizatutako eta inplikaturako gizonen kopurua handitzea.
- Gizon gehiago prestatzea emakumeen eta gizonen berdintasunaren esparruan.
- Gizonek etxeko lanetan eta pertsonen zaintzan duten erantzukidetasuna areagotzea.

2020. urtean, honako jardura hauek egin dira, Gizonduz ekimenaren esparruan:

Berdintasunaren aldeko gizonen arloan espezializatutako webgunea administratzea (www.euskadi.eus/gizonduz). Bertan egitasmoaren inguruko informazio zabala dago, hainbat euskarritan, baita bestelako atalak ere, elkarrizketak, dokumentazioa, bibliografia, bideoak, webgune interesgarrietara loturak, etab. 2020an, guztira, 7.616 bisita jaso dira, eta, guztira, 15.907 orrialde ikusi dira.

Sare sozialetan parte hartzea. Gizonduzek Facebooken duen orria eta YouTubean, Vimeon eta Twitterren dituen profilak administratu dira, eta aldi behin eguneratu egin dira. Nabarmentzekoa da Facebooken 2020an 5.378 jarraitzaile izan genituela (% 57, gizonak), 2.078 Twitterren, eta 4.347 ikustaldi egon zirela YouTubean.



Sentsibilizazio- eta prestakuntza-programa. 2020an jarri zen abian programa honen hamaikagarren edizioa. Zenbait ikastaroz osatuta dago; batzuk aurrez aurrekoak dira eta beste batzuk, berriz, Internet bidezkoak. Ikastaroak doakoak dira, era askotako eskaintza zabala dute, eta egokitzeko modukoak eta malguak dira. Emakumeek parte hartzeko aukera badute ere, interes pertsonala izateagatik edo ikuspegi profesionaletik, emakume eta gizonen berdintasuna zer den eta horren alde nola lan egin daitekeen jakin nahi duten edo gai horretan prestatu nahi duten gizonentzat bereziki zuzendutako ikastaroak dira. Alde horretatik, gizonen balio eta jarrerekin, berdintasunarekin eta maskulinitateekin lotutako gaiak lantzen dira, eta zenbait gai aztertzen dira, hala nola, osasuna, zainketa, aitatasuna, sexualitatea, bide-segurtasuna, emakumeen aurkako indarkeria,

toxikomanien prebentzioa, kriminalitatearen prebentzioa, eta abar. 2020an, 420 aurrez aurreko prestakuntza-ordu eman dira, eta antolatutako ikastaro batzuetan eta besteetan 942 pertsonak hartu dute parte, honela banatuta: 637 gizonak eta 292 emakumek, ez-bitar gisa identifikatu diren 6 pertsonak eta gai horri erantzun ez dioten 7 pertsonak. Bestalde, 2020an, 126 lagunek (66 gizonak eta 60 emakumek) amaitu dute 8 orduko online sentsibilizazio-ikastaroa. Azkenik, hainbat erakunderekin lankidetzan (HAEE, Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademia eta UPV/EHU) maskulinitateei buruzko online ikastaroaren 8 edizio egin dira. Guztira, 491 pertsonak gainditu dute ikastaroa (153 gizonak eta 338 emakumek).



Gizonduz prestakuntza.



«**Gazteak Berdintasunean 2.0» proiektua**. Proiektu horren bitartez nerabe eta gazteen eta, bereziki, gizonen kontzientziak eta inplikazioa bultzatu nahi da, emakumeen eta gizonen berdintasunaren alde eta emakumeenganako indarkeriaren kontra; horretarako, hezkuntza-tresna berritzaileak erabiltzen dira, teknologia berrietan oinarrituta. Atal hauek ditu proiektuak:

- Online abentura grafiko bat (bideo-joko bat): erabiltzaileei egoera batzuk adieraziko zaizkie, eta proba batzuk egin eta ebatzi beharko dituzte; hau da, egoera sexistak, homofoboak, indarkeriazkoak eta abar izango dituzte, eta erabaki bat hartu beharko dute zenbait aukeraren artean.
- Unitate eta fitxa didaktikoak, irakasleei zein ikasleei zuzenduta.

2020an, 6 ikastetxetan egin da prestakuntza: Bilboko La Salle eta Berri Otxoa, Gasteizko ADSIS Fundazioa, Kanpezuko Mendialdea IPI, Muskiz BHI eta Lasarteko Oriarte. 896 neska eta 1.279 mutilak parte hartu dute, eta ez-bitar gisa identifikatu ziren 3 pertsonak. Guztira, 70 prestakuntza-ordu eman dira ikasleekin, eta 21 taldetara iritsi da; horietako gehienetan 4 ordu eman dira talde bakoitzeko.

Berdintasunari buruzko unibertsitate-master eta -graduondokoen eta HAEEn ikastaroen publizitatea egitea. Gizonak prestakuntza- eta sentsibilizazio-jardura horietan parte hartzera bultzatzeko, Gizonduz ekimenak horien publizitatea egin du Gizonduzen webgunearen eta sare sozialen bidez.

Gizon politikoen taldeak. 2017tik udal eremuan eta 2018tik Eusko Jaurlaritzaren esparruan, hainbat prozesu garatu dira berdintasunaren aldeko eta emakumeenganako indarkeriaren kontrako gizon politikarien taldeak eratzeko. Prestakuntza, hausnarketa eta trukeko eremu horietan, gizon horiek beren eragin-eremuan berdintasuna sustatzea lortu nahi da eta, bereziki, beste gizon batzuek kausa horrekin duten konpromiso pertsonala eta kolektiboa sustatzea.

2020an, politikan diharduten gizonentzako berdintasunari buruzko gida bat egiteko prozesua hasi da.

«**Koronabirus garaian, zaintza +. Egin dezagun dagokiguna» kanpaina**.

Etxeko itxialdiaren eta etxeko lanen eta zaintzaren hazkunde esponenzialaren testuinguruan garatu da. Helburua izan da gizon gehiago eta neurri handiagoan inplikatzeko lan horietan, eta gure gizartearen funtzionamendu normalerako duten garrantziaz sentsibilizatzeko. Kanpainarako, zenbait material sortu dira, hala nola etxeko lanak eta zaintza-lanak egiten ari diren gizonen irudi batzuk, hausnarketarako eta sentsibilizatorako materialak eta espazioak dituen webgune bat, «*Gizonak eta zaintza*» solasaldi birtuala eta gai horretan adituak diren pertsonen egindako elkarrizketa batzuk.



Gizonduz kanpaina.




Bestelako jarduerak. Gizonduz ezagutarazteko, Emakundek zenbait hedabidetan jardun eta foro ugarian aurkeztu du programa. Era berean, lankidetzaz-ildoak ezarri ditu beste erakunde batzuekin. Horri dagokionez, honako hauek nabarmendu behar dira:

- «*Gizonak eta aukera-berdintasuna*» izeneko nazioarteko 5. konferentzia parte hartu zuen Emakundek, irailaren 3an eta 4an, Estoniako Gobernuak antolatua, Ministro Nordikoen Kontseiluarekin eta Genero Berdintasunerako Europako Institutuarekin (EIGE) lankidetzan.
- «*Hombres en cambio desde la Igualdad*» kongresu birtualean parte hartu zuen Emakundek. Latinoamerikako eta Espainiako 24 hizlarik hartu zuten parte,

urriaren 14tik 21era, Estatuko Berdintasunaren aldeko Gizonen Foroko kideek antolatuta.

- «*Las salidas de los hombres: caminos a seguir. Experiencias de trabajo en masculinidades en España*» konferentzia-zikloan parte hartu zuen Emakundek. Ziklo hori Peruko CISTAC zentrok antolatu zuen, uztailaren 14tik 17ra.
- «*Masculinidades en tránsito y diversas*» izeneko nazioarteko VI. konferentzia parte hartu zuen Emakundek, 2020ko abenduaren 19tik 20ra bitarte. Konferentzia hori Friedrich Ebert Fundazioak antolatu zuen (Peru).
- Argentinako Buenos Aires probintziako Emakumeen, Genero Politiken eta Sexu Aniztasunaren Ministerioarekin lankidetzan jardun da Emakunde. Esperientzien trukerako saio bat egin zen eta 2020ko urriaren 15ean egindako Gizonekiko Lanari buruzko Webinars Zikloko «*Tensiones y Resistencias*» online topaketan parte hartu zuen.
- Txileko Emakumearen eta Genero Ekitatearen Ministerioarekin sinatutako lankidetzaz-memorandumaren jarraipena egiteko bilerak egin dira, berdintasunaren alde gizonekin lan espezifikoak egiten laguntzeko.
- Txileko Familien Fundazioarekiko lankidetzaz-memorandumaren esparruan, jarraipen-bilerak egin dira, eta Gizonduz fundazioaren online prestakuntzarako sarbidea erraztu zaie fundazio horretako langileei.
- Kanarietako Berdintasun Institutuarekin lankidetzan aritu gara, berdintasuneko maskulinitateak sustatzeko programa bat ezartzeko.



«*Gizonak eta aukera-berdintasuna*» nazioarteko konferentzia.



3.4.4. Kanpainak

Martxoaren 8ko kanpaina. Emakumeen Nazioarteko Eguna

Emakundek 2020an diseinatutako martxoaren 8ko –Emakumeen Nazioarteko Eguna– kanpainak iraganean eskubideak konkistatu eta berdintasunaren bidean urratsak egin dituzten emakume guztiak omendu zituen, eta belaunaldi berriei katea ez hausteko eta sendotzen jarraitzeko deia egin zien. Kanpainak 2020an bat egiten duten berdintasunarekin eta emakumeen eskubideekin lotutako hainbat oroitza gogorarazi zituen, hala nola Beijinggo Adierazpenaren eta Ekintza Plataformaren 25. urteurrena edo Berdintasunerako Euskal Legea onartu zeneko

15. urteurrena. Urteurren horiek gogoratuz, berdintasunaren eta emakumeen eskubideen aldeko lana atzetik datorren eta jarraitu beharreko katea dela adierazi zen.

Kanpainaren leloa hau izan zen: KATERIK GABE, KATEAN. Emakumeek beren eskubideen aldeko borrokan duten batasuna sinbolizatzen ditu, bai eta talde-lana, berdintasunaren aldeko lanaren belaunaldi arteko transmisioa eta emakumeen ahalduntzea bultzatzen jarraitzeko beharra ere.

Kanpainak otsailaren 26tik martxoaren 12ra iraun zuen eta kartelak, irratarako oharrak, bannerrak eta bideo bat sortu ziren, kanpaina kanpoko euskarrien, komunikabideen eta sare sozialen bidez jendarteratzeko. Horrez gain, kartelak bidali dira erakundeetara, ikastetxetara, osasun-zentroetara, elkarteetara, enpresetara, kultura-etxeetara, liburutegietara eta abarretara. Kanpaina urte osoan zehar mantendu zen irrati eta sare sozialetan, martxoaren 8aren erreferentziarik gabe.

Eskola-agenda

2020an, eskola-agenda (2020-2021) bat prestatu da; agendak berdintasunarekin eta pertsona ororen errespetuarekin lotutako eguneroko egoeretan eragiten duten mezuak jasotzen ditu. Agenda horren bidez (EAEko DBHko 1. eta 2. mailako ikasle guztiei banatu zaie), honako gai hauekin lotutako mezuak zabaldu dira: bizi-proiektuak hautatzeko askatasuna, «nesken gauzak» eta «mutilen gauzak» daudela markatzen dituzten estereotipoekin amaitzeko beharrezana, pertsonen zaintzaren garrantzia eta zaintza-lana partekatutako izateko beharrezana, etxeko lanak banatzeko beharra, aniztasunarekiko errespetua (sexua, arraza, kondizio fisikoa...), pertsonen autonomia sustatzeko beharra, gorputz perfektuen tirania salatzen duten mezuak, autoestimua sustatzeko eta sentimenduak adierazteko



Martxoaren 8ko kanpaina.





Eskola agenda.

beharra (neskak ala mutilak izan), neska eta mutilen artean adiskidetasuna partekatze beharra, emakumeen jakintzak ezagutzea belaunaldi berrien eredu izateko etab.

Azaroaren 25eko kanpaina. Emakumeen aurkako Indarkeriaren kontrako Nazioarteko Eguna

Emakumeen Kontrako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Eguna dela eta, Emakundek, batetik, gazteei zuzendutako Beldur Barik programa bultzatu du, eta, bestetik, kanpaina bat abiarazi du herritarrak sentsibilizatzeko, bereziki adineko emakumeek jasaten duten indarkeriarik ezkutuenaren inguruan.

Beldur Barik: 2006. urteaz geroztik, kontzientziazio-kanpaina bat egiten da urtero, Berdinsarea sarearen esparruan. 2013tik, Emakundek kanpaina hori sustatzeko eta kudeatzeko ardura du; horretarako, zuzenean sustatzen du diseinua, garapena

eta ebaluazioa, hiru foru-aldundien eta Eudelen laguntzarekin eta Hezkuntza Sailarekin, Euskal Herriko Unibertsitatearekin eta EITBrekin lankidetzan.

Azaroaren 25eko kanpainaren esparruan, Beldur Barik programa garatzen da; gazteei zuzenduta dago. Programa honen helburu nagusia da emakume gazteen aurkako indarkeria prebenitzea eta, horretarako, neskei indarkeria sexista identifikatzeko eta hari aurre egiteko tresna eta baliabideak ematea eta mutil gazteekin beren jarrera sexistak prebenitzeko lan egitea eta beren eguneroko ingurunean eraso sexistak saihesteko rol aktiboa hartzea animatzea.

Beldur Bariken barruan, hainbat jarduera programatzen dira; horietan helburua da gazteen inplikazio eta parte-hartze aktiboa, besteak beste Beldur Barik lehiaketa eta amaierako Topaketa, programa integral honen jarduera eratzaille gisa.

Edizio honetan 51 udalerrri, kuadrilla eta mankomunitatek hartu dute parte, eta 242 lan aurkeztu dira. Era berean, tokian tokiko lehiaketa ugari ere antolatu dira. Edizio honetan gehien landutako gaien artean, lehenengo kategorian, genero-rolak eta berdintasunaren aldarrikapena jorratu dira; bigarren kategorian, sexismoa, emakumeen ahalduntzea eta sexu-aniztasuna, eta hirugarren kategorian, emakumeen ahalduntzea, eta kaleko jazarpena eta beldurra.

Beldur Barik lehiaketaren helburua da gaur egun emakumeek nozitzen duten desberdintasun-egoerari aurre egiteko, mutikoei eta neskatilek hartzen dituzten jarrerak eta jokabideak islatzen dituzten adierazpen artistiko individual edo kolektiboak onartzea, balioztatzea eta bultzatzea; adierazpen horietan ikusten baita, hain zuzen, errespetuan, berdintasunean, askatasunean eta autonomian, ardura partekatuan eta emakumeen kontrako indarkeriarekiko arbuio irmoan oinarritzen direla aipatutako jarrerak eta jokabideak. Aurten, segurtasun-neurriak kontuan hartuta, ez da Topaketa egin, eta, horren ordez, online sarien banaketa bat egin zen streaming bidez, Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitzatik, eta 100 pertsona inguruk jarraitu zuten.



Hauek izan dira lan irabazleak: lehen kategorian (12 urtetik 13 urtera), Durangotik bidalitako «Martxoak 8» bideoa eta aipamen berezia izan du Ermutik bidalitako «Eman buelta zure ipuinari» lanak. Bigarren kategorian (14-18 urte), Ondarrutik bidalitako «Lerro berrien artean» bideoa izan zen irabazlea, eta Berangotik bidalitako «¿Por qué?» lanak eskuratu zuen sari berezia. Hirugarren kategorian (19 urtetik 26ra), ikus-entzunezko lan onenaren saria Bilbora joan zen, «Oldartu» lanari egokitu zitzaien, eta Gasteiztik bidalitako «Gure misioa» lanak aipamen berezia izan du. Ikus-entzunezko ekoizpen onenaren saria Hernaniko «Errebelazioa» lanak eskuratu zuen.

Horrez gain, aurten sentsibilizazio-kanpaina bat sustatu da telebistan, irratieta, prentsan eta sare sozialetan, eta, horren bidez, indarkeriarik sotilena erakutsi

nahi izan da eta, bereziki, adineko emakumeek jasaten dutena. Kanpaina hori ez da ohiko kanpaina bat izan; izan ere, Emakundek 55 eta 79 urte bitarteko emakumeekin egindako prozesu baten emaitza da; emakume horiek urte askoan bizi izandako indarkeriaren benetako testigantzak eman dituzte. Emakumeak eurak dira kanpainaren protagonistak, eta, era berean, haiengatik hautatu da pairatzen duten ikusezintasunarekin amaitzea eta gizarteari dei bat egitea helburu duen mezua, gizartea adi egon dadin emakumeek bizi izan dituzten egoeren aurrean.

Kanpainak gizarteari zuzenean galdetzen dio, enpatia handiagoa aurkitu nahian, lelo honen bidez: «Entzunez gero, ikusiko duzu. Adi dagoen gizarte batek bakarrik antzeman dezake indarkeriarik ezkutuena»; halaber, gizartea sentsibilizatu nahi



Beldur Barik Lehiaketa.



Beldur Barik Lehiaketa.



“
 “Edo zure lagunak edo ni”.
 Aukeratu beharra nuela esan zidan.
 Ahoa irekitzen nuen eta dena iruditzen
 zitzaion gaizki... Eta gero eta txikiago
 sentitzen zoaz...”

entzunez gero,
IKUSIKO DUZU

ADI DAGOEN GIZARTE BATEK BAKARRIK ANTZEMAN DEZAKE
 INDARKERIARIK EZKUTUENA

Azaroak 25, Emakumeen kontrako
 indarkeria desagerrarazteko Nazioarteko Eguna
 25 de noviembre, Día Internacional para la
 eliminación de la violencia contra las Mujeres

900 840 111 24 h
 DEITU, ENTZUTEKO PREST GAUDE
 LLAMA, TE ESCUCHAREMOS




Azaroaren 25eko kanpaina.

du adineko emakumeen aurkako indarkeriaren inguruan, bereziki direlako zaugarriak, biktimak ikusezinak direlako, eta kasuak detektatzen eta adineko emakumei baliabide espezializatuak eskuratzen lagundu. Kanpainaren helburua da erakustea genero-indarkeria adin desberdinetako emakumeek pairatzen dutela (ez bakarrik emakume gazteek edo adin ertainekoek, komunikabideek eta kanpaina instituzionalek oro har nabarmentzen duten bezala; adineko emakumeek ere pairatzen dute), eta adineko emakumeen aurkako indarkeriak bere berezitasunak dituela: Ikusezintasuna; sistema patriarkal batean sozializatzea, non senarrei baimena eskatu behar baitzieten atzerrira joateko,

“
 Me dijo “o tus amigas o yo”...
 Era abrir yo la boca y todo parecerle mal.
 Y vas haciéndote cada vez más pequeña...”

si escuchas,
LA VERAS

SOLO UNA SOCIEDAD ATENTA PUEDE DETECTAR LA VIOLENCIA MÁS OCULTA

Azaroak 25, Emakumeen kontrako
 indarkeria desagerrarazteko Nazioarteko Eguna
 25 de noviembre, Día Internacional para la
 eliminación de la violencia contra las Mujeres

900 840 111 24 h
 DEITU, ENTZUTEKO PREST GAUDE
 LLAMA, TE ESCUCHAREMOS




lan egiteko edo kontu korrante bat irekitzeko; kasu gehienetan, autonomia ekonomikorik eza; garai hartako genero-indarkeriaren aintzatespen sozialik eza; gainerako pertsonak zaintzen beren bizitza osoa eskaintzen zuten emakumeen kondizioak... Kanpaina azaroaren 9tik 25era bitartean egin zen, telebistaz, irrati, online eta offline bitartekoen bidez eta sare sozialen bidez.

‘Emakunde’ aldizkaria argitaratzea

Emakunde aldizkarian informazioa eta elkarrizketak argitaratzen jarraitu dugu. Aldizkariko harpidedunek puntualki newsletterra jaso dute haien posta elektronikoetan. Edukiek, bidenabar, hedapen zabala izaten dute, sare sozialen laguntzari esker.

Interaktibitatea formatu digitalaren beste lorpenetako bat da, berri askok irakurleen iruzkinak jasotzen dituzte eta.

Aldizkariaren helburuetako bat gure gizarteko esparru batzuetan eta besteetan adituak diren emakumeak, emakumeen elkarteak eta Emakundek berdintasunaren alde egindako lana ikusaraztea da, eta horrez gain berdintasunaren arloko jardunbide onak ezagutaraztea ere bai..

3.4.5. Emakumeen eta Gizonen arteko berdintasunerako gunea

Emakundek 2020ko Berdintasunerako Gunearen antolaketa martxan jarri zuen; gune horretan, espazio komun bat denez, erakunde publiko eta pribatuek emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren alde egindako lana biltzen eta erakusten da urtero. Halere, azkenean ezin izan zen gauzatu COVID-19ak sortutako osasun-egoeraren ondorioz.



3.4.6. Hedabideetan agertzea

Herritarrak Emakunderen helburuez sentsibilizatzeko eta egindako jarduerak ezagutarazteko, erakundeak sentsibilizazio- eta informazio-lan handia egiten du komunikabideetan. Horretarako, iritzi-artikuluak eta prentsa-oharrak bidali ditu, eta prentsurrekoak, elkarrizketak eta bestelako ekintza batzuk antolatu ditu.

Horrez gain, hedabideen kontsulta eta eskariei erantzun zaie, adibidez elkarrizketak egiteko, datuak eskuratzeko, eta abar. Kontsulta gehienetan zera eskatu da: elkarrizketak Emakundeko zuzendariarekin, elkarrizketak egitea merezi duten adituei buruzko informazioa, emakumeen aurkako indarkeriarekin edo emakumeen lan-egoerarekin lotutako datuei buruzko informazioa, hainbat esparrutan (osasuna, lana, politika, etab.) berdintasunarekin lotutako hainbat gairi egindako azterlanei buruzko informazioa... Emakume eta gizonen berdintasunarekin zerikusia duen edozein gai aztertzeari ekiterakoan, hedabideek dauzkaten erreferentzien artean Emakunde da lehenengoetariko eta nagusietariko bat.

3.4.7. Berdintasunaren aldeko Emakunde Saria

Emakunde sariaren bidez, jendaurrean nabarmendu eta aitortu nahi da emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren arloan egindako lanagatik gailendu diren pertsona fisiko edo juridikoen –publiko nahiz pribatuen– jarduna, hain zuzen ere, EAEn emakumeen lana eta beren ahalduntzea aitortzeari dagokionez alderdi esanguratsuak hobetzeko ekintza, lan edo proiektuak egin dituzten pertsonak, edo beren jardunarekin, emakumearen zeregina aintzat hartzen eta duintzen lagundu dutenak edo emakumeen eta gizonen arteko eskubide- eta aukera-berdintasuna sustatzen nabarmendu direnak.

2020an, 2019ko Emakunde Saria irabazi zuen hautagaitzari saria eman zitzaion; Conny Carranza Castrok jaso zuen, 20 urte baino gehiagoko ekarpena egin baitu, dinamizatzeko eta mugiarazteko gaitasun handiko prozesuen bitartez,

emakumeen ahalduntze feminista lortzeko, bereziki nabarmenduz zaurgarritasun handiagoko egoeretan daudenak, hala nola emakume migratuen kasua.

